

# BASERRITARRA IZAN NAHI DUT

## Lehen sektoreko azterketa

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostiako Atala)

2019/2020 Ikasturtea

Gradu amaierako lana

**Egilea: Albizu, Irati**

**Zuzendariak: Begiristain Zubillaga, Mirene eta Galarraga Ezponda, Auxkin |**



## AURKIBIDEA

Taulen aurkibidea .....	4
Grafikoen aurkibidea .....	5
Irudien aurkibidea .....	5
I.Atala: Sarrera .....	6
1.1.Laburpena .....	6
1.2.Gaia aukeratzearen arrazoia .....	6
1.3.Lanaren planteamendua .....	7
1.4 Metodologia .....	8
II.Atala: Atal teorikoa .....	10
2. Lehen sektoreko aurkezpena .....	10
2.1. Lehen sektorearen bilakaera ESPAINIAN .....	12
2.1.2. Ustiapen kopurua eta landatutako azalera .....	15
2.1.3. Ustiategi berrien kopurua eta izaera .....	16
2.1.4. Nekazaritza ekoizpen ereduak .....	18
2.2. Lehen sektorearen bilakaera EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN .....	20
2.2.1. Ustiapen Kopurua (Nekazal errolda) eta landatutako azalera .....	23
2.2.2. Ustiategi berrien kopurua, lan postuak eta emakumeen papera .....	24
2.2.3. Nekazaritza ekologikoaren garrantzia Euskadin .....	27
2.2.4. Datu interesgarriak .....	30
2.2.5. Hausnarketa .....	31
III.Atala: Analisia .....	32
3.1. Ingurune orokorra .....	32
3.1.1. Faktore Politiko-Legala .....	32
3.1.2. Faktore ekonomikoak .....	37
3.1.3. Faktore sozial-kulturala .....	38
3.1.4. Faktore teknologikoak .....	41
3.1.5. Faktore ekologikoak .....	44
3.2. Ingurune espezifikoak .....	47
3.2.1. Sektoreko lehiakideen arteko lehiakidetasun edo norgehiagoka-maila .....	47
3.2.2. Lehiakide berrien mehatxua .....	48
3.2.3. Ordezko produktuen mehatxua .....	49
3.2.4. Bezeroen negoziazio-boterea .....	52
3.2.5. Hornitzaileen negoziazio-boterea .....	54
IV.Atala: Ezaugarri sozialak .....	56
4.1. Sarrera .....	56



4.2.Alderdi historikoa.....	57
4.3.Bizimodua eta bitzta estiloen eraldaketa .....	59
4.4.Gazteen egoera .....	62
4.5.Generoa .....	64
4.6.Ondorioak .....	65
V.Atala: Erronken posizionamendua .....	66
5.1.Aukerak .....	66
5.2.Mehatxuak .....	66
5.3.Indarguneak .....	67
5.4.Ahuleziak.....	67
VI:Atala: Lan enpirikoa.....	69
6.1.Nekazaritza Politika Bateratua.....	72
6.2.Formakuntza .....	74
6.3.Erreleboa eta despopulazioa .....	76
6.4.Bitzta soziala eta ohiturak .....	77
6.5.Teknologia.....	80
6.6.Gaztenek plana .....	81
6.7.Etorkizuneko gazteak.....	82
VII.Atala: Covid-19aren kalteak eta erronkak.....	84
VIII.Atala: Ondoriak eta gomendioak .....	88
8.1.Ondorioak .....	88
8.2.Gomendioak.....	90
IX.Atala: Iritzi pertsonala .....	91
X.Atala: Bibliografia .....	92
10.1.Albistek eta iritzi artikuluak .....	92
10.2.Datu baseak eta estatistika azterketak.....	95
10.3.Dokumentu akademikoak.....	97
10.4.Interneteko dokumentuak eta txostenak.....	99
XI.Atala: Eranskinak .....	102



## Taulen aurkibidea

Taula 1: EB sektore desberdinetako BPG a ehunekotan .....	10
Taula 2: Nekazaritzako BEG aren zuzeneko ekarpena BPG gain (2017).....	11
Taula 3: Espainiako sektore ekonomikoen zerrenda heldutako esportazio mailaren arabera (2017) .....	14
Taula 4: Lehen sektoreko adierazle nagusienak % .....	20
Taula 5: EAEren Makro-magnitudeen bilakaera.....	22
Taula 6: EAEko nekazaritza azalerako banaketa (2013-2016).....	23
Taula 7: Nekazaritza azalerako banaketa lurraldearen arabera (2013-2016).....	24
Taula 8: EAEko eragileko ekologikoen bilakaera .....	27
Taula 9: Landaketaren banaketa bilakaera %.....	28
Taula 10: Gaztenek programako gazteak .....	30
Taula 11: Diru laguntza jaso duten gazteak.....	30
Taula 12: NPB historian zehar izandako erreformak.....	33
Taula 13: Europar Batasuneko NPB marko finantzarioa M€ (2014-2020) .....	35
Taula 14: Ustiapeneko nagusiak egindako ikasketak .....	41
Taula 15: I+G.....	42
Taula 16: Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresak % .....	47
Taula 17: Euskadiko elikadura banaketa .....	55
Taula 18: Amiaren laburpena .....	68
Taula 19. Elkarrizketen fitxa teknikoa .....	71



## Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1: Espainiako sektoreen BPG a ehunekotan (2005-2017) .....	12
Grafikoa 2: Nekazaritza ekoizpenaren bilakaera (2000-2017) .....	13
Grafikoa 3: Nekazaritzako BEG % aren bilakaera (2000-2017) .....	13
Grafikoa 4: Espainiako nekazaritza fakturazioa produktuen ekarpenen arabera (2017) .....	14
Grafikoa 5: Ustiapen tamainaren arabeko histograma (2016) .....	15
Grafikoa 6: Ustiapenean lanean ari diren langileen adina (2016).....	17
Grafikoa 7: Ustiapeneko jabeen adina (2016).....	17
Grafikoa 8: Ekoizpen ekologikoaren bilakaera (2007-2017) .....	19
Grafikoa 9: Europako 10 herrialdeen zerrenda, ekoizpen ekologikoari eskainitako azalera. (Hektareak 2017).....	19
Grafikoa 10: Nekazaritzako produktuen bukaerako ekoizpena (M€) .....	21
Grafikoa 11: EAEn Makro-magnitudeen bilakaera .....	22
Grafikoa 12: EAeko pertsona titularra adin taldearen arabera (2016) .....	24
Grafikoa 13: Pertsona ustiategiko burua adin taldearen arabera (2016) .....	25
Grafikoa 14: Sektoreko lanpostuen banaketa (2015-20130) .....	25
Grafikoa 15: Lanpostuen bilakaera langile gaitu eta ez gaituak (2006-2030).....	26
Grafikoa 16: EAeko eragileko ekologikoen bilakaera .....	27
Grafikoa 17: NPB eboluzioa ehunekotan .....	35
Grafikoa 18: Garrantzi ekonomiko eta soziala elikagaien sisteman .....	38
Grafikoa 19: Pertsona landunak sexuaren arabera EAE (milakotan) .....	40
Grafikoa 20: Berotegi efektuko gas isuria sektoreka 2018 .....	46

## Irudien aurkibidea

Irudia 1: Kalitatezko etiketak .....	36
Irudia 2: Herritarren eskaera .....	86



## I.Atala: Sarrera

### 1.1.Laburpena

Gradu amaierako lan hau, Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua, lau urteez ikasten ibili ondoren; ikasgai ezberdinetan lortutako hainbat eduki, gaitasun eta trebetasunak modu praktikoago eta errealean lantzean datza.

Hori oinarri modura hartuz, ikerketa honen helburu nagusia ekintzaileen artean negozioaren irekiera lehen sektorean zergatik ez den azaltzen hausnartuko da. Hori dela eta, sektore honi buruzko hainbat esparru teoriko aztertuko dira. Ondoren, azterketa enpirikoa egiten da sektoreko agente desberdinak oinarri harturik. Horretarako, elkarrizketa erdi-egiturak erabili dira zuzeneko informazioa eta errealitatea jasotzeko asmoarekin. Bildutako informazio hori teoriarik landutako edukiekin alderatu eta emaitza desberdinetara iritsi da. Bestalde, Covid-19aren krisiaren aurrean aurkitu garenez, honi buruzko azalpen laburra ere azaltzen da. Amaitzeko, ikerketaren ondorio nagusienak atera dira eta ekarpenak egiteko asmoarekin hausnarketa txiki bat ere azaltzen da; bukaeran iritzi pertsonalarekin amaitzeko.

### 1.2.Gaia aukeratzearen arrazoia

Egia esan graduan zehar beti ikusi izan da oso urrun gradu amaierako lana egitea; gainera, hasieran ez diozu horrenbesteko garrantzirik ematen. Baina unea iristerakoan etortzen dira honi buruzko buruhaustekak. Argi nuen aukeratu nuen GRALrekin gizaritari nire ekarpen txikia eskaini nahi nioela eta ez nuela gainditzeko bakarrik balioko lukeen lana egin nahi.

Arrazoi horiek kontutan harturik, GAUR web orrian eskaintzen diren gaietatik Mirene Begiristain eskaintako gaia oso interesgarria iruditu zitzaidan. Izan ere, geroz eta indar gehiago hartzen ari den gaia izateaz gain, egunerokotasunean eztabaidan dagoen gaia da. Ez hori bakarrik, natura zein ingurugiroa ikertzeko grin hori txikitatik bizi izan dut aitonaaren esker. Azken finean, aitona Arkamurka natura elkartearen sortzailetako bat izanik, betidanik hainbat jardunaldietara eramanez izan ohi dit ezagutzak ikasteko. Hori horrela izanik, zer baino hobea naturaarekin harreman zuzena duen sektoreari buruzko ikerketa egitea.

Horregatik, ikerketa honen bitartez, gaur egun, lehen sektorearen egoera aztertzen hasi nintzen; hala nola, sektoreak dituen zailtasunak, erraztasunak, jasan dituen aldaketak, nekazarien egoera zein beste hainbeste aspektu ikertzen; honela amaieran, egoera hobetzeko hausnarketa txiki bat eskaintzeko asmoarekin.

Hori dela eta, begirada batez esan behar da azken urteetan gizaritea asko aldatu arren, gaur egun, geroz eta kontzientzia handiagoa dagoela elikagaien ekoizpenarekin. Horrekin batera, gertuko elikagaiak kontsumitzeko joera hazkorra dago, baina hala ere, lehen sektorean jardutea desagertzen ari da.

Are gehiago, gure ekonomian beharrezkoa den sektore bat da. Izan ere, lehengaiak emateaz gain, gizakiaren elikagai-iturri nagusia da. Gure sozietateko sektorerik antzinakoena izan arren, denboraren poderioz eta beste sektoreek hartu duten garrantziaren ondorioz, garatutako herrialdeetan jarduera ekonomikoaren garrantzia murrizten joan da. Arrazoi nagusienak, industrializazioaren iraultzak eta zerbitzu-



sektoreak herrialdearen demografian ondorioak ekarri zituelako izan baita. Esate baterako, baserriak bertan behera uzten hasi ziren eta hirietara mugitzen.

Hori gutxi balitz, jarduera ekonomiko honek, hainbat merkatu arrisku pairatzen ditu: batetik, eskaintza (klimaren eragina) zein eskari aldetik (urtarokotasuna, bezeroen konfiantza etab). Bestetik, ekoizpenean (errendimendua, kalitatea eta kostuak) ere eragina du eta azkenik, produktuak izan ohi duten prezioa, errenta eta faktore estrukturaletan ere (lurrerako sarbidea, ura lortzea, eskulana).

Arrazoi horiengatik, laguntza gisa politika ekonomiko baten beharrea dago. Europa Batasunean “Nekazaritza Politika Bateratua (NPB)” dago. Politika honen helburua nekazari, abeltzain, ingurumena, landa eremua zein elikadura zaintzean datza. Baina ez da nahikoa bere lanarekin errelebo falta horri konponbideak emateko.

Horregatik, albo batera utzi beharko ez litzatekeen sektorea dela argi ikusten da eta ahalegin guztiak egin beharko lirateke gazte aktiboak erakartzeko. Baina baserriarren gutxitzea printzipioz ez da arazo bezala ikusten den gaia.

Ondorioz, gogoeta honi laguntzeko asmoarekin hurrengo ikerketak sektorearen etorkizuneko erronkak eta aukerak identifikatu eta hausnartzeko helburua du. Sektore errentagarri, iraunkor, ingurumenarekin kontzientziatu eta nekazari zein kontsumitzaileei segurtasuna baimentzeko asmoarekin. Hori dela eta, gure elikagaien jatorriaz gehiago arduratzeko lehen sektoreko kanpainak egiten hasi beharko ginateke.

### 1.3.Lanaren planteamendua

Ikerketa lan bat dela oinarri hartuz, hamaika atal nagusietan bereizten da: sarrera, atal teorikoa, analisia, ezaugarri sozialak, erronken posizionamendua, atal enpirikoa, Covid-19aren kalteak eta erronkak, ondorioak, iritzi pertsonala, bibliografia eta eranskinak. Aurkibidean azaldurik agertzen dira eta jarraian era laburrean azalduko dira.

Hasteko, lanaren sarrera dago; bertan ikerketaren laburpena azaltzeaz gain, lanaren helburu nagusienak zeintzuk diren argitzen dira. Osterantzean, gaia aukeratzearen arrazoiak ematen dira eta amaitzeko, erabilitako metodologia azaltzen da.

Atal teorikoari dagokionez, lehen-sektorearen aurkezpen txiki batekin hasten da; Espainiako eta Euskal Herriko nekazaritza-sektoreko deskribapena eta gizarteari zein ingurumenari egiten dion ekarpenak aztertzen da. Azterketa horretan hainbat aldagai aztertu dira; hala nola, bilakaera historikoa, ustiapen kopurua, azalera zein izaera, ekoizpen moduak, lan postuak, emakumeen papera, nekazaritza ekologikoaren garrantzia eta beste datu interesgarri batzuk.

Gaiari buruzko informazio orokorra jaso ostean, analisiarekin hasten da. Hain zuzen ere, makro zein mikro-faktoreen identifikazio azterketarekin; hau da, nekazaritza-sektoreak jasaten dituen erronken identifikazioa eta deskribapena. Ingurune orokorreko faktoreen barruan, Pestel edo Pesta akronimoekin ezaguna den diagnostikoa egiten da. Funtsean, bost aldagai nagusiez osatzen baita; politiko-legala, ekonomikoa, sozial-kulturala, teknologikoa eta ekologikoak. Ingurune espezifikoari dagokionez, Porterren diagnostikoa egiten da; hau ere, beste bost aldagai aztertzean datza. Besteak beste, sektoreko lehiakideen arteko lehiakidetasun edo norgehiagokako-maila, lehiakide berrien mehatxua, ordezeko produktuen mehatxua, bezeroen negoziazio-boterea eta hornitzaileen negoziatio-boterea.





Hori gutxi balitz, bertan azaldutako arazo horietako bat berebiziko garrantzia du eta atal berezi bat eskaini zaio errazago ulertzeko. Jakina, ezaugarri sozialei buruzkoa da; alde batetik, sarrera txiki batekin hasten da arazoaren nondik norakoak azaltzen; bestetik, alderdi historikoa azaltzen da. Baita ere, gizartearen bizimodua eta bizitza estiloaren eraldaketa; era berean, gazteen egoera argitzen da eta nola ez generoak duen garrantzia. Amaitzeko, ondorioak aipatzen dira.

Horren ondoren, sektoreak erronken aurrean zer nolako posizionamendua izan ohi duen aztertzen da. Hain zuzen ere, AMIA akronimoekin ezaguna den analisiaren bidez, eta faktoreak errazago ulertzeko taula batean jaso da. Izan ere, etorkizuneko Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak aztertzen dira.

Atal teorikoa amaitu ondoren, errealitatera gerturatzeko inguruko nekazari zein adituei elkarrizketa egin zaie. Bertan, jarduera ekonomiko honi buruzko iritzi pertsonala azaltzeaz gain, lanean zehar azaldutako arazoei buruz jorratuko da: Nekazaritza politika bateratua, formakuntza, erreleboa eta despopulazioa, bizitza soziala eta ohiturak, teknologia, gaztenek plana eta etorkizuneko gazteak. Honela, ikerketan azaldutako gai horiek lehen eskutik jakin ahal izango da.

Lana amaitzen ari nintzen bitartean egoera berri batekin topo egin nuen; hain zuzen ere, Covid-19aren krisialdia. Hori dela eta, lehen sektorean eragin zuzena izango duenez, bestelako atal bat eskaini zaio gaixotasun honek ekarriko dituen arazoei buruzko azalpenak eta ondorioak ikertzeko.

Behin egoera guztiak aztertutik ondorio nagusi batera heltzera saiatu naiz. Horrez gain, hausnarrarazteko helburuarekin eta ekarpenak egiteko asmoarekin hainbat gomendio txertatu ditut. Bestalde, iritzi pertsonaleko atala ere gehitu da; ikerketan zehar izan ditudan oztopoak azaltzeaz gain, lortutako helburuak eta bestelako iritzia jaso dut.

Hamargarren atala bibliografiari dagokio. Bertan, APA (Publication Manual of the American Psychological Association) arauari bidez baliatuz, ikerketa egiteko erabilitako informazio-iturriak azaltzen dira.

Amaitzeko, eranskinen atala gehitu da. atal enpirikoan eginiko elkarrizketen galderak azaltzen dira informazio gehigarri modura.

#### 1.4. Metodologia

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko hainbat metodologia erabili dira lanean zehar. Batetik, atal teorikoa eta analisia aurrera eraman ahal izateko, informazio iturri publikoko analisia erabiltzeaz gain, datu base nagusien informazio kuantitatibo eta kualitatiboa erabili da. Horrez gain, analisi estatistiko eta ekonometrikoak ere erabili dira sektoreko joera desberdinak aztertu eta izan duen inpaktu ekonomikoa estimatu ahal izateko.

Egia da ia informazio-iturri gehienak sarean bilatu ditudala eta horietako askok aldizkari akademiko artikulua izan dira. Gainera, oso gai zabala denez, informazio ugari bilatzen da eta berri horiek mugatzea zaila egin zait. Bestalde, graduan zehar ikasgai desberdinetan erabilitako liburuak ere oso baliagarriak egin zaizkit. Hortaz, orduak sartzen eta hainbat dokumentu irakurtzen garatu izan ahal dut.





Hala ere, aipatu beharra dago, gradu amaierako lan honetako zuzendariek -Mirene Begiristain eta Auxkin Galarraga- hainbat txosten eta iturri baliagarri nire esku jarri dizkidatela.

Era berean, unibertsitateak eskainitako mintegiak ere oso baliagarriak izan dira. Bertan, informazio-iturriak bilatzeko metodologia eta baliabideek lana asko erraztu didate, baina aipatzekoa da benetako aurkikuntza Zoteko aplikazioa izan dela. Izan ere, txosten, dokumentu, web gune, artikulua edo beste hainbeste informazio-iturri jaso daiteke bertan, ondoren, lanean zitazten joan ahal izateko.

Bestalde, atal teorikoa errazago ulertzeko, hainbat taula eta grafikoen azterketak txertatu ditut. Taulen eta grafikoen lanketa nirea izan da, hala ere, datu ekonomikoak datu base nagusietatik hartu ditut; hala nola, Eustat, Europako Batzordea, Greenpeace etab.

Atal enpirikoan aldiz, metodo kualitatiboa erabili dut eta horretarako, elkarrizketez baliatuz nahiz; batez ere, erdi-egituratuak. Hau da, alde aurretik pentsatuta nituen galderak, baina elkarrizketa bertan emandako erantzunaren arabera bestelako galderaren bat bururatu ezker, horri buruz ere hitz egiten genuen. Azken finean, galdera asko beraien artean harreman zuzena dute eta ildo batetik edo bestetik joan daiteke. Gehitu beharra dago, elkarrizketatu bakoitzaren ohitura, bizitza estiloa, kultura, hezkuntza zein bestelako aldagaiengatik erantzun desberdinak jaso daitekeela eta horregatik, hainbat agenteei elkarrizketatzea egokia dela iruditu zitzaidan. Honela, iritzi desberdinak kontrastatu ahal izango baita.

Egindako elkarrizketa horiek, aipatu bezala sektoreko agente desberdinei egin zaie; aditu, irakasle, ikasle zein nekazariei. Hori horrela izanik, erabilitako galderak desberdinak izan dira. Edonola ere, guztiekin gai berdinak ukitzen saiatu naiz.

Bestalde, konfidentzialtasun itunari erreferentzia eginez, esan behar dut; elkarrizketatu guztien baimen zuzena dudala ikerketa honetan beraien identitateari buruzko datuak ipintzeko. Hala ere, iritziak edo diskurtsoak dira aztertzen direnak; hauek pertsona konkretu batean kokatu gabe. Kontuan hartu behar da, baserritar baten esperientzia edo iritzia erabiltzen ari garela, baina profil horretako pertsonen buruz modu orokor batean hitzegiteko eta talde sozial horretan dauden ikusmoldeak eta bizimoduak deskribatzeko balio duela. Horregatik, atal desberdinetan elkarrizketatu hitza eta ondoren zenbakiaren bidez desberdintzen dira.

Elkarrizketatuei dagokienez, Mirenek hainbat kontaktu eta gomendio eman zizkidan, modu berean, bestelako elkarrizketatuak nire inguruko nekazariak direnez, ez dut zailtasun handirik izan beraiekin harremanetan jartzeko.

Amaitzeko, azken irakurketan datu edo ideiak borobiltzeko eta ondorioak ateratzeko Mirenek eskainitako erreferentziak asko lagundu zidan. Ondoren, nire konklusio nagusiak atera ahal izateko eta hausnarketa eskaintzeko.

## II. Atala: Atal teorikoa

### 2. Lehen sektoreko aurkezpena

Lehen sektoreari buruz hitz egiten dugunean zuzenki naturarekin erlazionaturik dauden jarduerak izan ohi dira. (Eusko Jaurlaritzak, 2019) Zehatzago esanda, lehen sektoreko jardueren lurra lantzea da eta bertatik lehengaiak lortzera bideraturik daude; kontsumo propioarako edo bigarren sektoreagatik landuak izan daitezke. Bertan nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza, akuikultura, arrantza, meatzaritza, basogintza zein basoa ustiatzen dituzten jarduerak aurki daitezke. Izen hau hartzen du gizakien oinarritzako beharrak estaltzen dituelako. Izan ere, gizakiok zein abereek kontsumitzen dituen elikagaiak hornitzeaz arduratzen da.

Honen jardueraz gain, beste sektoreekiko duen eraginaren bitartez; ekonomiari, gizarteari, sozietateari, zein Espainiako lurraldean ondasuna sortzen du. Hori dela eta, ekarpen horiek identifikatzeko bere magnitudeak azalduko dira. Hala nola, ekoizpen zifra, Barne produktu gordina, Balio erantsi gordina, lanpostuak, merkataritza balantza zein beste herrialdeekiko duen garrantzia.

Hasteko, datuak errazago ulertzeko sektore batek duen garrantzia aztertzerako garaian barne produktu gordinaz (BPG) hitz egiten dugu. Hau da, denboraldi jakin batean normalean urtebeteko epean, herrialde batek ekoiztutako ondare eta zerbitzuen diru balioa adierazten duen adierazle ekonomiko bat da. (Economipedia, 2012) Gainera, ekoizpenaren bitartez sektoreen ekarpena balio erantsi gordina (BEG), barne produktu gordinaren (BPG) gain duen proportzioaren bidez ere neurtzen da. BEG, ekoizpenaren balioa eta ekoizpen horretara heltzeko erabilitako bitarteko kontsumoen desberdintasuna da. (Pwc, 2019)

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, mundu mailan, sektore bakoitzaren ekarpenak bilakaera desberdina izan dute. Horietatik, ekarpen gutxiena ematen duena nekazaritza da. Hori horrela izanik, zenbateko txiki horren arrazoiak aztertuko dira hurrengo orrialdeetan.

**Taula 1: EB sektore desberdinetako BPG a ehunekotan**

	Nekazaritza	Industria	Manufaktura	Zerbitzuak
<b>2010</b>	4%	27%	16%	63,3%
<b>2017</b>	4%	25%	16%	65,1%

Iturria: Banku mundialeko datuak

Ezer baino lehen, nekazaritzak Espainian duen garrantzia ikusteko gure inguruko beste herrialdeekin konparatu behar da. Eurostateko datuak harturik, bigarren taulan Espainiako ekonomia multzoaren gain, balio erantsi gordinak azaltzen da; Europako bost herrialde nagusiekin eta Europar Batasuneko batez bestekoarekin konparatzen da. Ikus daitekeen moduan, Espainiaren BPGaren ehuneko altuena da; Alemania, Italia, Herbehereak, Frantzia eta Erresuma Batuekin alderatu ezker.



**Taula 2: Nekazaritzako BEG aren zuzeneko ekarpena BPG gain (2017)**

HERRIALDEA	BEG % / Herrialdearen BPG
Espainia	%2,7
Alemania	%1,9
Italia	%1,9
Herbehereak	%1,9
Frantzia	%1,5
Erresuma Batua	%0,6
(EU) 28	%1,4

Iturria: Eurostat


Mundu mailan duen pisua ikusi ondoren, lehenik eta behin, Espainian duen garrantzia aztertuko da. Hala nola, urteen poderioz izan duen garrantzi erlatiboa azaltzen da. Ondoren, ustiapen kopurua zein beraien izaera zein den azertu ahal izateko. Bestalde, ekoizteko eredu zahar eta berrien aldeak zeintzuk diren azalduko dira. Jarraian, lanpostuak eta langileen sexua eta adinaren garrantzia aztertuko da; bereziki, gaur egungo emakumeen papera nabarmentzeko. Azkenik, sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eraginean zentratuko da; izan ere, ez baita berdina autonomi bakoitzean jarduera-ekonomiko bakoitzak duen pisua.

## 2.1. Lehen sektorearen bilakaera ESPAINIAN

Historikoki Espainian nekazaritzak paper garrantzitsua izan du. Izan ere, mendeetan zehar pisu handiena duen lanpostua izan da. Baina 1960tik aurrera gauzatutako industrializazio eta modernizazio prozesuarekin batera honen beherakada nabarmena gauzatzen da; bai, BPGan duen pisu erlatiboari dagokionean baita enplegu kopuruari dagokionean ere. 1960an BPGaren ehuneko %22,6 zen; hala nola, %41,7 lan postu sortzen zituen. 1986an Espainia, Europar Batasunaren baitan barneratu ostean, BPGaren %6,4 izatera pasa zen. Lanpostu guztien artean ehuneko kopurua erdira murriztu zen eta gainera, lanpetuko biztanleriaren %15 izatetik %5,6 izatera pasatu baitzen. (Rouzaut, 2018)

Ehuneko horiek urtero murrizten joan dira; “Estatuko Estatistika Institutuaren (INE)” arabera, 1995. urtean BPGaren %4ko balioa zuen, baina 20 urte beranduago zenbateko hori gehiago murrizten joan dela ikus daiteke. Horren arrazoia industrializazio eta modernizazioaren garapenarengatik izan da; hain zuzen ere, BPGa %2,687 murrizteraino. Hurrengo grafikoan nabarmenago ikus daiteke izan dituen aldaketak. (INEbase, 2019b)


**Grafikoa 1: Espainiako sektoreen BPG a ehunekotan (2005-2017)**



Iturria: Banku mundialeko datuak


Hala ere, pisu erlatiboetan bakarrik jaitsi dela esan daiteke, baina nekazaritza ekoizpena balio absolutuetan hazten doa urtez urte. 2000-2017 urte bitartean, nekazaritza ekoizpena 19.200 milioi euroetatik 25.300 milioi eurotara pasa da; %1,6ko hazkuntza izanik. BEGari dagokionez ere, %1,4ko hazkuntza izan du; 22.814 milioi euroetatik 28.779 milioi eurotara pasatuz. Termino absolutuen hazkuntza egon arren, epealdi berean BEGak duen proportzioa BPGarengain %3,9tik %2,7ra murriztu da. Hasieran esan bezala, beste sektore ekonomikoen hazkuntza bizkorraren ondorioarengatik. Azken datuen arabera, nekazaritza errenta 2018. urtean marka handia utzi du 30.217 milioi euroekin; izan ere, aurreko urtearekiko %4,3 hazkuntza izan du. Gainera, bigarren urtea da nekazaritzaren azken ekoizpenean ere honelako markak gaitzen direla; 53.391 milioi euro, %5,4 hazkuntza izanik. Honen arrazoia, diru laguntzak %6,2ko hazkuntza izan baitute; 6.557 milioi euro gehiago. (Maté, 2019)

### Grafikoa 2: Nekazaritza ekoizpenaren bilakaera (2000-2017)



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika (MAPA)

### Grafikoa 3: Nekazaritzako BEG % aren bilakaera (2000-2017)




Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika (MAPA)

Ekonomiko duen garrantzia aztertzeko, bestelako aldagaia, ustiapenetan erabilitako azaleraren bidez neurtu daiteke. Espainian “Estatuko Estatistika Institutuan (INE)” argitaratutako azken datuetan oinarrituta, 17 milioi hektarea erabiltzen dira; Europa Batasuneko bigarren herrialdea da; izan ere, “Erabilitako nekazaritza-azalera (ENA)” %13 da. Halaber, ekoizpenari dagokionez ere, 2017. urtean, bigarren postuan aurkitzen da 25.357 milioi euro sortu baitzuen; Europako ekoizpenaren %13 izanik. (Pwc, 2019)

Hurrengo grafikoa hainbat laborantzak egiten duten ekarpena azaltzen da. Ekoizpenari ekarpen gehiena egiten duena barazkiak (%38,8) eta fruituak (%37,2) dira; izan ere, biak batera 10 euro bakoitzeko 7 euro baino gehiago sortzen baitute. Horiez gain, zerealak (%11,6), bazka- landareak (%6,1), landare industrialak (%3,9), patatak (%1,8) zein bestelako laborantzak (%0,6) ekoizten dira.

Grafikoa 4: Espainiako nekazaritza fakturazioa produktuen ekarpenen arabera (2017)



Iturria: Eurostat

Ikuspuntu internazional batetik, Espainiaren ekoizpena, erreferentzia handiko da. Beste herrialdeekin konparatu ezker, abantaila lehiakor handiak baititu. Izan ere, egoera klimatologiko pribilegiatuak ditu; batez ere, negu fasean eguzki orduak eta temperatura onak izateak lagundu egiten baitu. Hori dela eta, 2017.urtean, 17.400 milioi euro esportatu zituen (%6,2). Honela, seigarren postuan aurkitzen da, ehun zein elikadura sektoreen gainera (3.taulan ikus daitekeen moduan). Gainera, Espainia, barazki zein fruituak esportatzen lehen postuan aurkitzen da estatu kideko beste lurraldeei begiratu ezker; %2,4 munduko kuota du eta seigarren postuan aurkitzen da mundu mailan; Txina, Erresuma Batua eta Indiarekin lehiatzen du. (Pwc, 2019)

Taula 3: Espainiako sektore ekonomikoen zerrenda heldutako esportazio mailaren arabera (2017)

SEKTOREA	ESPORTAZIOAK (M€)
Garraioa	57.831
Makinaria eta elektronika	36.212
Industria kimikoa	29.013
Metalurgikoa	24.059
Erregai sektorea	19.900
<b>Nekazaritza</b>	<b>17.430</b>
Barazkiak	6.266
Fruituak	8.683
Bestelako laborantzak	2.481
Ehun industria	16.933
Elikadura industria	15.153
Plastiko edo kautxua	14.683
Abere sektorea	11.502
Harri eta beira	8.204
Zur industria	6.820
Minerala	3.336



Oinetakoak	3.090
Larru eta azala	2.001
Bestelakoak	11.846


Iturria: Eurostat

Beste aldetik, inportazioak hurrengo produktuen artean banatzen dira; zerealak (%26), fruituak (%25), landare industrialak (%19), barazkiak (%12) eta bestelakoak (%18).

### 2.1.2.Ustiapen kopurua eta landatutako azalera

Ustiapenen estrukturei hitz egiten dugunean 5.grafikoan ikus daitekeen moduan nahiko tamaina txikia du.

**Grafikoa 5: Ustiapen tamainaren arabeko histograma (2016)**



Iturria: Estatuko Estatistika Institutuaren (INE)

%51 bost hektarea baino gutxiago ditu eta %11k 50 baino gehiagoko hektarea ditu. Hori ikusirik, azaleraren batz bestekoa 25 hektareari dagokio; zifra nahiko txikia Erresuma batua (90,1) eta Frantziarekin (61,9) konparatu ezker. Nahiz eta, ustiapen tamaina progresiboki handituz joan arren, eboluzioa oso mantso doa. Izan ere, 2005.urteetik, %7 besterik ez baita hasi. Ustiapenen tamaina txikia izatearen arrazoia, ustiapen horietan lan egiten duen pertsonetan ere islatzen da. Hala nola, “Estatuko Estatistika Institutuaren (INE)” eginiko inkestaren arabera, (INEbase, 2016) ustiapenaren %93 pertsona fisiko bakarrez osaturik dago. Gainera, langileen zenbateko handia ez da jarduera honetan eksklusiboki aritzen; baizik eta, osagarri gisa. Bestalde, inkestaren baitan soldata finkoko langileek (%69) ez dute ustiapenetan lanaldi osoa egiten; izan ere, ustiapen hauen %91 ustiapen familiarrak izan ohi baitira. Ondorio gisa, ustiapen tamaina txikiaren erruz, sektorearen produktibitateari mugak ezartzen dizkio. Honen arrazoia, enpresa txikiek duten ahalmen txikiarengatik dator; giza kapitala, kapital teknologikoa, prozesu berritzaileak, jarduera nazioartekotzea edo finantza baldintzak lortzeko zailtasunak baitituzte.





### 2.1.3. Ustiategi berrien kopurua eta izaera

Egun dauden ustiapenen kopurua aztertu baino lehenago; hurrengo galdera erantzuten saiatuko gara. Izan ere, ez dakigu nola den posible mende batean ekoizpena %15 handitu eta esportazioak bikoiztu arren, nekazaritza zein abeltzaintzako ustiapenak 80.000 desagertu diren.

José Luis Miguel, "COAG" en nekazaritza-antolaketaren zuzendari teknikoaren arabera, zelaiko okupazioak azken urteetan murriztapen fasean egon arren, orain, egonkor mantentzen ari da; 700.000 pertsoneri dagokie, horietatik, 300.000 ustiapen profesionalak dira. Hala ere, edozer ez du balio, lehen autonomo zein enpresa txikiak ziren lehen sektorean jarduten zutenak. Aldiz, gaur egun, ondo ekoizten ez duenak ezin du besteekiko lehiatu. Horrek, hainbat soluzio bilatzera eramaten du; besteak beste, inbertsioak egitera, errentagarriak izateko ekonomia eskalak bilatzea, ustiapen tamaina handitzea eta familien eskulana soldatapekoa izatea. (Bayona, 2018)


Gizarte segurantzako datuen arabera, ia 80.000 autonomo nekazari gutxiago daude erregistraturik 2008ko martxotik (299.979) 2017ko (220.143) datuekin alderatuz. Bestalde, 7.232 ko hazkuntza bat izan du enpresa zein kooperatiba aldetik, 26.181tik 33.413 pasa baitira. EPA (populazio aktiboko galdeketa)ren arabera, (INEbase, 2019a) epe horretan 34.800 familiek nekazaritzan laguntzen zutenak zelaian lan egiteaz utzi zuten. (Bayona, 2018)

Hain zuzen ere, lehen sektoreko langile kopurua 2000.urtean 882.000tik, 2017.urtean 749.700 langilera pasatu da, herrialdearen %5,3 ziren eta %4ra murriztu da.

Zerbitzu sektorea edo beste sektoreek baino garrantzi gutxiago izan arren, "Nekazari gazteen nekazaritza elkartearen (ASAJA)" datuen arabera, urtean 195.000 lanpostu berri sortzen dira; 2018.urtean 775.906 langile zeuden besteentzako lanean eta 188.815 autonomo, aurreko urtean baino 8941 eta 1464 langile gutxiago. (Jose Carlos Lopez Martin, 2019.) Errentari dagokionez, 29.955,3 milioi euro irabazi ditu: aurreko urtean baino %3,4 gehiago. "Nekazaritza errenta laborantzarako gutxieneko unitatea" ere, gehikuntza bat jasan du; besteak beste, %4,7 hazkuntza izan du 34.787,6 eurotara iritsiz. (Ministerio de agricultura pesca y alimentación, 2018) (Rouzaut, 2018)

Honenbestez, ustiapenaren tamaina txikia eta langile gutxiago egotearen arrazoia, lanean ari diren langileen adin altuaren ondorioz da. Eurostateko azken datuen arabera, ustiapenean lanean ari diren langileen %4k 35 urte baino gutxiago dute; 35-44 urte bitartean %14 dira; 45-64 urte bitartean %5 dira eta 65 urte gainditzen dituztenak %31 dira. Hurrengo grafikoan diferentzia hau hobeto ikus daiteke.


**Grafikoa 6: Ustiapenean lanean ari diren langileen adina (2016)**



Iturria: Eurostat

Europako beste herrialdeekin konparatu ezkerro, Espainia nabarmentzen da; batik bat, duen egitura zahartuagatik. Izan ere, 10 langileetatik 3ek 65 urte baino gehiago dute. Hurrengo grafikoa hobeto aztertu daiteke.

**Grafikoa 7: Ustiapeneko jabeen adina (2016)**



Iturria: Eurostat

Nabarmendu behar den beste datuetako bat nekazaritza jarduerako generoa da. Batik bat, lanpetuen %76 gizonetzkoak dira eta emakumezkoak %24a besterik ez dira. Desberdintasun honen arrazoia, Espainian duela hamarkada batzuk jasan zuen baserri exodoarengatik izan zen; bereziki, emakumeei eragin baitzion. Arrazoi horrek, ehunekoaren desoreka ekarri zuen. Heziketa aldetik ere, eragin handia du. Izan ere, nekazaritza sektorea batzuetan nazionalaren azpitik baitago. Batez ere, ustiapen kopurua aztertu ezkerro, herrialde nagusien azpitik aurkitzen da goi mailako heziketa



espezifikoari dagokionean. Hala ere, heziketaren hazkuntza mantsoa izan arren, hasten doa pixkana. 2005. urtetik, unibertsitateko heziketa dutenak %16ko hazkuntza izan du.

Amaitzeko hasierako galderari erantzuten, nekazarien zahartze maila altuaren ondorioz eta gazteen presentzia txikiaren arrazoiarengatik ustiategiak geroz eta txikiagoak eta geroz eta langile gutxiagoen presentzia nabarmenena da. Aztertu den moduan, langileen ehuneko altuena 65 urte baino gehiago baitute. Gainera, ez dago erakartasunik sektore honetan lan egiteko. Horregatik, hainbat azterketa egiten ari dira gazte gehiago erakartzeko asmoarekin (aurrerago aztertuko da).

#### 2.1.4. Nekazaritza ekoizpen ereduak

Espainiak azken urteetan aldaketa adierazgarria esperimentatu du ekoizteko moduan. Orain arte eskusiboa zen ekonomia konbentzional tradizionaletik, nekazaritza ekologiko edo integratzaileera pasa baikara. Hain zuzen ere, historian zehar, lurzorua erabileran hainbat teknika agertu dira. Lurzoru ereintzatik, lur lantze tradizionalera pasa zen. Lurzoruaren aldeko egitura bat sortzeko, sastrakak kontrolatzeko eta lurra haziekin landatzeko ereduak hasi zen. Lurzoruaren prestaketa prozesu hau, zuzenki, luraren emankortasuna areagotzeko eta laborantzen errendimendua hobetzeko loturik zegoen. Baina geroago teknika honek epe luzera lurra aldatzeaz gain, hainbat arazo ekartzen zituela konturatu ziren. Hala nola, materia organikoaren murrizpena ekartzeaz gain, beharrezkoa den kalitatea eta luraren estruktura mantentzeko kalteak ekartzen zituela konturatu ziren. (Gómez, 2015)

Espanian, nekazaritza konbentzionalerako teknikak pisu garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, 2007. urtetik, ekoizpen eredu hau %23,8 murriztu da; batez ere, ordezko ekoizpen metodo berrien agerpenengatik.

Nekazaritza kontserbazio teknika, ingurumen arazoak, lur galera eta lur narriadurei aurre egiteko azaldu zen; "Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO)" bultzadaz hain zuzen. Nekazaritza ere hau, ekoizpen iraunkorreko sistema da eta praktika agronomiakoak erabiltzen dira. Hau horrela izanik, laborantza eskaerei egokitzeaz gain, eskualde bakoitzaren baldintza lokaletara moldatzen da. Honela, laborantza teknikari ezker, higaduratik eta degradaziotik babesten du bere kalitatea eta bio-dibertsitatea hobetzen duelarik. Gainera, baliabide naturalen babesei laguntzen diote. Hala nola, ura, airea eta ustiapen ekoizpen maileri kalterik egin gabe. Hiru printzipio nagusi ditu; lehena, lurzorua gaineko lanen ezabapena da; gutxienez bere azaleraren %30 hondar begetalez estalia egon behar du urte osoan. Bigarrenik, belar-laborantzetako uztondoen mantenua da. Azkenik, zurezko laborantzetako zuhaitz errenkaden arteko landare-estalduretako kontserbazioa da. Honela, izurriak eta gaixotasunak hobeto kontrolatzen dira; monolaborantzetan mantentzen diren zikloak apurtuz eta laborantzak gehitzeaz gain, lurzorua emankortasun naturala eta bio-dibertsitatea hobetzen du. (AEAC.SV, 2017)


Nekazaritza eredu honen datuei dagokionez, Espanian, batz besteko hazkunde eritimoa mantendu egin da %4 izanik, gaur egun, 1,3 milioietan kokatu arte. Laborantza azaleraren %13 da eta Espainiako sektorearen nazio ekoizpenaren %12 da.

Beste teknika berrietako bat, nekazaritza ekologikoa da, baita nekazaritza organikoa bezala ezaguna; azken urteetan hazkuntza nabarmena jasan du. Teknika honek, ingurumenarekin errespetutsu diren sistemak erabiltzen ditu; hala nola, ez ditu

produktu kimikorik erabiltzen eta ekosistema mantentzeaz gain, kalitate bikaineko elikagaiak lortzen ditu. Hortaz, ez dira sintesi ongarririk, ez pestizidarik, ezta ere, hazkunderan eragin dezakeen erreguladorerik erabiltzen. 90.hamarkadatik gorakada nabarmena jasan du; gutxiengo eredia izatetik, gaur egun, gordian dagoen sistema izatera. (Gómez, 2015)


Hori dela eta, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Europan, Espainia da nekazaritza ekologikoko hektarea gehien erabiltzen duen herrialdea; 2 milioi baino hektarea gehiago ditu eta mundu osoan laugarren postuan aurkitzen da.

**Grafikoa 8: Ekoizpen ekologikoaren bilakaera (2007-2017)**



Iturria:(Zuzendaritza orokorreko nekazaritza ekologia eta bereizitako kalitatea, 2018)

**Grafikoa 9: Europako 10 herrialdeen zerrenda, ekoizpen ekologikoari eskainitako azalera. (Hektareak 2017)**



Iturria: Nekazaritza ekologikoa, Eurostat.

Bukatzeko, aurrerapen teknologiko berrien agerpenaren ondorioz, nekazaritza ustiatzeko garaian eragina du; gaur egun, zehaztasun nekazaritza bezala ezagutzen da.



Nekazaritza mota hau, ustiapenen kudeaketetan aurrerapen teknologikoen erabilera oinarritzen dira. Honela, baliabideen erabilera optimizatzen da eta beharrezko kantitateak une zehatz batean erabil ahal dira. Azken urteetan, protagonismo handia izatearen arrazoiez, urtez urte geroz eta bultzada handiagoa du. (Vega & Ruiz, 2013)

## 2.2. Lehen sektorearen bilakaera EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

Espainiako datuak ikusirik, diagnosa nabarmenago izateko, nire lana zehazki, Euskadin zentratuko da. Izan ere, industrializazio garaia heldu arte lehen sektoreak betidanik ekonomikoki eta sozialki garrantzia handia izan du. Hain zuzen ere, jarduera ekonomiko nagusienak hurrengoak dira; arrantza kostaldean, abeltzaintza eta basogintza mendialdeetan eta lurralde lauetan nekazaritza izan ohi dira. XIX. Mendean industrializazioak Espainian izan zuen eraginaren ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoan ere nekazaritza jarduerak lekua galtzen hasi zen.

Nabarmendu behar da, mundu mailan, euskal arrantzaleek duten ospea; adituak baitira. Hala ere, XIX. Mendean, nazioartean itsas baliabideen gehiegizko ustiaketa hedatu zen. Horren ondorioz, euskal flotak ondorio nabarmenak jasan behar izan zituzten. Urteak pasa ahala, beste azpisektoreen moduan bizirauteko nahiko arazo dituzte. (Jubeto, Y., Solange, M., Zurbano, M., & Arizkun, A., 2002). (Jubeto et al., 2002)

Hori dela medio, gaur egun, Euskal Herrian, langile-kopurua eta ekoizpen balioaren pisu erlatibo geroz eta txikiagoa da. Horregatik, hurrengo orrialdeetan sektorearen deskribapena azalduko da.

EAEko nekazaritza sektoreak, BPGaren %0,5-0,6 da; hala nola, lanpostuen %1,6koa da. Elikagaien industria eta egurraren industriarekin elkartu ezker, BGParen %3ko eta lanpostuen %4 da. (Lorenzo de Salinas & Ocio Arkaute, 2016)

Balio erantzi gordinaren ikuspegitik, lehen sektorea izan ezik, 2017an ekoizpen sektore guztiek ekarpen positiboa egin zioten. Hain zuzen ere, sektoreak bi urtez jarraian hazkunde positiboa izan arren, %3ko beherakada bat jasan zuen urteko batz bestekoan. Termino nominaletan, 2017ko aldakuntza tasa %5 izan zen, 2016 urtekoa baino %1,4 txikiagoa. Datu horien esanahia hurrengo da; sektorearen deflatoarea %8,2ra iritsi zen. (Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, 2017)

BPGaren deflatoarearen azalpena ulertzeko modu labur batean azalduko da. Aldagai hau, BPGaren prezio indize bat da; epealdi batean prezioen aldaketak kalkulatzeko ditu. Honela, prezioen igoeraren ondorioz, ekonomiaren hazkundera azaltzen da. (Pablo, 2015)

**Taula 4: Lehen sektoreko adierazle nagusienak %**

	2013	2014	2015	2016	2017
BEG bolumen indizea	-3,1	-20,0	13,1	2,0	-3,0
BEG prezioak	0,5	-9,5	3,9	6,4	5,0
Deflatoarea	3,8	13,2	-8,1	4,2	8,2
Enplegua	-5,5	-1,3	-1,0	0,6	0,1
Produktibitatea	2,5	-19,0	14,3	1,4	-3,1

Iturria: Eustat


Ekoizpenari buruz hitz egiten dugunean, Euskadiko Autonomia Erkidegokoan %53,4ko ekoizpena nekazaritza da; %33,9ko abeltzaintza; %9,2 basogintza eta %3,5a bestelako ekoizpenez osatzen da. (Madariaga, 2017)

Krisi garaiko datuak eta 2017. urteko datuak konparatu ezker, produkzio aldetik, %32,9an aurreratu da; hau da, ia heren bat: %34,3 nekazaritzako adarrean, %15,6 abeltzaintza, %43,5 basogintzan eta %13,4 bestelako produkzioetan.

2016 urteari erreferentzia eginez, nekazaritzak %2,4ko hazkuntza izan zuen; abeltzaintzak %1,8 eta bestelako produkzioak %9,9; baina basogintzak %-13,7ko murrizketa izan zuen. Multzoak zehazki, %0,01ko hazkuntza besterik ez zuen izan. (Madariaga, 2017)

Sektorearen kategoriei buruz hitz egiten dugunean, mahastia %21,7arekin lehenengo postuan aurkitzen da. Bestalde, hurrengo mailak ere badaude: barazkiak (%13,4), zerealak (%6,7), fruta (%3), patata (%2,2), bestelako industrialak (%1,6), lekak (%0,8) eta bestelako nekazaritza ekoizpenak (%4,1).

**Grafikoa 10: Nekazaritzako produktuen bukaerako ekoizpena (M€)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak

2017.urteko hazkuntzak 2016.urtearekin konparatu ezker, bestelako nekazaritza ekoizpenak nabarmendu behar dira; ia hirukoiztu egiten baita. Erremolatxa (%24,4) eta frutak (%5) ere goranzko joera izan du, baina jaitsierei dagokionez, zerealak %-15,1 eta lekak %-13,2 izan dira.


Balio emankorreko aldagaiei erreferentzia eginez (sarrerak), krisi garaiko beheraldia gainditu dute. Hain zuzen ere, nekazaritza errenta edo balio erantsi garbiari giza baliabideen ordainketak kentzen zaizkio. Progresiboki errekuperatzen joan da, baina 2009.urtetik 2017.urteko zenbatekoa okerrera izan da; %-3,3ko atzeraldia jasan baitu. Jaitsiara honen arrazoia, kostuen %4,6ko igoera eta diru laguntzen %-4,6ko murrizketen ondorioz izan da.

Taula 5: EAeren Makro-magnitudeen bilakaera

MAKROMAGNITUDEAK	2013	2014	2015	2016	2017
<b>NEKAZARITZAKO AZKEN EKOIZPENA</b>	458.127,8	509.344,5	523.455,4	545.966,0	546.018,4
Nekazaritza	233.956,0	250.584,4	277.777,7	284.830,1	291.594,5
Abeltzaintza	176.736,7	193.042,5	179.900,8	181.745,0	184.965,4
Basoa	37.585,1	45.312,0	46.451,2	58.361,4	50.342,9
Bestelako produkzioak	9.850,0	20.405,5	19.325,7	21.029,6	19.115,6
BITARTEKO KONTSUMOAK	175.676,9	177.711,2	195.764,8	187.813,4	196.382,9
DIRU LAGUNTZAK	63.144,7	60.000,7	65.696,2	65.974,8	62.911,1
AMORTIZAZIOAK	59.391,5	80.852,6	81.701,8	82.011,9	81.800,9
BEG merkatu prezioa	282.450,9	331.633,2	327.690,6	358.152,5	349.635,5
BEG faktore kostua	345.595,6	391.633,9	393.386,8	424.127,4	412.546,6
BALIO ERANTSI GARBIA= Nekazaritza errenta	286.204,1	310.781,3	311.685,0	342.115,5	330.745,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak

Grafikoa 11: EAeren Makro-magnitudeen bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak

Sektorearen erabateko emaitzari dagokionez, azken urteetan mahastiek berezko garrantzia izan du; EAeko kategoriarik garrantzitsuena bihurtuz. Bere balioa 2010.urteko minimoa (54.844,5 milioi €) 2016.urtearekin konparatu ezker (120.354 milioi €), %121,3 hasi da; goranzko joera oso azkarra, baina 2017.urtean beheraka bat jasan du %1,6. Beste bi kategoria nagusiei begiratu ezker barazkiak eta zerealak; hauek ere beheranzko joera izan dute (%-1,5 eta %-15,1). Guztizko nekazaritza balantzak aldiz, hazkuntza izan du; batez ere, bestelako nekazaritza ekoizpenei esker. Izan ere, 2017.urtean bere ohiko dimentsio ekonomikoak berreskuratu ditu jaitsiera baten ondoren.



Bosgarren taulan ikus daitekeen moduan ( Taula 5: EA Eren Makro-magnitudeen bilakaera), BE Garen faktore kostua %2,7ko beheraka izan du azken urtean. Nekazaritza ekoizpen guztiari dagokionez, BE Garen kostuak eta diru laguntzak kontuan harturik %75,6 da.

### 2.2.1.Ustiapen Kopurua (Nekazal errolda) eta landatutako azalera

Nekazal erroldaren azken datuen arabera (2016.urtea), Euskal Autonomi Erkidegoan, 15.564 nekazal ustiapen kontabilizatu dira %1,7 gutxiagoa 2013.urteari erreferentzia eginez (15.835); besteak beste, 249.042 hektareei dagokie. Hain zuzen ere, Espainiaren autonomien %1,67 besterik ez da; hektareen %0,83ko besterik ez baita eta erabilitako nekazal azaleraren %0,76 da. (INEbase, 2018)

**Taula 6: EA Eko nekazaritza azalerako banaketa (2013-2016)**

	2016	2013	Diferentzia %
<b>Ustiategi kopurua</b>	15.564	15.835	-1,7
<b>Azalera osoa (ha)</b>	249.042	259.797	-4.1
<b>Nekazaritza azalera erabilia ENA (ha)</b>	176.319	187.251	-5,8
Lur landuak	74.167	75.880	-2,3
Belarrezko lugorriak	59.104	60.485	-2,3
Frutarbolak	1.420	1.501	-5,4
Olibondoak	183	167	9,4
Mahastiak	13.338	13.653	-2,3
Beste zurezkoak	122	73	66,8
Larre iraunkorrak	102.148	111.371	-8,3

Iturria: Eustat

Lurraldeei dagokionez, ustiategiaren batz besteko tamainari begiratu ezker, Gipuzkoan %6 (14,4 ha) handitzen da; aldiz, Bizkaia (9,1 ha) eta Araban %2 (35,2 ha) txikitu egiten da.

Azalera osoari begiratu: Gipuzkoan %+3,7, Bizkaian %-0,3 eta Araban %-11,5 dagokie.

Ustiategi kopurua: %-2,1, %+2,6 eta %-9,8 da.

Nekazaritza Azalera Erabilia (NAE): %-7,2 Araban; %-5,7 Bizkaian; %-2,9 Gipuzkoan da, batez ere, larre iraunkorrenatik.

EA Eko larre iraunkorrak %57,9 dira; belarkiak eta lugorriak %33,5 izanik; mahastiak %7,6 dira; fruta-arbolak, olibondoak eta beste zura laboreak %1 dira.

Arabian aldiz, belarkiak eta lugorriak ENAren %58,5 dira; larre iraunkorrak %28,1 izanik eta mahastiak %13,1 dira,

Gipuzkoan, larre iraunkorrak %94,7 dira; belarkiak eta lugorriak %2,1 izanik eta fruta arbolak %1,8 dira.

Bukatzeko Bizkaian, larre iraunkorrak %91,7 dira; belarkiak eta lugorriak %6 bakarrik eta fruta arbolak %1,4 besterik ez.

**Taula 7: Nekazaritza azalerako banaketa lurraldearen arabera (2013-2016)**

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2016	2013	2016	2013	2016	2013
Ustiategi kopurua	2.947	3.265	6.906	6.733	5.712	5.837
Azalera osoa (AO) (ha)	103.839	117.348	62.947	63.131	82.257	79.318
Nekazaritzako azalera erabilia (ENA) (ha)	95.588	102.954	37.661	39.919	43.070	44.378
Lur landuak (LL)	68.764	70.752	3.115	2.748	2.288	2.380
Belarrezko eta lugorriak(*)	55.931	57.530	2.253	1.958	920	997
Frutarbolak	103	93	529	538	788	870
Olibondoak	179	164	0		3	3
Mahastiak	12.493	12918	301	250	544	485
Beste zurezkoak	57	47	32	2	32	24
LARRE IRAUNKORRAK	26.822	32.202	34.545	37.171	40.782	41.998

Iturria: Eustat


Klimaren aldaketa eta honek ekartzen dituen ondorioak geroz eta nabarmenagoak direla ikus daiteke. Aurrerago aztertuko dugun faktoreak izan arren, nekazaritzako lurren tamainan eta hauen ustiapenetan ekoiztu nahi duten produktuetan eragin handia du. Hala ere, ustiategi txikiagoak izatearen arrazoia bertan lan egiten duten langile eta hauen adinarekin zerikusia ere badu.

### 2.2.2. Ustiategi berrien kopurua, lan postuak eta emakumeen papera

Nekazaritzaren etorkizuna, lehia eta ustiapenen iraunkortasunarekin loturik dago. Batez ere, negozioen dimentsio handiagoa lortu behar baita. Horretarako, gazteak sektorean sartu behar ditugu. Honela, ustiapenen jarraitasuna eta jardueren dibertsifikazioa bermatzen baita. (Guipuzkoako foru aldundia, 2017)


Aurreko atalean azaldu denarekin oinarri modura, ustiategiaren tamaina txikiaren arrazoia, nekazarien adinaren arabera da. Izan ere, nekazarien %40,36 65 urte gainditzen dituzte; partzialki lanean ekoizpen mistoekin eta produktibitate nahiko kaxkarrez osatzen dute. Ustiapen mota honen kontra ustiapen profesionalagoak aurkitzen dira; hain zuzen ere, nekazaritza gazteagoa dago eta orientazio emankorragoa ematen dute.

**Grafikoa 12: EAEko pertsona titularra adin taldearen arabera (2016)**



Iturria: Eustat


### Grafikoa 13: Pertsona ustiategiko burua adin taldearen arabera (2016)



Iturria: Eustat

Lanpostuei buruz hitz egiten dugunean, Lanbidek eskuragarri dituen datuak oinarri hartuz, grafikoa ikus daitekeen moduan nekazaritza sektoreak 2015-2030 urte bitartean lanpostuen aukera gordinak -3267koa da. Hala nola, 2030 urterako %46ko jaitsiera aurreikusten delarik (6149 lanpostu).


### Grafikoa 14: Sektoreko lanpostuen banaketa (2015-20130)



Iturria: Lanbide

Hain zuzen ere, 2006.urteari erreferentzia eginez, 15.318 lanpostu ziren. Baina urtez-urte beherantz doa zifra hori; 2018.urtean 11.566 lanpostuetara iritsi ziren eta %24,49ko jaitsiera izan zuen. Langile gaituekin konparatu ezker, 2011.urtean 13.852 ziren, langile ez gaituak baino (13.317) gehiago. 2012.urtean mantendu arren, harrezkero beherakada nabarmen bat egon da. 2018.urtean 10.493 eta 11.566 langile zeuden eta %24,24ko jaitsiera izan baitzuten. Jarduera bakoitzean dauden langile gaituei dagokionez, nekazaritzari %49,33 dagokie, baso eta arrantzari %12,56, abeltzaintza %27,61 eta bestelako jarduerak %10,48 dira. Zehazki, nekazaritzan 5.177 langile daude lanean; horietatik %17 gizonezkoak dira eta %83a emakumezkoak.

### Grafikoa 15: Lanpostuen bilakaera langile gaitu eta ez gaituak (2006-2030)



Iturria: Lanbide

Sexuaren arabera konparaketa egin ezker, urtez urte emakumearen papera geroz eta garrantzia handiagoa du. 2018ko Eusko Jaurlaritzaren azken datuen arabera, nekazaritza ustiapenen jabeak 21.796 dira; horietatik, 7.402 emakumeak (%34) dira. (Eusko Jaurlaritza, 2018a)

Gainera, lanpostuei dagokionez, 459.247 emakumeei dagokie (%47,72) eta gizonezkoak 503.050 (%52,27) dira. Baina datu interesgarrietako bat langile gaituei buruz hitz egiten dugunean da. Izan ere, emakumeen zifra bikoitza da. Lehen esan bezala, 10.493 langileetatik 6.781 emakumeei dagokie %64,62 gizonezkoen 3.712ren %35,37 aurrean. Aldaketa hau 2015.urtean hasi zen ematen; 2014.urteari erreferentzia eginez, 4.866tik 6.142ra pasa baitzen; hain zuzen, %26,22ko hazkuntza izanik. Aldiz, gizonezkoetan 7.015tik 5.450ra %22,30eko murrizketa jasan zuen. Nabarmenago ikusten da nekazaritza jardueran 5.177langile gaituetatik 4.279 emakumeak dira, non, gizonezkoak 898 besterik ez diren.

Aldaketa drastiko horren ondorioa 2015.urtean Emakume Nekazariaren Estatutua onartu zelaren arrazoia izan daiteke. Estatutu horrekin lehenengo sektoreko emakumeari eman beharreko aitorten profesionala ematen zaio. Horrez gain, eskubide laboralak, sozialak eta fiskalak onartzen zaizkiete. (Eusko Jaurlaritza, 2016)

Hala ere, emakumearen presentzia geroz eta handiagoa den arren, nekazaritza arloko elkarte eta erakunde profesioaletako erabakitze batzarrean emakumeek ordezkari txikia dute. Hori dela eta, ordezkari orekatua lortzeko sektorearen araudia egokitu behar da. Horrez gain, Estatuak hainbat helburu finkatu ditu sektorean aitortuak izan daitezkeen eta era berean, ikusgarritasun handiagoa izateko. Finkatutako lehenengo helburua hurrengoa da: 2019ko urriaren 22tik aurrera, emakumeen zuzendaritza egoten behar du. Alde batetik, erakunde profesioaletan eta bestetik, enpresa erakunde, sindikatu zein bestelakoetan. Arauak beteko ez balitz, ez litzaieke diru laguntzarik emango. Bigarrenik, 2021eko urriaren 22tik aurrera, zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia egoteaz gain, orekatua egon beharko luke. Zehazki, enpresen %40 emakumez osaturik egon beharko dira, diru laguntzez baliatu ahal izateko. (Eusko Jaurlaritza, 2018a)

### 2.2.3. Nekazaritza ekologikoaren garrantzia Euskadin

Espainiako atalean hainbat nekazaritza ekoizpen, beraien garrantzia eta azken urteetan izaten ari den hazkuntza azaldu ondoren, atal honetan nekazaritza ekologikoak Euskal Herrian duen garrantzia aztertuko da. Bereziki, euskal nekazariak kontzientzia handia baitute osasun eta naturarekin. Izan ere, ekoizpen mota honek produktu naturaletan oinarritutako elikadura osasungarria eskaintzeaz gain, mantengugai guztiak mantentzen ditu; hau da, kontserbarik eta produktu kimikorik gehitu gabe. Hori dela eta, nekazaritza ekologikoaren modalitatea urtez urte hazten doa, batez ere, azalera kopuruan, ekoizleak, enpresen fakturazio eta komertzializazioa. (Guipuzkoako foru aldundia, 2017)

Euskal Herrian, teknika hau Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) bitartez erregulatzen da (ENEK, 2019). 2017urtea erreferentzia moduan hartuz, nekazaritza ekologikoaren eragileen %8ko hazkuntza izan zuen eta azalera ekologikoen %5eko hazkuntza eman zen; nekazaritza sektorearen osotasunean %4ko garrantzia du.


Elkarteak argitaratutako azken datuen arabera, 2018.urtean 585 eragile ekologiko izan ziren aurreko urtean baino 43 eragile gehiago; %7,94 hazkuntza izanik. Lurraldeei dagokionez, Araban (%9,09) hazkuntza izan zuen, Gipuzkoan (%6,5) eta Bizkaia (%8,57). Hala ere, Euskadiko lurraldeetatik Gipuzkoak jarraitzen du ekoizpen ekologiko adierazgarriena duena, zeren, 227 eragile (%38,8 errola), Araba 168 eragile (%28,7 errola) eta Bizkaia 190 eragile (%32,5 errola) baitaude.

Taula 8: EAEko eragileko ekologikoen bilakaera

EUSKADIKO ERAGILEAK	2016		2017		2018	
	Eragileak	%	Eragileak	%	Eragileak	%
Araba	147	28,60	154	28,40	168	28,70
Bizkaia	161	31,30	175	32,30	190	32,50
Gipuzkoa	206	40,10	213	39,30	227	38,80
Guztira	514	100,00	542	100,00	585	100,00

Iturria: ENEK

Grafikoa 16: EAEko eragileko ekologikoen bilakaera



Iturria: ENEK

Azalerari dagokionez, 2017.urtearekiko %5,2ko hazkuntza erregistratu zen; hain zuzen ere, 4466 hektareetara iristeraino. Arabari dagokionez, 2015ko beherakadaren ostean 2016.urtean, %8,8ko hazkuntza izan zuen; hala ere, azken datuen arabera %2,43ko hazkuntza besterik ez du izan. Beste lurraldeetako hazkuntza handiagoa izan da, Bizkaian %7,16 eta Gipuzkoan %13,06 izan baitzen. Argi ikuste da, Araban kokatzen da EAEko azalera ekologiko erdia baino gehiago (2018ko abenduan, %61,2ko zenbatekoarekin 2735 hektareei dagokie). Aldiz, Bizkaia eta Gipuzkoa ia garrantzi berdina dute (%19,08 eta %19, 883 eta 848 hektareei dagokie).

2018 urteko bukaeran, azalera gehien hartzen jarraitzen duen azpisektorea; larrea, bazka eta ilarren ekoizpena da, azaleraren %63 (2796 ha) hartzen duelarik. 2017.urtean, mahastiak beherakada izan ondoren, 2018urtean errekerperatu egiten da %42,6ko hazkuntza izanik; %17ko azalera hartuz (743ha). Aleetarako zerealak aldiz, 2017.urtean %76,84ko hazkuntza izan ondoren, 2018.urtean %-46,69ko murrizketa jasan zuen; %6ko azalera hartzen du (258ha). Barazki ekoizpenari dagokionez, mantendu egiten da %4ko azalarekin; 2017.urtean murrizketa izan ondoren (%21,76) hektareek %5,96ko hazkuntza izan dute (160ha), frutak ere %6ko azalera hartzen du (277ha).

Lurraldearen arabera, landatutako elikagaien ehunekoak hurrengo taulan ikus daiteke.

**Taula 9: Landaketaren banaketa bilakaera %**

LURRALDEKA	2016							
	Larre, bazka	Mahatsa	Zereala	Barazki	Leka	Fruta	Tuberkulu	Olibondo
Araba	41	28	15	4	3	2	2	1
Bizkaia	84	0	0	8	0	7	0	0
Gipuzkoa	70	2	0	8	0	18	0	0

LURRALDEKA	2017							
	Larre, bazka	Mahatsa	Zereala	Barazki	Leka	Fruta	Tuberkulu	Olibondo
Araba	54	19	18	1	2	1	1	1
Bizkaia	84	0	0	8	0	8	0	0
Gipuzkoa	71	2	0	7	0	19	0	0

LURRALDEKA	2018							
	Larre, bazka	Mahatsa	Zereala	Barazki	Leka	Fruta	Tuberkulu	Olibondo
Araba	54	27	9	1	2	1	1	1
Bizkaia	88	0	0	8	0	8	0	0
Gipuzkoa	70	1	0	6	0	20	0	0

Iturria: ENEEK

Abeltzaintza ekologikoari dagokionez, Euskadin pasa den urtean baino %4,27 gutxiago egon arren, ziurtapen ekologikoa duten 112 ustiategi dauzkagu. Haragitarako behi hazkuntza da jarduerarik garrantzitsuena (ustiategiaren %29), jarraian datoz haragitarako ardi hazkuntza (%17) eta arrautzetarako oiloak (%14).

Bestalde, elikagai mota honetako produktu gehienak prozesatuak izan ohi dira; hau da, elikagai enpresetara eraman eta eraldaketa jasaten dute. Aldiz, Euskadin ekoizpen ekologikoaren ezaugarrik du indar handiena. Hori dela eta, proportzioan, Estatuko beste lurralde batzuekin konparatuz gero mota honetako industriaren indarra handia da. 2018aren bukaeran, 202 eraldaketa enpresa zeuden inskribatuta ENEEken. Hala ere, hazkuntza beste urte batzuetan baino handiagoa izan da (%14,12). Lurraldearen arabera, Araban kokatzen dira ziurtatutako elikadura-industriaren %30, Bizkaian %21 eta Gipuzkoan %49. Jardueraren arabera, produktu begetalen alorrean hurrengoak nabarmentzen dira: ardogintza eta ardoaren botilatzea (%21), okintza (%19), sagardoa





bezalako edari alkoholduen elaborazioa (%12) eta opilgintza (%9). Abere-produktuen elaborazioari dagokionez, esnekiak ekoizpena (%33), hiltegiak eta zatiketa gelak (%22) eta arrain kontserbak (%24) dira nabarmenenak.

Elikagai ekologikoen eraldaketa-industrien, zein produktu ekologikoen kontsumoaren joerari buruzko datu interesgarriak aurki daitezke ENEEK webgunean. Bertan, erroldatutako industria-mota hauek urtean zehar izan duten fakturazioa azaltzen da. Datuak ikusi ezker, fakturazioaren zenbateko indarrez hazi da 2017.urtearekin konparatzen baldin bada; izan ere, bikoiztu egin baita. Fakturatutako zenbatekoa 20.390.421,22€tara iritsi da, aurreko urtean baino %22 gehiago. Honen arrazoia, 2014.urtean, Euskadiko nekazaritza ekologikoen sustapenerako ekimena (FOPE) (Fope, 2014) indarrean jarri baitzen eta ordutik, fakturazioaren hazkundera goraka doa.

Bittor Oroz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien sailburuordearen arabera, 2020.urterako 800 eragile eta 5000 kontsumitzaile baino gehiago izatearen helburu dute. (J. Fernandez, 2017)



## 2.2.4. Datu interesgarriak

Atal honetan gazte nekazariei laguntzeko dauden hainbat programen garrantzia, informazioa eta izandako inpaktua azalduko da.

Euskal Herrian ezagunena den ekimen horietako bat Gaztenek programa dugu. EAEan egin den lehenengo ahalegin serioa dela esan daiteke. Euskadiko hiru diputazioek, Euskal Gobernuak eta Hazi erakundearen eskutik 2004. urtean sortutako iniziatiba da. Planaren helburu nagusia lehen sektoreko nekazari gazteen sarrera eta iraupena bultzatzea da. Bestalde, dagoeneko sektorean jarduten duten gazteei bertan irauten laguntzea ere helburu dute. Guzti horrek, nekazaritza sektorearen etorkizuna ziurtatu eta euskal gizarteko bizi baldintzak finkatzeko ahalbidetzen du. Horrez gain, nekazaritza sektoreak gaur egun duen arazo nagusieneko bati aurre egiteko asmoarekin sortu zen. Hain zuzen ere, nekazari zahartuei erreleboa gauzatzea. (GazteNek, 2004)

2004-2014 Euskadiko Landa garapenerako programen datuen arabera, dagoeneko 753 gazte sartu dira Gaztenek programan. Horietatik %67 gizonezkoak dira eta %33a emakumezkoak dira. Gainera, zenbateko horietatik 483 gazte baliatu dira lehen sektorean kokatzeko diru laguntzez; zehazki, 27.036.622,18€. (GazteNek, 2014)

Hurrengo taulatan zehatzago ikus daitezke datuak.

**Taula 10: Gaztenek programako gazteak**

Lurraldea	Monitorizatuak	
Araba	180	%24
Gipuzkoa	297	%39
Bizkaia	276	%37
Guztira EAE	753	%67 Gizonezkoak %33 Emakumeak

Iturria: Gaztenek

**Taula 11: Diru laguntza jaso duten gazteak**

Lurraldea	Zenbatekoa		Diru laguntza	
Araba	118	%24	4.438.070,86	%16
Gipuzkoa	160	%33	5.100.573	%18
Bizkaia	205	%42	17.497.978,32	%65
Guztira EAE	483		27.036.622,18	

Iturria: Gaztenek



### 2.2.5. Hausnarketa

Mundua transformazio erradikal bat bizitzen ari da; geldik egon ordez hurrengo urteetan biziki areagotuko dena. Aldaketa hau lehen sektorean ikusi dugu. Azken hamarkadetan sektore tradizional batetik, aurreratua eta lehiakor batera aurrerantz egin baitu. Hala ere, joera nazional zein internazionaleri aurre egin beharko zaie. Hain zuzen ere, administrazio gestioa nekazaritzaren etorkizuna eta arrakastari eragingo dio; epe labur eta epe luzera. Zentzu horretan, nekazaritza eskari hazkor eta beharrei erantzuteko moldatu egin beharko da. Horretarako, geroz eta globalizatu eta araudi mailan zailagoa dagoen merkatu baten kontra egin beharko du. Hori dela eta, produktibitatea eta lehia handitzea eskatuko du. Hala nola, ingurune jasangarria bultzatzeko beharra, klima aldaketaren kontra borroka egin beharko da eta baliabide eskasien aurrean jokatzeko hasi beharko da. Testuinguru horretan, sektoreak estrategikoki jokatu beharko du datozen aldaketen aurrean. Horretarako, hurrengo atalean aztertuko dira sektoreari zuzenki eragiten dien eragileak zeintzuk diren: nekazaritza politikaren menpekotasun handia, arazo sozioekonomikoak, ingurumenean inpartu zuzena dutenak eta teknologiaren iraultzak duen eragina.

Hala ere, aurreko ataleko hausnarketa gisa elikagaien segurtasuna mantentzeko gazteen garrantzia azpimarratu behar da. Baina mundu mailan gazte gutxi batzuk besterik ez dute beraien burua lehen sektorean ikusten. Izan ere, ikusi den moduan, Euskadiko BPGaren %0,5-0,6 besterik ez da; lanpostuen %1,6 izanik. Baina hori horrela izan arren, ustiatzearen kopurua %1,7 murrizten doa (Espainiaren %1,6 besterik ez da). Gainera, langileen %40 65 urte baino gehiago dute eta lanpostuetan geroz eta desberdintasun gutxiago egon arren, oraindik gizonezkoak dira gehiengoak %52 emakumeen %47aren aurrean.

Gazteen arazoetako bat nekazaritzan jarduteko kredituen sarbide eta baliabideen eskasia da. Baina faktore hauek gainditu arren, hiriko bizitza ez al da hobea?

Munduko elikagai gehiengoak nekazari txikiak (zaharrak) ekoiztu arren, probabilitate gutxi dute nekazari hauek produktibitatea hobetzeko beharrezkoak dituzten teknologiak berain ustiapenetan txertatzean. Horregatik, nekazari gazteen inkorporazioa beharrezkoa da. Posible al da hau egitea? Ez da erraza, baina ekimen berriei ezker itxaropena handiagoa dago.

Gaztunek bezalako programa eta beste ekimenei ezker hainbat soluzio baliagarri daude erronkei aurre egiteko eta honela, baserriko bizimoduari aurre egingo zaio. Azaldu den moduan laguntzak dauden heinean gazteak beraien etorkizunerako hainbat ekimen formula sortu ditzakete eta era berean sozietateari ekarpenak egin dezakete.



### III. Atala: Analisia

Lehen sektoreak bizitzen ari den egoera analizatu ondoren, atal honetan sektoreari zuzenki edo zeharka eragiten dien makro eta mikro faktoreei buruz hitz egingo dugu.

#### 3.1. Ingurune orokorra

Kanpo analisiari buruz hitz egiten dugunean makro faktoreei buruz ari gara. Izan ere, faktore hauek ingurune orokor batean kontrola ezinak diren portaerak dira. (Alegret, 2018). PESTEL edo PESTA akronimoarekin ezaguna den erreminta bezala ere ezagutzen da; bost faktorez osaturik. (Ohmae, 2014)

##### 3.1.1. Faktore Politiko-Legala

Faktore honi dagokionez, legeekin edo gobernuarekin lotuta dagoen arauketa guztiari egiten dio erreferentzia. (Ohmae, 2014)

Sektore honi zehazki Nekazaritza Politika Bateratua (NPB)ren gain menpekotasun handia du; batik bat, finantzazioaren ikuspuntutik. Izan ere, errendimenduak atzeratu egin daitezke ekoizpen epeen menpe baitaude. Hori dela eta, urte batetik bestera egon daitezkeen aldakortasun altuak aurreikusteko nekazariak finantzaketa iturri egokiak edukitzera behartuta ikusten dira. Hori dela medio, Espainian behar hauen zati handia Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) eskainitako diru laguntzen bitartez estaltzen dira. Hala ere, laguntza autonomikoak, eskualdekoak, probintziakoak eta udalerrikoak ere laguntzen dute. (Pwc, 2019)

Politika honen sorrera 1962. urtean izan zen. Nekazari zein sozietatearen arteko elkarteak irudikatzen du. (European Commission & Directorate-General Communication, 2014) Elkarrekin honen helburua hurrengo da: Europako bizi maila duina eskaintzeaz gain, nekazariak dituzten hainbat funtzioetan aritzeko sortu zen (elikagaiak ekoiztu). Hala nola, 22 milioi nekazari zein nekazari langileei laguntzen du eta 500 milioi herritarrei elikagai-hornikuntza egonkor, ugariak, eskuragarriak, seguruak eta kalitate onekoak eskaintzeko bermea du. (Comision Europea, 2016)

Azken finean, zuzeneko ordainketen bitartez, nekazaritzako lehia eta iraunkortasuna indartzea lortu du. Honela, nekazaritza errenta egonkortzeaz gain, proiektuak finantzatzen ditu hainbat programen bitartez; horietako bat, baserrien garapenerako izan ohi da. Bestalde, merkatuko hainbat neurri ere aurreikusten ditu. Izan ere, existitzen diren arazoei ekidin nahi ditu eta nekazariari laguntzeko kalitatezko etiketak zein produktuen promozioak bultzatzen ditu. (Comision Europea, 2016)

Urteen poderioz politikak eboluzioa jasan du egoera ekonomiko aldakorrei zein herritarren eskaerei aurre egiteko; honela, sektoreko beharrei egokitu da. Hurrengo taulan adierazten dira historian zehar politika honek izan dituen aldaketa nabarmenak. Hala ere, nabarmendu beharra dago gaur egun, pil-pilean dagoen gaia da. Izan ere, erreforma berriaren adostekak martxan baitaude (aurrerago aztertuko dira).

## Taula 12: NPB historian zehar izandako erreformak

<b>1962.urtea</b>	NPB sorrera Helburuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elikagai eskuragarriak</li> <li>• Nekazarietako bidezko bizi maila</li> </ul>
<b>1984.urtea</b>	Arrakastaren biktima Ustiapenak emankorregiak direnez, gehiegizko elikagaiak ekoiztu. Soberakinak biltegitatu, “Elikagai mendiak” Ekoizpen mailak merkatuetara egokitu
<b>1992. urtea</b>	Ekoizleei laguntzak Prezioak murriztu Zuzeneko ordainketak ematen hasi Ingurumenarekin begirunetsuak izatea bultzatu
<b>2003.urtea</b>	Nekazarien errentak erregulatu Baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lurraz arduratu</li> <li>• Ingurumen arauak bete</li> <li>• Abereen ongizate</li> <li>• Elikagaien segurtasuna</li> </ul>
<b>2013.urtea</b>	Lehia indartu Nekazaritza jasangarria bultzatu Berrikuntza bultzatu Lanpostuak bermatu Baserri zonetako hazkundera handitzea

Iturria:(European Commission & Directorate-General Communication, 2014).

Lehen esan bezala, Nekazaritza ministerioa, autonomi erkidegoak, nekazari zein ingurumeneko antolakuntzak NPbaren erreforma berriaren negoziazioak martxan jartzen ari dira azken urteetan ikusi diren beharrei erantzuteko. Hala nola, nekazaritza ustiapen errentagarriagoa lortzeko eta elikadura segurtasuna hobetzeko. Bestek beste, landa eremuan despopulatzen ari diren arazoak ere aztertzeaz gain, nekazari gazteak erakartzeko neurriak ere aztertuko dituzte. Hala ere, politika berria 2020 urtetik 2023.ra atzeratuko dela aurreikusi dute (Vidal Mate, 2019).

Intentzioa ona izan arren, Europar batasunaren laborantzak eta sektorearen aniztasunak zeregin hau zailtzen dute. Gainera, erreformaren edukia aldatuko duten hainbat faktore sartzen dira agertoki berri honetan. Seguruena politika honen aurrekontuaren murrizpena ekarriko du. Ziurgabetasun faktore horiek zalantzarik gabe hurrengoak dira; Brexitaren gaineko negoziaketak jolasten duen papera eta Europako politika agendan dauden lehentasun berriak. Hala nola, klima aldaketa, migrazioak edo nazio segurtasunak NPbaren paper ekologikoagoa zein baliabide natural gehiago babestearen aldeko eztabaidak. (Pwc, 2019)

Haratago, 2021-2027.urte bitarteko aurreikuspenak egiten ari dira; Erresuma batuaren irteera Europar Batasunetik hainbat ondorio ekartzen dio politikari. Hain zuzen ere, “Postbrexit” aldia izendatu dute. Zifrei begiratu ezkerreko %5eko murrizketa jasango du zuzenki Espainiari eragingo dio. Batez ere, zuzeneko ordainketen %3,5eko murrizketa ekarriko baitu eta baserrien garapenaren %14,5ekoa besterik ez da izango. (Lamo de Espinosa, 2018)



Esan bezala politika honek nekazaritza lehiakorra eta iraunkorra bultzatzen du. Horregatik, Europako fondoetatik zuzendurik hiru dimentsio ditu; merkatu orientazioan oinarrituta nekazarien errentarako laguntzak ematen dituzte eta ingurumenaren iraunkortasunarekin loturik ere. Halaber, osasuna, animalien ongizatea eta elikagaien segurtasuna baimentzen du. Bigarrenenik, merkatu neurriei laguntzeko nekazaritza merkatuak jasaten dituen kanpo faktoreak orekatzeko baldintza meteorologiakoak edo prezioen hegazkortasuna kontrolatzen ere laguntzen du. Izan ere, dakigunez sektore hau beste sektoreek baino menpekotasun altuagoa du denbora eta klimarekiko. Azkenik, baserrien garapenerako programak, nazio programak eta batzuetan eskualdekoak eskaintzen ditu: batez ere, garapenaren beharrei eta baserri zona espezifikoaren erronkei aurre egiteko. Neurri horiek, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) kontura eta Nekazaritza eta Baserri Garapenerako Europako Funtsaren (FEADER) kontura finantzatzen dira. (Guipuzkoako foru aldundia, 2017)

Finantzazioa aldetik, lehenetsitako aurrekontu maximoa esleitzen da zazpi urteko aldi batekoa. Honekin gastuen muga bermatzen da eta aldi berean nekazariak jasoko duten zenbatekoa ezagutu daiteke. Lehen aipatutako bi dimentsioak, nekazarien errentarentzako laguntza eta merkatu neurrien laguntzak, EBaren aurrekontuekin bakarrik finantzatzen dira. Hala ere, baserrien garapenaren laguntzak hainbat urteetako programetan oinarritzen da eta Estatu Kideen aldi baterako finantzaketaz ere baliatu daiteke. (European Commission & Directorate-General Communication, 2014)

Maila ekonomikoari dagokionez, Francisco Capellak (Capella, 2000) esaten duenaren arabera, lehen sektoreak sortzen duen ondasuna politikoengan eta hauek egiten duten propaganda demagogikoaren gain eragin handia du. Bada, Europar Batasunaren aurrekontuaren erdia lehen sektoreari doa zuzenduta diru laguntza moduan. Honen arrazoia, sektore bakarrenetakoa baita EBren finantzazioaz baliatzen dena. Zeren, bestelako politika publikoen gehiengoa Estatu Kideen finantzaketaz baliatzen baita. (European Commission & Directorate-General Communication, 2014)

Europar Batasuneko 2018ko aurrekontua 156.100 milioi euro konpromiso kredituez osaturik dago. Zuzeneko ordainketei %26 dagokio (40.100 milioi euro) eta %9,1 baserrien garapentzako (14.300 milioi euro). Hain zuzen ere, NPBak EBko %37,6 da (58.100 milioi euro).

Nekazaritzako gastuak Europar Batasunaren aurrekontuan duen ehuneko urtero pixkanaka beherantz doa. NPBak 80.hamarkadan EBren %66 bazen 2014-2020.urteetan %37,8 besterik ez da hasi. 1992.urteetik (lehen erreforma), nekazaritza gastuak termino errealetan mantendu egin dira 1996 eta 1997 izan ezik (“behi zoroak” krisia hasi baitzen eta hiru Estatu kide berriko atxikimendua gertatu baitzen). Ondorioz, NPBren aurrekontuaren kostua EBaren nazional errenta gordinarengan txikitu egin da. 1990ean %0,54tik 2020ko aurreikuspenen arabera %0,34 izango da. Espainiaren kasuan, (EBaren %11,4), bigarren postuan aurkitzen da Frantziaren atzetik (EBaren %17,5). Lehenengo dimentsiorako 5.619 milioi euroko finantzazioa du; %90,1 (5.063 milioi euro) zuzeneko ordainketei dagokio. Gainontzekoa merkatu neurrien laguntzetako da eta 702,7 milioi euro baserrien garapenerako da. (Massot, 2019a)


Hurrengo taula eta grafikoan Europar Batasunean NPBak eduki duen eboluzioa azter daiteke.

**Taula 13: Europar Batasuneko NPB marko finantzarioa M€ (2014-2020)**

EB (28)	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
<b>KONPROMISO KREDITUAK</b>	134.318	135.328	136.050	137.100	137.866	139.078	140.242	959.988
<b>FEAGA</b>	41.585	40.989	40.421	39.837	39.079	38.335	37.605	277.851
<b>ZUZENeko ORDAINKETAK</b>	39.715	39.139	38.580	38.007	37.265	36.566	35.881	265.153
<b>MERKATU GASTUAK</b>	2.503	2.471	2.449	2.427	2.399	2.342	2.286	16.879
<b>BASERRI GARAPENA (FEADER)</b>	12.865	12.613	12.366	12.124	11.887	11.654	11.426	84.936
<b>NPB GUZTIRA</b>	54.450	53.602	52.787	51.961	50.966	49.989	49.031	362.787

Iturria:(Massot, 2019b)

**Grafikoa 17: NPB eboluzioa ehunekotan**



Iturria:(Massot, 2019b)

Euskadiko datuen arabera, 2017.urtean, 4.966 abeltzain eta nekazarik 15 milioi euroko zuzeneko ordainketaz baliatuko ziren. Gainera, 347 abeltzain 1,7 milioi euro jasoko zituzten esne behia ekoizteko. Zehazki, oinarrizko ordainketak 3.380 nekazari aktibo onuradunentzako dagokie; hain zuzen ere, 9,4 milioi euro baino gehiago. “Greening” edo ordainketa berdea klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza jardueretarako 3.351 onuradunentzako 4,8 milioi euro jaso zuten. Bestalde, nekazaritza ustiategi txikietarako erregimen erraztuarentzat 833.000 euro izan ziren 1.586 onuradunentzako. Horrez gain, lurralde historiko bakoitzean foru diputazioak dira laguntza hauen arduradunak. 2017ko onuradunen artean 2.267 beraien ustiapenak Gipuzkoan dituzte, 1.481 Bizkaian eta 1.218 Araban izanik. (Guipuzkoako foru aldundia, 2017)

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken datuen arabera (2019urtean), NPbaren laguntza 46,26 milioi eurokoa izango da. Gainera, laguntza hori Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) kontura Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailearen bitartez ordainduko dira. Hala ere, Eusko Jaurlaritza aspalditik ari da

erreklamatzeko Europako agintarien aurrean laguntza horiek Euskadiko errealitatera ahalik eta gehien egokitu daitezkeen. Horrez gain, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planarekin bat etor daitezkeen ere eskatzen du. Oinarrizko ordainketei 22 milioi euro dagokie, horietatik, ordainketa berdea 11,50 milioi euro izango da, bestalde, nekazaritza ustiategi txikietarako erregimen erraztuarentzat 1,90 milioi euro eta Laguntza Elkartuak (nekazariak eta abeltzainak), 10,10 milioi euro izango dira. (Eusko Jaurlaritza, 2019)

Politika honen beste ezaugarrietako bat Europar batasunak ekoizleei emandako laguntzak dira. Zehazki kalitatezko etiketak dira; honela, ekoizleei laguntzeaz gain, ospe ona, errentagarritasuna eta lehia mantentzen dute. Tresna honen gakoa elikagai horiek babesteaz gain, izendapena ematen die. Hala nola, Jatorrizko Deitura Babestua (JDB), Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) eta Tradiziozko Berezitasun Bermatua (TBB) dira. Kalitatea ziurtatutako produktuen ekoizpenak, aniztasunari, garapenari, baserri zonetako hazkunderari, ezaguerak babestu eta enplegu lokalari laguntzen baitio. (Comision Europea, 2016)

### Irudia 1: Kalitatezko etiketak



Iturria: Comision Europea

Gaur egun, Europako Batzordeak atxikitutako datuen arabera, Espainian 196 produktu daude erregistraturik; horietatik, 102 (JDB), 90 (AGB) eta 4 (TBB). (Comision Europea, 2019)

Gainera, Euskadi, bereziki, bere gastronomia eta kalitatezko produktuengatik bereizgarria da. Haratago, EAEko kalitatezko produktuak "K" ikur bidez adierazten dira. Hain zuzen ere, Eusko Label markarenak, Hazi erakundearen kontrolpean. Eusko label ezaugarrietako produktuak 16 dira, Adierazpen Geografiko Babestukoak bi eta deitura babestuari dagokionez sei dira. (HAZI. Landa, 2001)

Politika honen zati positiboak ikusi arren, nabarmendu beharra dago hainbat hutsegite dituela. Zehazki burokraziaren gehiegikeriarengatik hainbat oztoporen aurrean aurkitzen baitira. Horregatik, bestelako politika berrien adostasunak edo planteamenduak aurkitzen ditugu. Hala nola, [ipes food](#) dokumentuak argitaratzen dituen zailtasunak.

Txostenak Europar Batasuneko "Elikadura Politika Bateratua"ren alde egiten du. Zeren, iraunkortasuneko politika baten alde egiteko elikadura sistema erreferentzia moduan hartzen du. Horrez gain, elikadura ekoizpena, prozesamendua, banaketa eta kontsumoan eragiten duten hainbat politika sektorial hartzen ditu kontuan. Gainera, beste politiketan lerrokatu gabeko helburuak azpimarratzen ditu sinergia berriak





sortzeko asmoarekin. Horietako batzuk hurrengoak dira: presio talde boteretsuak sortu nahi ditu; erabaki hartze prozesuei bultzada ematea; aktore berriak gehitzeko asmoa; politikako erak demokratagoak eraikitzen saiatuko dira eta amaitzeko, lehentasun eta interes berriak sortuko dituzte. Honela, Nekazaritza Politika Bateratuak lortu ezin duena politika honen bitartez lortuko da. (Schutter, 2019)

### 3.1.2.Faktore ekonomikoak

Ekonomiaren adierazle nagusiak aztertzen dira puntu honetan. Hasiera batean lehen sektorearen biografia txikia egin arren, atal honetan gaur egungo egoera azaltzeaz gain, nekazariak ekonomikoki dituzten arazoak azalduko dira.


Azken datuen arabera, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzak Espainiaren %1,86ko BPG a suposatzen du. Hain zuzen ere, 274.712 milioi euro da; gainera, 816.000 lanpostu sortzen ditu. Nekazaritza, Arrantza, Elikagai eta Ingurumeneko Ministerioak (Manapa) dioenez, azken lau urteetan gorakada nabaritzen da; azken urteetako datuen arabera BPG %4,7 iritsi den arte. (Ministerio de agricultura pesca y alimentación, 2019)

Horregatik, nekazaritza, sektore estrategikoa dela esan daiteke; balio ekonomiko, soziala, lurraldekoa eta ingurumena ematen dituelako. Zeren, 2017.urtean, zuzenki 749 milioi pertsoneri lana emateaz gain, ekoizpen begetalean 25.300 M€ sortu zituen eta esportazioetan 17.430M€. Honela, Espainiako merkataritza balantza 6.555M€ hobetzen lagundu du. (Pwc, 2019)

Hala ere, nekazaritzaren garrantzi ekonomikoa bere jardueratik harantz doa. Izan ere, sektorea beste jarduera mota batzuekin erlazionaturik dago. Hala nola, elikagaien industria, elikagaien transformazioa eta beste motako industriak zelairako beharrezko erremintez hornitzeko. Horregatik, nazio kontabilitateak biltzen duena baino garrantzi ekonomiko handiagoa du. Batez ere, zuzenki eta zeharka ondasunak eta lanpostuak sortzen baititu. Honenbestez, beste jarduerak eta sektoreak batu ezker nekazaritzako elikagaien industria bezala ezaguna dena, herrialdeko lehen industria bihurtzen da. Hori dela eta, turismo sektorearen aurretik kokatzen da %10,6ko BPGa izanik eta %14,2ko lanpostuak sortuz.(Pwc, 2019)

Hurrengo grafikoan adierazten den moduan, banaketa lanetan ibiltzen den sektorea da ekonomikoki nabarmenena %31 BEG eta %41eko lanpostuak sortzen baititu. Jarraian, nekazaritza sektorea %25eko BEG eta %27ko lanpostuak sortzen ditu; elikagaien industria %25eko BEG eta %18 lanpostuak sortzen ditu; garraio industria %8ko BEG eta %12ko lanpostuak sortzen ditu eta amaitzeko, sektorea hornitzeaz arduratzen den industria %11ko BEG eta %2ko lanpostuak sortzen ditu.

**Grafikoa 18: Garrantzi ekonomiko eta soziala elikagaien sisteman**



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika

Esan beharra dago ere nekazaritza tradizionalki herriaren defizit komertziala murrizten laguntzen duela. Aitzitik, azken 10 urteetan (2007-2017) %16 murriztu du 2017.urtean %24 izanik.

Hau horrela izan arren, nekazari gazteek arazo askoen aurrean aurkitzen dira. Handienetako bat lurraren sarbidea da. Honekin loturik kredituak lortzeko zailtasunak zein nekazaritzako jarduerako beharrezko baliabideak lortzerako garaian. Euskadiko Landa garapenerako programa (PDR) 2015-2020, arazo honi aurre egiteko hainbat inbertsio eta programa jarri ditu martxan. Hala nola, Sendotu programaren bitartez 11 milioi euroko diru laguntza zuzkitu ditu. Are gehiago, 2009.urtean, lur bankuak sortu zituzten Araban Aldalur sozietatearen izenpean eta Bizkaian zein Gipuzkoan lur fondoan moduan. Hauen helburua erabili gabe dauden lurren jabeek bere lursaila borondatez erakundeei (udaletxe zein diputazioei) ustean datza, horrela, nekazari izan nahi dutenei lursail hauek errentan utzi dezakete. (Guipuzkoako foru aldundia, 2017)

### 3.1.3.Faktore sozial-kulturala

Atal honetan, sozialki izan duen inpaktu handiena laburki azalduko da. Nekazaritzari ondorio nagusienak ekarri dituen faktorea denez, aurrerago beste atal nagusi bat eskainiko zaio, xehez arazo bakoitza aztertuz. Hala ere, faktore honen barnean hainbat aspektu eduki behar dira kontuan. Hain zuzen ere, ohiturak, erlijioak, hezkuntzak zein faktore demografikoek ekarritako ondorioak. Horiek era labur batean azalduko dira.

Landa eremuan bizitzeak zelaiaren eta nekazaritzaren ohituretan trebatzen zuen. Baina bilakaeran azaldu den moduan industrializazioak eragin handia izan zuen. Batik bat, jendea lurra utzi eta hirietara bizitzera joan baitziren. Lehen gehienek landa eremutan bizi edo familia edo lagunengatik alor horrekin zerikusia zuten aktibitateekin harremana bazuten gaur egun aldiz, ohitura hau galdu da. Izan ere, munduko populazioaren %55 hiri zonetan bizi baita; hala nola, 2050 urterako zenbateko hori %68 iristea aurreikusten da. Espainian, bereziki, aldaketa nabarmena jasan du; zehazki 60.hamarkadan Espainiaren erdia (%56) hiri zonetan bizi baitziren, azken urteetan zenbateko hori %80 pasatu da. Fenomeno horrek herrialdearen zati handia



despopulatu du. Honenbestez, herri txiki askoren desagertzea ekarri du. Honi landa eremuko jendearen zahartze adinaren arazoa gehitu behar zaio. Izan ere, landa eremua uzten dutenen artean gehienak gazteak eta emakumeak baitziren. Honela, jaiotze tasaren jaitsiera eta populazioaren zahartzea ekarri zuen. Horregatik, urbanizazioaren eraginarengatik gaur egungo gazteek ez dute nekazaritza zein elikagai edo ekoizpenaren prozeduran interesik. Gainera, hirietan bizitzeak aldaketa sozialak ekartzeaz gain, ohitura berriak (oinordetzaren desagertzea, seme-alaben berdintasuna, auzolanaren desagertzea) eta kontsumo lehentasun berriak ekarri ditu. (Pwc, 2019)

Hori dela eta, hurrengo atalean familia eredu berria, gazteen garrantzia eta honekin loturik heziketa eta ekintzaileen eredu berria azalduko da.

Familia ereduari buruz hitz egiterakoan aldaketa sakona da. Landa mundua nekazaritzako aktibitateei zuzendurik zegoen. Baina industrializazioaren ondoren familien beharrei egokitzeko gizonezkoek nekazaritza partziala egitearekin batera fabriketako lanarekin konbinatzen hasi ziren. Emakumeen papera ere zeharo aldatu zen. Lehen etxeko andre moduan ezaguna zena, gaur egun, lan munduan sarturik daude gehienak. Tradiziozko eredu hori ikusiz, gazteek bestelako etorkizun baten bila hasi ziren. Esate baterako, industria edo bertako zerbitzuetan aurrera ateratzen baimentzen dien lan postuak bilatzen. (Pérez & Vargas, 1995)

Nabarmendu behar den bestelako aspektua heziketa da. Lehen gazteek oinordetza moduan nekazari izatera beharturik ikusten ziren. Gaur egun aldiz, heziketan murgildurik bestelako etorkizun baten bila joaten dira gustuko lanpostu baten bila. Baina tradizioa hau galtzen den heinean geroz eta jende gutxiago dago nekazaritzan erreleboa hartzeko. Horregatik, sektore honetan gazteek duten garrantzia nabarmendu behar da; beraiek gabe ez baitago etorkizunik.


COAG (Nekazaritza eta abeltzaintzako organizazioa)ren arabera, Espainia, 2020-2030 urte bitartean nekazarien 10tik 6ek erretiratze edadean egongo direla dio (202.000 aktibo). Honenbestez, urtero 20.000 nekazari berri beharko genituzke errelebo iraunkorra izateko. Gaur egun, eredu sozial eta nekazaritza profesional bideragarria ziurtatzeko zifra ofizialei begiratu ezker, urtero 8.500 nekazari berri besterik ez dira eta hau ez da nahikoa. (Coag, 2019b)

Arazo honen aurrean, hainbat plan martxan jartzen ari dira lehen sektorea bizirik irauteko. Euskadiri dagokionez, Gaztenek nekazari gazteen plana martxan jarri dute. Plan honen helburuetako batzuk ekonomikoki errentagarriak izateaz gain, nekazaritzaren lana balioztatzea da. (Haig, 2015)

Erroka hauei aurre egiteko gazteek ekintzaile eredura jo beharko dute maila enpresari moduan zein gaitasun politiko zein sozialak garatuz. Bereziki, emakumeen papera ahalduntzen; tradizionalki nekazaritza familiarren motorra baitzen.

Emakundek argitaratutako datuen arabera, emaitzak oraindik nahikoak izan ez arren, positiboa da. Bereziki, emakumeen aldetik gero eta emakume gehiagok erabakitzen baitute sektore honetan lan egiteak. Hurrengo grafikoan ikusten da azken urteetan izan duen bilakaera; dagoeneko landunen %27 emakumeei dagokio.

### Grafikoa 19: Pertsona landunak sexuaren arabera EAE (milakotan)



Iturria: Emakunde

2015.urtean emandako hazkuntza, bereziki, Emakume Nekazarien Estatutuaren bitartez eman zen; Euskadiko landa inguruko eta lehen sektoreko emakumeen lan egoera arautu izan baitzen; lehen Autonomia Erkidegoa izanik. (Eusko Jaurlaritz, 2016)

Faktore honi lehen aipatu bezala, arazoari aurre egiteko ekintzaile eredua azaldu da. Gaur egungo heziketan geroz eta indar handiago hartu arren oraindik ez da gazteen burutan sartzen, are gutxiago, lehen sektorean. Bizi baldintzak eta, bereziki, nekazaritza trebakuntza emankorrak baimentzeko formakuntza faktore erabakigarrietako bat da. Izan ere, informazio eta heziketaren ezagutza eskasak produktibitatea mugatzeaz gain, trebetasunak garatzea oztokatzen du. Gainera, ekintzaileen ekimena ere oztopa dezake. Bestalde, hezkuntzari, merkatuari eta finantza baliabideen beharrei erantzuteko, NPB ulertzeko, lanpostu berdeak eta lurra lortzeko beharrezkoa da.

Horregatik, Euskadin, landa eremuko ekintzaile eredua bultzatzeko asmoz, berrikuntzako eredu gisa Euskadiko Landa garapeneko programa (PDR) 2015-2020 aurkeztu zen; Geroa, Gazteneek zein osteguneko ekintzaile programen bitartez. Hori dela eta, heziketa eskaintza zabala du; hala nola, hainbat nekazari eskolekin kontaktzen du. Haziren eskutik sektoreko hainbat eragileekin eskulanean Artzain eskola intentsibotik hasten da eta etengabeko heziketa ere eskaintzen du. Modu berean, araututako heziketaz ere kontaktzen du, hala nola, 3 nekazal eskolak nekazaritza-abeltzaintza, basogintza, natur ingurunearen kudeaketa, lorezaintza eta loregintza arloetan espezializatuta dagoen lanbide heziketako ikastetxeak dira. (Arkaute Nekazal Institutua, Derio Nekazal Eskola, Fraisoro Nekazal Eskola) (Enba, 2019).

Hau horrela izan arren, nekazari gehienak ez dute nekazaritzan heziketarik eta familiako ohitura zein praktikei garrantzi gehiago ematen diote. 2007.urtearekin (azken datu erabilgarria) konparatu ezker (2016.urtea), Euskal herrian oraindik esperientzia praktikoak %85eko garrantzia du; heziketari balio gutxi emanez %1,20 eta %2,90.



**Taula 14: Ustiapeneko nagusiak egindako ikasketak**

	Guztira	Esperientzia praktikoa	Nekazaritza unibertsitate heziketa	Nekazaritza FP heziketa	Bestelako heziketa
<b>2016 ES</b>	945.024	78%	1,90%	2,60%	17,10%
<b>2007 ES</b>	1.043.906	87%	1,10%	2,10%	10,10%
<b>2016 EH</b>	15.564	85%	1,20%	2,90%	10,40%
<b>2007 EH</b>	21.695	94%	0,50%	2,40%	1,30%

Iturria: Eustat

Zentzu honetan, familia da gakoa, izan ere, ustiapen gehienak berauenak baitira eta honela nekazaritza lanbidearen sarbideren monopolioa mantentzen dute. Horregatik, heziketan funtsezko ardatz bezala enpresari kultura eta ekintzaile ereduak sustatu behar dira. Hau da, ekintzaile eta berrikuntza aldeko inguruak sortu eta jada aipatutako zailtasunak mugatzen saiatu. (Ramos & Izquierdo, 2018)

Ondorio gisa, joera soziokulturalak hurrengo mendeetan herrialdearen bizitzeko modua aldatuko dute. Hala nola, behar berriei eta negozio aukera zein lanpostu berriak sortuko ditu. Gaur egungo joera horietako batzuk bizitza osasuntsuagoa, kontzientzia sozial eta ekologikoa, indibidualismoaren hazkuntza eta kultura zein aisialdiko jardueretan interes handiagoa ekarri du. (Pega, 2017)

Hala ere, ikusi den moduan bost arazo nagusiren aurrean aurkitzen dira gazteak. Aurkitzen diren aurreneko erronka, jakintza, informazio eta formakuntzaren sarreraren urritasuna da. Jarraian, lurren sarbidea lortzeko arazo urriak eta finantza zerbitzuen sarrera desegokia. Azkenik, lanpostu berdeak zein merkatuko sarbidean aurkitzen diren oztopoak. Hori dela eta, nekazari hauei laguntzeko politika berrien agerpenen beharrean dago. Hainbat ekimen martxan egon arren, gazteei eman beharreko laguntza nabarmendu beharko litzateke nekazaritzaren etorkizuna eta beharrei erantzuna eman ahal izateko.

### 3.1.4. Faktore teknologikoak

Urteetan zehar teknologiak izan duen garapena ikusirik, atal honetan, aurrerapen horiek ekarri dituzten ondorioak aztertuko dira; bereziki, nekazaritzan izan duen inpaktua handia izan baita.

Gaur egungo erreminta teknologiko berriak; oro har, blockchain, big data, adimen artifiziala, robotika, sentsoreak, aplikazioak, software espezializatuak, internet etab. baliabideetan eta ekoizpen tekniken gain transformazio sakona jasan dute. Lehen esan bezala, sektore ekonomiko guztiei eragiten die, baina nekazaritzaren kasuan bere inpaktua sakona izan da. Batez ere, elikagaien ekoizpena eta baliozko katearen funtzionamendua erabat aldatu baitu. (Opazo, 2016)

Transformazioa honek nekazaritzako lanen mekanizazioa, ongarrien erabilera, osasun begetaleko produktuak eta produktibitatea hobetzea ahalbidetu du. (Opazo, 2016)

Europako batzordearen komunikazioa “Nekazari eta elikagaien etorkizuna”ren arabera (Comisión Europea, 2017), lau erronka jarri ditu 2020ko Europako nekazaritzako. Nekazaritza adimentsua izatea, balio erantsia handitzea, ingurumena eta aldaketa klimatikoaren ardura edukitzea eta azkenik, baserri zonetako sozioekonomikoa indartzea. Hain zuzen ere, garapen teknologikoak eta digitalizazioak, baliabideen



eraginkortasunean inpaktua baitu. Besteak beste, lurraren osasuna eta nekazaritzako kostuak murrizten baitira. Baina teknologia berri hauen eskuragarritasuna zaila denez, Europa Batasunak nekazaritzako aldaketaren beharra ikusten du. Horretarako, nekazaritza ezaguera, ikerketa eta garapena eta ustiapen txiki ertainak bultzatu nahi ditu.

Bereziki, berrikuntzari dagokionez, hurrengo taulan ikusi dezakegu azken urte erabilgarrian izan duen gastua. 2016.urteari erreferentzia eginez, aurreko urtearekiko %14,20ko hazkuntza jasan du; 68.000 milioi eurotara iritziz. Gainera, elikagai katean egindako inbertsioa gehitu ezker, zifra hori 274.000 milioi eurotara handitzen da. Bestalde, inbertsio horretan, osasun begetaleko produktuak, izurrien kontrako laborantzak edo gaixotasunak babesteko, ongari zein lurzoruen produktibitatea hobetzeko eta genetikako teknika berrietan inbertitu dela ikus daiteke. (Ministerio de Agricultura, Pesca & Alimentación, 2018)

**Taula 15: I+G**

	<b>2016</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako enpresa	68.691	60.148	58.395
Elikagai industria	205.986	181.322	184.860
Guztira	274.677	241.470	243.255

Iturria: Eurostat

Hala ere, esan bezala eskuragarritasuna zaila da; kezkarria baita Espainian I+G dagokion portaera negatiboa azken urteetan. Europako nekazaritza elikagaien I+G 2006-2015 urteetan %37ko hazkuntza izan arren, epe berdinean %17 batean murriztu baita. Jaitsiera horrek nekazaritza katea sortzen duten agente denei eragiten die. Batik bat, nekazariak beharrezko erreminta zein zaintzeko eta ekoizpeneko maila onenak mantentzeko osasun begetaleko produktuak hornitzeaz arduratzen diren enpresak. (Pwc, 2019)

Estatuko Estatistika Institutuak (INE) 2016.urtean eginiko enpresen berrikuntza buruzko galdetegian, "EIN" enpresen finantzaketa publikoari buruzko informazioa jasotzen du (teknologikoki berritzaileak 2014-2016 urte bitartean, berrikuntza teknologikoak bidean daudenak edo arrakasta eduki ez dutenak). Nekazaritza sektoreari dagozkion enpresek %25,5 dira, industria sektorearen atzetik (%30) baina zerbitzu sektorearen gaineratik, ez baitu %22 gaintzen. (Ministerio de Agricultura, Pesca & Alimentación, 2018)

Balio absolutuei buruz, enpresen %5,4 besterik ez dira berritzaileak. Horregatik, sektore honetako berrikuntza gastua (458 enpresa aurreko urtean baino 77 gehiago) 93 milioi eurokoa da. Hala ere, gastua %16,6ko hazkuntza izan du; hiru aldiz handiagoa beste sektoreekin konparatu ezker. Gainera, lehen hazkuntza da hiru urteen jaitsieraren ondoren. (Ministerio de Agricultura, Pesca & Alimentación, 2018)

Euskadiri dagokionez, Arantxa Tapiak, laguntza sorta iragarri du Euskadiko landa gunetan eta itsasertzeko gunetan bizi diren pertsonen bizi kalitatea bermatzeko. Nekazaritza, arrantza eta elikagai sektoreak antolatzekeo prozesuetan berrikuntzak sendotzeko eta baita eremu horretan ikerketak eta garapenak egin eta landa gunetan inbertsioak sustatzeko ere. Laguntza horiek, zehazki Berriker programaren laguntzak dira; nekazaritza, elikagai eta arrantza sektoreen zerbitzurako eginiko ikerketa eta



berrikuntza proiektuak dira. 2015eko deialdian zerbitzu eta prozesuen berrikuntza proiektuetarako 5.750.000 euro bideratu ziren. Bestalde, lehen sektoreko eta elikagai sektoreko I+G alorrerako laguntzak (1,35 milioi) eta landa gune eta itsasertzeko guneen modernizaziorako laguntzak (3,3 milioi) izan ziren.

Datu ekonomikoen bilakaera ikusi ondoren, nabarmendu beharra dago teknologian inbertitzearen garrantzia handia da. Izan ere, hainbat abantaila ekartzen dizkio sektoreari. Bereziki, epe motzeko, abantailak aurrerapen teknologikoek produktibitatea handitzeaz gain, kostuak txikituko ditu eta nekazarien errentagarritasuna hobetuko dute. Aldiz, epe luzera, aurrerapenen bidea izango da bakarria elikagaien eskaria asetzeko eta ingurumenaren inpaktua txikiagotzeko. (Pwc, 2019)

Esan den moduan, biztanleriaren hazkuntza eta hauen beharrei erantzuna eman ahal izateko beharrezkoa da. 2025.urteko aurreikuspenak ikusirik, munduko populazioa 8.300 milioietara iritsiko da, eta baliabideen prezio hazkorrekin produktibitatea hobetzearen garrantzia altua da. (Sánchez, 2013)

Hori dela medio, hurrengo paragrafoetan teknologiak denboraren poderioz izan duen bilakaera ikusiko dugu. Izan ere, lehengo tresneria eta oraingoa konparatu ezker alde sakona da. Eraldaketa honen hasiera, nekazaritzako lanak mekanizatzearekin, ongarrien sarrera, eta osasun begetaleko produktuekin etorri zen. Hala nola, gaur egungo robot, sentsoze zein genetikako teknika berriei ordezkatu da.

Digitalizazio prozesuak, aurrerakuntza nabarmenak ekarri ditu, bereziki, eraginkortasunari dagokionez; hain zuzen ere: lurzorua prestaketa, ereitea, izurri zein belar txarren kudeaketa eta uztaren bilketak ekarri baititu. Horrekin batera, eskualdeko berezitasunei egokitutako teknologia sofistikuak abantaila gehiago ekarri ditu. Hala nola, teknologien informazioak eta ustiapenen automatizazioa malguagoak dira; era berean, beraien artean konektaturik egotea baimentzen du. Gaur egun, ekoizpena denbora errealean eraman dezaten ustiapen asko sentsoze zein kamerekin kontaktzen dute. Gainera, kanpoko bestelako informazioarekin konbinatu ezker, klimatologia, izurri bilaketa, gaixotasunak, eskarien aurreikuspenak zein prezioen informazioa jasotzeko datu base batekin kontaktzen dute. Beraz, kudeaketa eta datu base desberdinetako integrazioa, datozen urteetan, inpaktu handia izango duen berrikuntza da. Honekin, ekoizpen zein kostuen erabaki optimoak hartzeko zehatzagoak, eraginkorragoak eta efizienteagoak izango dira. Bestalde, haririk gabeko teknologiak eta soluzio telematikoak, nekazaritzako makinarien arteko datu transmisio sinplifikatzeaz gain, ekoizpeneko prozesu jarraitua eta berehalakoa baimentzen du. Honela, aurreko teknologia berriei laborantza eta ustiapeneko teknika berriei aurkitzen gara. (Pwc, 2019)

Teknologia informazio berriez gain, iraultza biologikoa dugu; genetikarekin zerikusia du. Bioteknologiari ezker landare eta bere laborantzako material genetikoa aukeratu eta manipulatuaz gain, ehun edo milaka urte beharko genituzkeen prozesu naturalak bizkortzen ditu. Eremu horretan, beste espezie batzuetako geneak sartu eta ekoiztean genetikoki aldatutako laborantzak (OMG) aurkitzen ditugu. Hainbat ikerketen arabera, laborantza hauen errendimendu altuaren ondorioz, laborantzak errentagarritasun handiagoa dute. Hala ere, onurak izan arren, kontsumitzaileek honekiko duten jarrera eta Europako erregulazio zorrotzaren ondorioz, teknologia honen inplementazioa



Europar Batasunean oso urria da. Ekoizpenari dagokionez, Europako araudiak mota bakarreko laborantza baimentzen du, hain zuzen ere, MON810 artoa, Espainian %95eko ekoizpena duena. (Pwc, 2019)

Nekazaritza teknikari dagokionez, zehaztasun nekazaritza edo nekazaritza 4.0 moduan ezaguna den eredu dugu; hasierako atalean (2.1.4.Nekazaritza ekoizpen ereduak) aipatzen den bezala, baliabideen optimizazioa bilatzen datza. Existitzen diren berrikuntza eta teknologien bidez; besteak beste, GPS-a, drone, sentsoze infragorriak, HD kamerak edo radarren kontrolen bitartez. Teknologi hauei ezker, laborantzaren bizi ziklo osoan zehar hazitik hasiz uztaraino ikuskatu eta informazioa bilatu daitezke. Ez hori bakarrik, behatu eta datu bolumen handiei ezker landareen osasuna eta garapena monitorizazioaz gain, landare bakoitzaren beharrak ezagutzera eramán gaitzake. (Pwc, 2019)

Faktore honen konklusio gisa, teknologiak geroz eta abantaila gehiago eskaini arren, seguruenik nekazarien erronka handiena teknologia hauen eskuragarritasuna izango da. Horretarako, finantzazioa beharrezkoa izango da. Hala ere, esan beharra dago, ekonomikoki teknologia batzuk eskuratzeko zailtasunak izan arren, geroz eta eskuragarriagoak izango dira eta gainera, errazago maneiatzeko. Halaber, aurreko paragrafoetan aipatutako berrikuntzak landara iriz daitezzen sektoreak geroz eta langile kualifikatu gehiago txertatu beharko dira. Besteen artean, aurrerapen teknologikoekin lotutako transformazioa bideratzeko gai izan beharko dira, ahalmen tekniko aurreratua izan beharko dute, sistema emankor berritzaileak ezartzen jakin beharko dute eta kudeatzeko gai izan beharko dira. Horregatik, etorkizuneko nekazaritzak diziplina anitzeko profesionalak izan beharko dute. Batez ere, makinaria erabiltzen, informatika, robotika, klimatologia, kimika zein biologiako ezagutzak izan beharko dituzte. (Pwc, 2019)

### 3.1.5.Faktore ekologikoak

Azkeneko eragile honetan, ingurumena eta bere iraunkortasunarekin zerikusia duten aldagaiak barneratuko dira; zeren, nekazaritzak ingurumenarekin lotura estua baitu. Oro har, baliabideen erabilera (ura, lurzorua eta energia) intentsiboan sektorea izateagatik eta hauengan eragin dezakeelako.

Gaur egun, aldaketa klimatikoa, ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurumenaren aldetik, gizakien erronka handienetakoa da. Zientifikoki frogatu da giza jarduerengatik atmosferan kontzentratutako gas berotegiengatik luraren tenperatura hazten hasi da. (Delgado Pérez, 2017) Horregatik, aldaketa klimatikoa zuzenki sektore honekin erlacionaturik dago. Kontuan izan, laborantzak; lurra, ura, eguzkia eta bero egokia behar dute hazteko. Alde horretatik, tenperatu zein euri prezipitazioen portaeren aldaketarekin zerikusia du. Baita ere, CO<sub>2</sub> atmosferikoaren kontzentrazioaren gehikuntzarekin; besteak beste, laborantzaren garapenari eragiten baitio era adierazgarrian. Bereziki, aldaketa klimatikoaren alderdi batzuk; hala nola, urtarokotasunaren hazkundera eta tenperaturaren gehikuntzak onuragarriak izan daitezke. Edozein modutan, uraren erabilgarritasunean, ekoizpenaren kalitatean, bolumenean eta egonkortasunean inpaktu negatiboak ekar dezake. (Veroz & Carbonell, 2010)

Europar Batasunean, urtero, 970 milioi tona lurzoru galtzeaz gain, EBeko %11 lurzoruen higaduraz eraginda dago. Bio-dibertsitatean izandako galerak ingurumenaren zerbitzu asko





arriskuan jartzen ditu. Adibidez: elikadura laborantzako polinizazioak etorkizuneko uzta mehatxatzen du; gainera, munduko BPGaren %3 inguruan kostatzen du. Horrez gain, mundu mailan nekazaritza eta elikagai sistema berotegi efektuko gas isuri (BEG) %30 da. Areago, zuzenki eta zeharka batu ezker, nekazaritza isuri hauen %12 iristen da. Inpaktu horien larriagotzea EBan ekoiztutako janariaren %20 gutxi gora behera alferrik galtzearen arrazoirengatik dator. (Schutter, 2019)

Horrez gain, nekazaritzak jasaten dituen arazoak, aldaketa klimatikoaren erruz baliabide hidrikoak lortzeko zailtasunak izateaz gain, plagak, gaixotasunak eta lurzoruen egoerengatik nekazaritza zein abeltzaintzaren baldintzak aldatzen hasten dira. Muturreko egoera batean nekazaritzaren ekosistemen degradazioa ekarriko du. Azken finean, basamortutza emango du, eta horrekin batera, ekoizteko ahalmena alde batera utziko da. Horren kausaz, lehorteak, uholdeak eta berotasunak produktuen ekoizpenean eragingo dute. (Delgado Pérez, 2017)

Lurzorua erabilpenari dagokionez, Espainiako azaleraren herena nekazaritzaren jardueraz estalirik dago. Areago, nekazaritza beharrezkoa da higadurako lurzoru babesteko. Bereziki, Espainia %75eko arriskua du desertifikazioa jasateko. Gainera, dagoeneko lurren %20 basamortu kontsideratu daiteke (Greenpeace, 2018). Nahiz eta, egoera hau kezagarria izan, oraindik eta kezagarriagoa da higadura prozesua aktibo mantentzea. Nekazaritza, arrantza eta elikadura (MAPA) datuen arabera, urtero higadurarengatik sortzen den hektarearekiko lurzoruen galera 14,4 tona da. Hau kontuan izanik, tona bakoitzaren galerarengatik 0,0125cm galtzen dira laborantzetan. Gertakari honen efektu handienak nekazaritza sektoreak jasan arren, egoera honi aurre egiteko ahalmen handiena duen sektorea da; batez ere, higadura txikitzen duten laborantza teknikak erabili daitekeelako. (Pwc, 2019)


Bestalde, uraren erabilera da kalteturik dagoen bestelako baliabidea; batik bat, euriaren jaitsiera eta uholdeen pasarte eraginarengatik. Nekazaritza baliabide honen erabilera intentsiboa da. Mundu mailan onesten da nekazaritza jarduerak direla ur gehien kontsumitzen dutenak. Hain zuzen ere, ur gezaren %70 eta Espainian zenbateko hori baino altuagoa izan daiteke. Gainera, 300 milioi hektareek ureztatze instalazioekin kontaktzen dute. Are gehiago, nekazaritza ureztatuak landatutako azaleraren %20 da, eta munduko elikagaien ekoizpenaren %40 (Banco mundial, 2018). Izan ere, ureztatzeak ekoizpenaren eraginkortasuna maximizatzea baimentzen du. Horregatik, kezagarria da, uraren gabeziarengatik azken urteetan herrialdeek jasaten ari diren egoera. Eskasi honen adierazlea uraren ustiapenaren indizea da. Espainian, adierazle hau %30ena kokatzen da. Arazo honi aurre egiteko ureztatze sistema berriak garatzen ari dira; honela, eraginkorrak eta zehatzagoak izan daitezke. Bereizi behar da, Espainia, alor honetan gehien inbertitzen ari den herrialdea dela. (Pwc, 2019). Hala ere, datu ekonomikoei begira, uraren erdia baino gehiago belar laborantzarako zuzendurik daude (8.000 hektometro kubiko baino gehiago), fruta-ondoak (2.400 hm<sup>3</sup>), patatak eta barazkiak (1.700 hm<sup>3</sup>) eta oliba eta mahastientzako (1.200 hm<sup>3</sup>). Modu berean, azaleraren gehiena (%68,32) ureztatze artifizialaren bitartez kontaktzen dute. Jarraian, %26,14 lurpeko uraren bitartez eta zenbateko txikiago batean baltsamatutako ura, ur araztua eta gatz gabetuz. (Adhuelva, 2019)

Nahiz eta, tenperatura eta prezipitazioak aldaketa klimatikoaren aldagai ezagunenak izan, lehen aipatu bezala, izurri zein landareen gaixotasunen eragin handia ere badu. Bereziki, klima aldaketari laguntzen dioten fenomenoek, esaterako; belar gaiztoak,

gaixotasunak, intsektuek izurriak eta beste hainbeste arazoak ekartzen dituzte. Nekazaritzako zientzia eta teknologiaren batzordearen arabera, mundu mailan %25-50 laborantza galtzen dira; batik bat, belar txarrak (%34), izurriak (%16) eta patogenoengatik (%14). Honenbestez, aurreko paragrafoetan azaldutako arazoan ondorioz uztaren eraginkortasunean eta nekazaritzako ekoizpenean ere eragina izango du. Europako Batzordearen arabera, neurriak hartzen ez badira uztaren errendimenduak %30ean murriztu daitezke hemendik mende bukaera arte. (Pwc, 2019)

Azkenik nabarmenduko den bestelako arazoa, berotegi efektuko gas isuriak dira; izan ere, eragile nagusia nekazaritza da. 2018.urteari erreferentzia eginez, nekazaritza sektorea laugarren postuan aurkitzen da (%12) energia-sektorearen atzetik (%17). Hurrengo grafikoan hobeto ikusi daiteke.

### Grafikoa 20: Berotegi efektuko gas isuria sektoreka 2018



Iturria: Dirección general de biodiversidad y calidad ambiental

Nekazaritzan aurreko urteetan BEGaren gorakada izan arren, 2018.urtean mantendu egin da %12 izanik. Baina abeltzaintza-sektorea gas hauen %67 da eta era berean, %1,4ko hazkuntza izan du. Hala ere, laborantzari dagokion zenbatekoa %2,5 murriztu da; batez ere, nekazaritza lurzorua kudeatzeko desbideratutako N2O emisioen jaitsieragatik (aurreko urteko ongarri ez organikoen %2ko murrizketa) eta CO2 deribatutako emisioa urearen aplikaziorako (%-17). (Miteco, 2019)

Ondorio gisa, nekazaritzak paper garrantzitsua izango du aldaketa klimatikoaren estrategian. 2030 urterako nekazaritzak isuritako gasen jaitiera estimatzen da; bereziki, nekazaritza teknika berriei esker. Bestalde, nekazaritza ekologikoaren bultzada nabarmen da. Honela, lurzorua hobetzeaz gain, laborantzaren kalitatea hobetuko da, ingurumenarekin arduratsuagoak dira eta bio-dibertsitateari laguntzen dio. Halaber, teknologiak ere paper garrantzitsua izango du; batez ere, berotegi efektuko gas isurien murrizten lagunduko du. Horrez gain, uraren erabilera ere moderatzen laguntzeaz gain, energia zein lurzorua gutxiago galtzeaz ardurako da. Honekin batera, gazte papera ere nabarmendu behar da teknologia berrien erabilera gauzatzeko.

## 3.2. Ingurune espezifikoa

Hurrengo atalean, nekazaritza ekoizleen analisia egingo da. Horretarako, sektore honetan dauden lehia mailak aztertzea ezinbestekoa da. Izan ere, enpresen errentagarritasuna lortzeko aukerak baldintzatzen baitituzte.

Lehia maila aztertzeko ingurune bereziari buruz hitz egiten dugu edo mikro inguruneari buruz. Zehazki sektore batean zuzenki enpresen joeran eragiten dien faktoreak dira. Azterketa hau egiteko PORTER eredua erabiliko da. Erreminta hau Michael Porterrek definituriko Bost Indar Lehiatzaileen analisia da. Besteak beste, prezioetan, kostuetan, eta inbertsioetan eragiten duten aldagaiak. (Ohmae, 2014)

### 3.2.1. Sektoreko lehiakideen arteko lehiakidetasun edo norgehiagoka-maila


Hasteko, sektorea hiru sailetan banatzen dela esan daiteke;

- A001 Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta berauen azpisektoreekin erlazioaturik dauden jarduerak
- A002 Basogintza, baso-ustiapena eta berauekin erlazioaturiko jarduerak
- A003 Arrantza, akuikultura eta berauekin erlazioaturiko jarduerak

Hala ere, atal horien barnean hainbat azpisektore aurkitzen dira. Oro har, lehen atalari dagokionez, Espainian 54.566 enprekin aurkitzen gara 21.002.747.647€ ko fakturazioarekin; jarraian, 3.831 eta 813.513.228€ eta azkenik, 2.666 enpresa eta 2.148.299.530€. (Informa D&B, 2019)

Euskadin aldiz, lehen atalean 607 enpresez osaturik dago. Edonola ere, kontuan hartu beharrekoa da ere lehen sektorean aurkitzen diren enpresa batzuk beraien negozioa modernizatu duten heinean balio katearen faseetan eboluzionatu dute. Hala nola, ekoizletik (industrialak) merkaturatzera (zerbitzuak) pasa direnak. Honek logikoki, lehen sektoreko enpresa moduan agertzeaz gain, enpresa handienak dira. (Faiña & Lopez, 2009) Gainera, nekazaritza eta abeltzaintzako azpisektoreen antolatzaileen egitura hurrengo taulan ikusten den moduan, esplotazio txiki familiarrez osaturik dago, baina adierazgarritasun txikikoak dira. Izan ere, azken datuen arabera nekazaritza eta abeltzaintzaren produkzioa %40 da. Hori dela eta, sektore kontzentratua dela esan daiteke. (Faiña & Lopez, 2009)

**Taula 16: Nekazaritza eta abeltzaintzako enpresak %**



Iturria: Eustat



Basogintza zein basoaren ustiapenari dagokienez, 262 enprekin aurkitzen gara 309 milioi euro sortzen dute. Sektore honen egiturari begira %95 20 pertsona baino gutxiagoko enpresez osaturik dago eta %4,8 enpresa ertainez. Izan ere, 200 pertsona baino gehiagoko enpresak multinazionalak dira. (Baskegur, 2019) Hala ere, sektore honetan oligopolio baten aurrean aurkitzen da. Zeren, bi enpresa lider egon arren besteak mikroenpresak dira. %50ko merkatu kuotarekin “Central Forestal SA”rekin aurkitzen gara eta jarraian, “Bizkaiko Basalan Azkiozko Baltzua Ab SA” %6,6ko merkatu kuotarekin. (Informa D&B, 2019)

Azkenik, arrantzari dagokionez, 124 enpresa ditugu. Esan beharra dago azken urteetan jarduera honek garatu dituen baldintza asko aldatu da. Batez ere, arrantzaren legislazio internazionalak, baliabideek, arrantza stockaren jasangarritasunaren kezka, arrantza teknika berriak, ontzien ezaugarrien aldaketek eta arrantza produktuen kontsumo ohiturak aldatu baitira. Aurkitzen diren lau enpresa ertainen artean (besteak txikiak edo mikro enpresak dira) enpresa liderra %21,78ko merkatu kuotarekin “Compañía Internacional De Pesca Y Derivados, Sa” aurkitzen da eta “Atuneros Congeladores Y Transportes Frigoríficos Sa”(Informa D&B, 2019)

Ondorio gisa, ikus daitekeen moduan, sektore zatikaturik dago. Hau da, enpresa askok dira merkatu kuota txikiekin.

### 3.2.2. Lehiakide berrien mehatxua

Lehiakide berrien mehatxuak aipatzean sarrera hesiez hitz egiten ari gara; hau da, produktu berrien edo konpetentzien sarreraz. Merkatu horretan sartzea zenbat eta errazagoa izan, mehatxua gero eta handiagoa izango da.

Gaur egun, nekazaritza sektorea oso dibertsifikatuta eta zatikatuta dagoen sektorea da. Produktuak antzekoak edo ezberdinak izango dira bezeroek dituzten nahien eta beharren arabera ekoizten baitituzte. Egunerokotasuneko elikagaien erosten duten produktuak aztertu eta bezeroaren azalean kokatzen bagara, produktuak antzekoak izango dira; esaterako, produktuen artean ez da ezberdintze maila nabarmenik egongo. Egoera horretan, guztiek oso antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta beraz, lehiakideen artean lehia sendoa dago. Hala ere, badaude bestelako kasuak, non, bezeroak kalitatezko elikagaiak eta prestazio gehiago nahi edo behar dituzte. Bigarren egoera horretan, bezeroarentzat produktuen artean ezberdintze maila nabarmena izango da.

2017 urteari dagokionez, kalitatezko produktuak Hazi enpresaren eskutik %7ko gorakada izan du; hala nola, 152 M euro izanik. (Irekia, 2018)

Lehia horretan eragiten duten faktoreak honelakoak dira; produktuaren desberdintze maila aztertzen badugu ez dago produktu desberdintasun handirik. Izan ere, asko dira antzeko produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak; bereziki, bezeroek beraien artean aukeratu dezakete ia bereizketarik egin gabe.

Kapital beharretan oinarritu ezker, sektore honetako enpresa txikia irekitzeko inbertsio altua behar da. Gainera, lurra lortzeko hainbat zailtasunen aurrean aurkitzen dira.



### 3.2.3.Ordezko produktuen mehatxua

Ordezko produktuak nekazaritza sektoreak ekoizten dituen produktuen funtzio eta behar berdinak asetzen dituzten produktuak dira. Produktu hauek bezero eta merkatu berdinari zuzenduta egoten dira, baina beste sektore batek ekoizten dituzenez guretzat ordezko produktuak izatean mehatxu egiten digu.

Elikagai funtzio eta behar berdinak asetzen dituzten produktuak egungo merkatuan badaude; zehazki, elikagai industria da (supermerkatuak). Honek, sektorearen errentagarritasun potentziala eta erakargarritasuna gutxitzea ekartzen du. Gainera, zenbait eta ordezko produktu gehiago izateak bezeroen eskaria prezioarekiko sentikorragoa izatea ekartzen du. Hau da, eskaria elastikoagoa egingo da. Horregatik, “merkaturatze bide laburrei” berezko garrantzia eman behar zaie. Gaur egun, geroz eta garrantzi gehiago hartzen ari den merkaturatze bide ekintzailea da.

Hasteko, hainbat hitz teknikoen argibidea azaldu behar dira. Honenbestez, merkaturatze kanal zuzena eta zeharkakoaren desberdintasuna ageri behar da. Kanal zuzenari buruz hitz egiten ari garenean; ekoizle eta kontsumitzaile artean bitartekaririk ez dagoela esan nahi du; aldiz, zeharkakoan bide laburra eta luzea dugu. Bi bide hauen desberdintasuna bitartekarien zenbatekoa da. Motzean gehienez bi dauden moduan, luzean nahi adina egon daitezke. Hala ere, adierazi behar da definizio hauek kuantitatiboak direla; hau da, kualitatiboki nolako bitartekaritza eramaten ari den kontuan hartu gabe. Adibide gisa, zuzeneko kanaletan produktuak ekoizpenetik kontsumitzera joan daitezke, baina ehundaka kilometro egon daitezke ekoizle eta kontsumitzailearen artean. Bestalde, zeharkako kanalean, hasiera batean, ekoizpen eta kontsumo artean, distantzia handiko kanala dela pentsa dezakegu, baina kasu, komertzio txikia dugu. Egoera askotan produktu lokala dute eta askotan zeharkako kanala erabiltzen dute. (Mundubat, 2012)

Honenbestez, merkaturatze bide laburra kanal zuzen edo zeharkakotik haratago doa; zuzenki hurbiltasuneko zirkuituz hitz egiten dugu. Haatik, bitartekotza kuantitatiboaz gain (kasu okerreanean bakarrik edukiko luke), kontsumitzaile eta ekoizlearen bitartekotza kualitatiboa ere baloratzen da. Dena dela, ez da merkaturatze eredua besterik, izan ere, ekoizpen, kontsumo zein sozietate eredu bati loturik dago. Hirurak zuzenki loturik daude eta horietako baten bat aldatu ezker beste biei eragiten die. (Mundubat, 2012)

Azken finean, kontsumitzaile eta kontsumista izatearen aldean datza. Egun, kontsumo ohiturei begira gure elikagaien jatorria eta kalitatea alde batera utzi eta prezioari garrantzi gehiago ematen baitzaio. Datuekin kontrastatu ahal izateko, Ikusmer (Observatorio del comercio), argitaratutako ikerketak ditugu. Duela hamarkada batzuk familien gastua elikagaiei dagokionez %50 zen; gaur egun, zenbateko hori %13,08 murriztu da. Horrekin batera, etxebizitzako gastua 5 aldiz handitzeaz gain, gehien gastatzen den produktua %43arekin, aisialdia, kultura zein komunikazioetan da. Nabarmendu behar da ere, jatetxeek %10,85ko garrantzia dutela. (Mundubat, 2012)

Ondorio gisa, elikaduran gutxiago gastatu arren, ez dugu zertan gutxiago jan behar baizik eta alde batetik, etxetik kanpo gehiago jaten dugu or jatetxearen ehunekoa. Bestetik, gehiago begiratzen dugu produktuen prezioari, hain zuzen, merkeena aukeratzen delarik eta kalitatea, urtarokotasuna edo hurbiltasuna alde batera uzten da. Honekin, herrialdearen erabakia ikusten dugu; nahiago dute beraien



aurrekontuaren zenbatekoa aisialdian, kulturen edo bestelako aktibitateetan gastatu elikaduran baino. (Mundubat, 2012)

Honek nola eragiten dio baserriar zein merkaturatze bide laburrei?

Lehen esan bezala, kontsumo eredu ekoizpen eta merkaturatze ereduarekin bat dator. Ohitura horiek, prezio txikiko elikagaien eskaria dakar; eskala handiko prezio baxuko elikagaien ekoizpena eskatzen du. Honekin, produktu kantitate gehien eskaini dezakeen ekoizleei egiten dio onura. Bertako baserriarra kalteturik ikusten da. Batik bat, beraien ekoizpen eredu dibertsifikatuan, urtarokotasunean eta lurra errespetatu behar baita; hala nola, eredu familiarra eta hedadura murriztekoa denez ez da gai eskaerei aurre egiteko. (Mundubat, 2012)

Arrazoi horiengatik, produktuak merkaturatzeko handizkari zein banatzaileen merkatuetara jo behar dute. Bi kasuetan, erakunde hauek estimatutako prezioen menpekotasunarekin aurkitzen dira. Banatzaileak aukeratu ezker, produktuak jasotzeko baldintzak negoziatu behar dituzte. Kasu gehienetan, ekoizpen bolumen minimoa, produktuen kalibre minimoa eta produktuen barietatea exijitzen dute. Modu honetan, banatzaileak dira produktuen ekoizpenaz gain, merkaturako produktuaren barietatearen salmentaren erabakitzaileak dira, kontuan hartu gabe lekuko barietatea. (Mundubat, 2012)

Ikusi den moduan, elikadurako produktu merkeak herrialdearen eskuetan jartzeak kostu garrantzitsua du; batez ere, baserriarren autonomian. Gainera, ingurune kostuak ere ekartzen ditu; zeren, ekoizpen moduak bortxatzen dituzte eta elikagaiak milioika kilometro bidaiatzen dute. Ekoizleen aldetik, eredu horrek banatzaileek exigitutako ekoizpen edo errentagarritasun minimora iristeko lursailen gehiegizko esfortzura eramaten die. Esfortzu hori, gehienetan, jabeen lanean eragiten du, gainera, familiako pertsoneri laguntza eskatzeko beharrean ikusten dira. Kasu gehienetan, lan hori ordaindu gabea izaten da, eta are gutxiago eskerduna. Adibide garbiena, emakume baserriarrak ditugu; Euskal Herrian emakume baserriarren %60 besterik ez dago gizarte segurantzian alta emanik. Honen zergatia gastuan datza; hau da, gizarte segurantzian alta emateko baserriko diru-sarrerak pertsona bati emateko besterik ez zuten ematen; hain zuzen ere, lursailen jabeari besterik ez. (Mundubat, 2012)

Horrez gain, hainbat politikak merkaturatze metodo hori aurrera eramanez izateko ere arazoak ekartzen ditu. Hala nola, maila desberdineko politikak daude, zuzenki edo zeharka merkaturatze eredu aurrera eramateko zailtasunak ekartzen dituztenak.

Lehenik eta behin, zeharka, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) ditugu. Araudi publiko honen helburua, garapen sozioekonomikoa eta eskualdeen oreka, bizi kalitatearen hobekuntza, baliabide naturalen kudeaketa arduratsua, ingurumenaren babesa eta lurraldearen arazoizko erabileran datza. 2018. urteko dokumentuan, EAEko etorkizuneko ekonomia aglomeratua, logistikako eskala handiko plataforma eta infrastrukturetan apustu egiten du. Hala nola, Bilboko aireportua, AHT arekin konexioa, Bilboko itsasaldeko portuekin konexioa eginez, Gasteizko trenbideko konexioa eta, bereziki, Forondako zentrala nabarmentzen du. Proiektu honek, ekonomia politika askatasuna indartze du; honela, ekoizpena, banaketa eta merkaturatze globala inplikatzeko du edo izatekotan ekonomia tradizionalak progresiboki gainezka egitean datza. Ikus daitekeen moduan, inizatiba honek ikuspegi globala duten enpresei onura egiten die. Horrez gain, garapena eta modernizazioak



mobilitate frenetikoa ekonomia tertziarioa bultzatzen du; are gehiago, logistikak ekoizpenak eta espazioak menperatzen ditu. Dena dela, kontaminazio altua, lan eskasia, espekulazioa eta nekazaritza lanpostuak galtzea ekartzen du. Horren kausaz, merkaturatze bide laburreko baldintzak betetzen dituen ereduak alde batera uzten ditu. (Eusko Jaurlaritza, 2018b)

Bestalde, zuzenki eragiten duen araudia, merkataritza handiko instalazioen irekiera eta ordutegia da. Lege honen arabera, establezimendu handiak 8 jaiegunetan edo igandetan 12 orduz irekirik egotea baimentzen du. Argi eta garbi neurri horiek komertzio txiki zein baserritarrei kaltetzen diete. Izan ere, ezin izaten dute ordu gehigarri horiek estali. (BOE, 2008)

Modu berean, baserritarren merkatu araudi erregulatuak dugu. Merkatu publiko hauetan baserritarrak ekoiztutako produktuak zuzenki eros daitezke. Baina sektoreak jasaten ari den zahartzearen ondorioz, eta bestelako establezimenduko prezioekin lehiatu beharrak, geroz eta baserritar gutxiago daude merkatu hauetara joaten direnak. Hori dela eta, udaletxeek merkatu hauek aurrera eraman ahal izateko hainbat baldintza dituzte. Hasteko, kokapena eta ordutegia, bigarrenik, salmenta egiten duten pertsonen baldintzak, ondoren, merkatuak behar duen ekipamendua eta azkenik, ordaindu beharreko tasak. (Landatur, 2016)

Merkaturatze bide laburren arazoak ikusirik, hainbat eredu daude kategoriatan sartzen direnak. Horregatik, Euskal Herrian ezagunak diren hainbat kanal desberdin azalduko da.

Txikizkariak: Hurbileko dendak, udal azokak, auzo dendak zein denda espezializatuak dira.

Baserritar dendak: Dendak zein berezko ustiapenean jarritako salmentan datza. Adibide gisa, Uagalur (Araba) denda dugu.

Online salerosketa: Internet bidez ekoizleek bere produktua eskaintzen duten plataformak dira.

Kooperatiba eta kontsumo elkarteak: kooperatiba dendak dira, barietate handiko produktuekin eta gertuko elikagaiak nagusitzen dira. Kontsumitzaile talde edo nekazari arduradunak osaturik dago. Adibiderik garbiena, Bio Alai (Gasteiz) dugu, bere antzinatearengatik eta dituen bazkide kopuruarengatik; EH erreferentzia izatera heldu da, baita ere, Estatu mailan.

Azoka eta merkatuak: Zuzeneko salmenta baimentzen duen sistemarik tradizionalena da. Hainbat azokaren adibide daude, hala nola, Santa Barbara merkatua (Gasteiz), Azpeitiko Merkatua.

Kontsumo taldeak: Kontsumitzaileek, erregularri ekoizpen lokaleko eta denboraldiko elikagaiak jasotzen dituzte otar edo kaxetak dira. Adibide moduan, Nekasarea eta Basherrri nabarmendu behar dira.

Ondorio gisa, esan beharra dago merkaturatze bide laburra ekoizpen eta kontsumoaren erabakietan erremienta garrantzitsua da. Izan ere, bide bakarra da elikagaien jatorria lehen eskutik jasotzeko eta ekoizpenari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Gainera, elkarren arteko erlazioa bestelako printzipio, konfiantza eta ezaguera baimentzen du.





### 3.2.4. Bezeroen negoziatio-boterea

Bezeroen negoziatio botereaz hitz egiterakoan sektorearen errentagarritasuna maila baldintzatzen du. Hori dela medio, hainbat faktore aztertu behar dira; bezeroek produktuarekiko duen informazio maila, prezioa, produktuek desberdintze maila etab.

Hori dela eta, nabarmendu beharra dago elikagaiak gure osasunean duen inpaktua negatiboa da; horregatik, geroz eta kontzientziaturik gaude osasungarri jatearen ideiarekin. Europako herrialdearen %50 gehiegizko pisua du eta %20 gizen dago. Dieta ez hain osasungarriak gaixotasunen eta hilkortasunaren lehenengo faktoreetakoa da eta herrialde pobrenei eragiten die gehien. Gainera, dieta eskasak, gaixotasun kardiobaskularren eragile nagusia (%49) eta hilkortasunaren lehenengo kausa da. Horrekin batera, elikadura osasungarri eta nahikoa milioika pertsonen irismenetik kanpo geratzen da; hain zuzen ere, lautik batek pobrezia arriskuan dago. 2016. urteko datuei dagokionez, 43 milioi pertsonak (Europar batasuneko herrialdearen %9,1) ezin izan zuen kalitatezko elikagaia ordaindu bi egunetatik behin. Mundu osoan, ia 800 milioi pertsonak gosetea pasatzen dute; horrez gain, bi mila milioiek mikro mantenugaiez sufritzen dute. (Schutter, 2019)

Arazoi horiengatik, egun, "Millennials" exigentziak eta kontsumo ohituren aldaketak nabarmenagoak dira; izan ere, bestelako elikagaiak bilatzen dituzten. Hala nola, nutriente iturri berriak dituztenak, naturalagoak, prozesatu gabekoak eta aditibo gutxiagokoak. Datu ekonomikoei begiratuz, Europatik, Espainiarrak (%81) dira berain erosketaz zerrendan elikagai jasangarriagoak dituztenak, atzetik, Frantzesak (%53), alemanak (%53) edo Ingelesak (%30). Hain zuzen ere, kontsumitzaileen %65ek elikagaien osagaiak nekazaritza iraunkor batetik eratorriak nahiago dute. (Varela & Carretero, 2018)

Kontsumo ohituretan emakumeak dira erosketaz arduratzen direnak. Zehazki, emakumeen %62,9 gizonezkoen %33,3en aurrean. Aurrekontuari buruz, etxeko erosketetan gehienekoak hilabetean 150-450 euro (%70) gastatzen dute, baina zenbateko hori handitzen doa etxean pertsona gehiago daudenean. Familiaren aurrekontuaren galdeketa estatistikako institutuak egina (INE), 2016. urtean baieztatzen du, Espainiako etxeetan etxeko erosketan 4.123 euro gastatu zen. Elikagaiei eta edari ez alkoholikoei dagokionez, 2015. urteari erreferentzia eginez %0,1 gehiago. Azken datu eguneratuei dagokionez, 2018. urtean etxeko gastua elikagaietan 68.538,09 milioi eurotara igo zen 2017. urtean baino %1,6 gehiago. (Varela & Carretero, 2018)

Euskadi buruz hitz egiterakoan, 2.170.000 biztanlez osaturik eta 7.089 km<sup>2</sup> hedadura du. Populazioaren %4,7 eta nazioko lurraldearen %1,4. Bizkaia eta Gipuzkoaren artean biztanleriaren %85 da. Pertsona bakoitzaren gastuaren arabera, euskal kontsumitzaileen erosketak boterea nazional batz bestekoaren gainetik dago; 25,2 puntu gainditzen du. (Sainz, H., Sanz, A., Vera, D., Cerdeño, V. J. M., eta Fernandez, J. 2018). 2017. urtean, pertsona bakoitzaren gastu media 14.175 eurotara iritsi zen. Hain zuzen ere, estatuaren batz bestekoa baino %21 gehiago. Euskal herria, autonomia erkidegoetatik batz besteko gastu altuena du, atzetik Madril (13.709€) eta Nafarroa (13.325€). Euskadiko estatistika institutuak (Eustat) dioenez, Euskadiko etxeetako gastu media 33.709€koa da 2017. urtean; aurreko urtea baino %0,1 gehiago. (EFE, 2018)



Hau horrela izan arren, IPSOS Daniel & Nina Carasso fundazioarako eginiko ikerketaren arabera “La Alimentación en España”, lehen esan bezala, osasunari dagokionez geroz eta informatuak eta kontzientziatuak daude bezeroak, baina elikagaiekiko duten konfiantzaz gain, gehienek elikagaien etiketan dakarten informazioa eskasa dela esaten dute. Bereziki, ingurumenaren inpaktuari dagokionez (%87), sozialki (%81) eta, batez ere, osasunean (%79). Alde horretatik, %76ek diote, lehengaien jatorriari buruz ezjakintasun handia dagoela; hala ere, %70ek etiketa eta ziurtagiriez fidatzen direla diote. (Ipsos, 2017)

Gainera, hainbat supermerkatuko joera ikusi ondoren, ia denek kontsumitzaileen beharretara moldatzen ari dira. Horietako batzuk hurrengoak dira: BM, Carrefour, Lidl, E.leclerc, Mercadona, Eroski zein El corte ingles, produktu freskoagoak, kalitate handiagokoa, jasangarriak eta klima aldaketarekin kontzientziatuago daude. Hala ere, egun, lehen esan bezala, garrantzia gehiago dute elikagai osasungarriak; horregatik, geroz eta gutxiago gastatzen dute supermerkatuko produktuetan bertako produktuei garrantzi handiagoa emanez. Anabel Zariquiegui, Eroskiko hipermerkatuko zuzendariak dionez, kontsumitzailearen erosketa arrazionala da. Dagoeneko gastua gehiago kontrolatzen dute eta kalitate-preziosko produktuak exigitzen dituzte. Era berean, osasuna eta bizi kalitatea kontrolatzen hasi dira. (Bidegain, 2017)

Hori horrela izanik, Observatorio Shopper Experience (OSE)ren eskutik, Espainian egindako 1300 elkarrizketetan bezeroen ustez lau parametro kontutan harturik Carrefour eta Mercadona dira kate nazional onenak; prezioa %65, komoditatea eta erosteko esperientzia %49, barietatea %46 eta jasangarritasuna %40. Azken parametro honek, geroz eta eragin gehiago du bezeroengain, erantzukizun sozial korporatiboa, ingurumena, enplegatuen ongizatea eta ekonomia lokalerako laguntza bezala. (Saborit, 2017)

Ikus daitekeen moduan, bezeroen botere maila oso garrantzitsua da: oso sentsibleak baitira diru politikaren aldatetara. Izan ere, kontsumitzaileek gutxi ordaintzeko formulen bila ibiltzen dira. Enpresa ia gehienak leialtasun estrategia erabiltzen dute; zeren, bezeroei ez die inongo kosturik suposatzen hornitzaileez aldatzea. Bestalde, erosketa bolumena, espezialitatea eta produktuen eskaintzek sektore honetan eragiten duten faktoreak dira. Beraz, ikusi dugun bezala bezeroaren negoziazio boterea altua da; bada, supermerkatuen eta salgai produktuen ugaritasunagatik bezeroak ez daude supermerkatuaren menpe. Oro har, guztiek prezio antzekoak eta kalitatea eskaintzen dute.



### 3.2.5. Hornitzaileen negoziazio-boterea

Hornitzaileen negoziazio botereak sektoreko enpresen errentagarritasuna zati handia baldintzatzen du. Errentagarritasuna mugatzeko beraiekin negoziatu behar baita. Negoziazio botere hori hornitzaileen bidez inposatuta izan da; izan ere, lortutako boterearen ondorioz, kontzentrazio maila altua dute.

Urteetan nekazariak hornitzaileekin izan duten arazoei buruz asko entzun da; hori dela medio, atal honetan arazo horien jatorriaren zergatia azalduko da.

Merkatuko globalizazioa, kontsumo ohiturak eta, bereziki, teknologiak elikadura banaketaren eboluzioaren arrazoiak izan dira. Duela gutxi, etxeko erosketa herriko denda txikietan egiten ziren, baina gaur egun nekazaritza eta elikagaien ekoizpena geroz eta gehiago hirietako supermerkatuen hornikuntzara bideraturik daude.

Horregatik, supermerkatuak erosketa boterea dutela esaten da; batez ere, txikizkarien boterea ere dutelako. Merkatu nazional garatuetan, supermerkatuek, kontsumitzaileontzat produktu jangarriko hornikuntza menderatzen dute. Erosketa botere hazkorra, epe motzean, kontsumitzaileei ongizatea ekar dezake, baina horrek eta beste hornitzaileen beste faktore batzuk, inpaktu negatiboa ekar dezakete kontsumitzaileei. Inpaktu negatibo horietako bat, geroz eta gehiago entzuten den bitartekariak lortzen duten mozkin marjinak dira. Zeren, nekazariak prezio miserable batean erostez gain, kontsumitzaileek ordaintzen duten prezioa garestia izaten da. Nekazaritza eta abeltzaintzako antolakuntzako estatuko koordinatzaileak (COAG) diotenaren arabera, bitartekari kateak arriskurik jasan gabe beraien mozkin marjina %450 gainditu dezake, gainera, Eladio, Nekazari gazteen zuzendaria (ASAJA) esanetan, batzuetan zifra hori %6000 gainditu dezake. (Rallo, 2019)

Irabaziaren zenbateko hori buruz hitz egiten dugunean, jatorrian eta helmugako prezio indizea (IPOD) ari buruz hitz egiten ari gara. IPOD izeneko indizea COAG (Nekazaritza eta abeltzaintzako antolakuntzako estatuko koordinatzailea), CEACCU (Espainiako etxekoandre, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Konfederazioa) eta UCE (Espainiako erabiltzaileak) bitartez sortu zen. Hauen helburua kontsumitzaileei elikagai industriako elikagaien prezioa eta jatorriari buruzko informazio garbia eta zehatza ematea da. (Coag, 2019a)

COAG argitaratutako azken datu eguneratuei dagokionez, ekainean kontsumitzaileek ordaindutako prezioa elikagaiengatik 4,54 gehiago izan zen ekoizleek jatorrian jasotakoa baino. Jatorrian eta helmugako prezio indizea (IPOD) kalkuluei begiratu ezkerre, nekazaritza elikagaiak jatorrian 4,88 bikoiztu ziren eta abeltzaintzan, aldiz, 3,18.

Euskadiri dagokionez, 6.356 komertzio txikizkari daude elikagaien espezializatuak direnak. Bizkaian %52,2 da, Gipuzkoa %35 eta Alaban, aldiz, %12,8. Autonomian 898 supermerkatuz osaturik dago eta 31 hipermerkatu; gainera, saltzaile ibiltari zein azoka txikiak 633 dira; nazio guztiaren %1,5 dira. (Sainz et al., 2018)

**Taula 17: Euskadiko elikadura banaketa**

	Minoristak	Espezializatuak	Supermerkatu txikiak (<399m <sup>2</sup> )	Ertainak (400-900m <sup>2</sup> )	Handiak (>1000m <sup>2</sup> )	Hipermerkatuak	Ibiltari eta azokak
EH	24.168	6.356	482	271	145	31	633
EH/ Espainia (%)	4,2	5,7	4,1	4,5	3,7	6,4	1,5

Iturria: (Sainz et al., 2018)

Arazo horren aurrean, geroz eta nekazari gehiagoa beraien produktuak saltzeko bestelako metodo batzuez hornitzen dira. Hain zuzen ere, aldaketa horietako bat “Kilometro 0” moduan ezaguna den eredua da. Elikagai produktuak hurbiltasun ingurune batean saltzean datza. Hala nola, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzen baten bitartez. Honek, ekoizleen errenta hobetzeaz gain, bertako ekonomia eta ingurumeneko arazoak ekiditen ditu.

Metodo hau, “Slow Food” ( “janari motela” “fast food” edo “janari azkarrari” kontra egiteko) 1986 urtean Carlo Petrini Italiarriaren eskutik sortu zen. Hainbat arrazoi nabarmendu behar dira gertuko elikagaiez. Izan ere, abantaila ekologikoak, gastronomikoak, sozialak zein ekonomikoak ditu. (A. Fernandez, 2014)

Ekologikoei dagokionez, nazioarteko produktuen garraioari buruz hitz egiten dugu. Bereziki, berotegiko gas isurien ondorioz ingurumenean inpaktu handia baitu. Alabaina, bilgarri gehiagoren behararengatik hondar sorkuntza sortzeaz gain, hainbat elikagai galtzen dira. Gainera, bestelako espezie batzuk gure lurraldetara ekarri eta lurralde berria inbaditzea ekar dezake. Horregatik, “kilometro 0”ko elikagaiak distantzia motzean saltze direnez, arazo hauek ekidin egiten ditu. Bestalde, etxeko bio-dibertsitatea bultzatzen du, autoktonoen espezieak bizirik mantenduz. (A. Fernandez, 2014)

Gastronomiako abantailak, barazki zein frutei dagokionez, elikagai freskoagoak eta propietate gehiago dituzte (usaina zein zaporea). Zeren, ez dute kontserbazioko tratamendua edo urrunetik ekartzeko izozteko metodoa jasan beharrik. Hainbestez, produktu lokaletan oinarritutako plater tipikoak lantzerantz bultzatzen du. (Fernandez, A. 2014)

Ikus daiteken moduan, bertako ekonomia mantendu eta hobetzen du. Honela, ekoizle txiki zein ertainei laguntzen du, bertako lanpostuak bultzatzen ditu eta herrialdea komunitatea osoari onura ekartzen dio. ( Fernandez, A. 2014)

Azkenik, onura sozialei dagokionez, kontsumitzaileak geroz eta gehiago arduratzen dira beraien elikagaiez eta hauen jatorriaz. Hortaz, “kilometro 0” eredua gehiago pairatzen du berain kontsumo ohituretan. (A. Fernandez, 2014)

Ondori gisa, hornitzaileen negozio boterea altua da, baina pixkana eredu berrien bitartez berain indarra galtzen doa. Hala ere, oraindik gauza asko egin beharko litzateke duten boterea kendu ahal izateko.



## IV. Atala: Ezaugarri sozialak

### 4.1. Sarrera

Egun, baserriarren jardunaren bilakaeran eragin handiena duen arloa biztanleriaren bizitza estiloaren aldaketa izan dela esan daiteke. Orain arteko ataletan, lehen sektoreko makro eta mikro faktoreak aztertu arren, atal honetan, berebiziko garrantzia nabarmendu nahi den faktorea da. Hala nola, egungo gizartearen bilakaera eta joerak nekazarien artean nola eragin duen. Batik bat, hurrengo aztertuko da: landa eremuen despopulazioa eta zahartzea; landa eremuen erabilpena eta ustiaketa modu berriak (turismoa, aisialdia, ostalaritza); gazteriaren ikasketa mailaren gorakada eta beraz, interes profesionalen aldaketa; balore eta jarrera aldaketak; eta amaitzeko, hiriko kultura eta globalaren erakargarritasuna gazteen artean.

Hasiera emanez, landa garapena kontzeptua geroz eta aintzakotzat hartzen ari da Euskal autonomia Erkidegoan. XX. mendeko gizartearen kultura, printzipioak eta baloreak aldatu ziren arren, une honetan prozesu berri baten hasieran dago. Hiri-guneetatik landa eremuetara biztanle berriak iresten ari baitira. Era berri hau, errazago ulertzeko landa eremuaren historia aztertuko da; batez ere, ohitura zein izaera sozialak azalduko dira, egungo jarrerak ulertu ahal izateko. (Retegui, 2004)

Euskal Herrian, bizitza soziala eta kulturalaren elementu zentrala baserria zen. Baina industrializazioa, urbanizazioa, landa eremuetako despopulazioarekiko paraleloa den hazkunde demografikoa eta aldaketa-prozesu orokortu bezalako faktoreek, baserri euskaldunek, gizarte eragile izateari uzten dio. Bereziki, gizarte honen arautzaile sozio-ekonomiko eta kulturala izateari uzten dio. Mendiak baserriaren bizi-beharrak asetzeari lotuta egoteari uzten dio eta 1962tik baserriak gero eta gutxiago ziren. Era berean, landa-inguruneko bizimoduaren pixkanakako baliogabetzea gertatu zen. Haranen ondoko habitatak eta hiri industrialetako lanak ordezkatzeko zuten neurrian, ustiapen motak ( nekazaritza eta abeltzaintza hiri-beharrak asetzerara bideratuta) taldeen arteko harremana aldatzen zuten. (Montoya, 1998) (Homobono, 1991)

Aldaketa horrek kultur eraldaketa sakona eragin du, eta hainbat adierazpenetan islatu da. Harrigarrienak etxeko talde mailan ematen dira baserriaren logikan (transmisio integrala, tronkalekotasuna eta ondasunen mankomunitatea). Komunikabideek lehengo tertuliak ordezkatzeko zituzten. Aisialdiko jarduerak bilakaera jasaten hasten dira eta herritik kanpo kokatzen dira; batez ere, hiri-ingurunean. Elizak komunitate osoaren deialdia egiteko lekua izateari uzten dio. Era berean, baserrien eta etxetaldean gutxitzeak ere eragina du auzo-harremanetan, horrek funtsezko aldaketa dakar tokiko komunitatean; izan ere, komunitate hori bizilagunen arteko eta lurraldearen arteko gizarte-harremanen sare gisa definitzen baitzen. Industrializazioa-urbanizazioa binomioak banakako eta taldeko balioak, sinesmenak eta portaeretan aldaketa sakona ekarri zuen. Baserriarra izateak tradizioaren zaindari jotzen zen; bizimodu prestigiotsu eta ohorezko estatusarekin. Halaber, kaletarra izatea arrotza jotzen zen, gutxiesten. Baina paperak aldatu egiten dira, baserriar eta landatar terminoak atzerapenaren sinonimo bihurtzen baitira. Aldaketa horretan, kultura-hutsunea azaltzen da; ohiturak alde batera uzten baitira. Gizarte-bizitza sekularizatu egiten da eta errito tradizionalak bertan behera uzten dira. Hiriak neurri handi batean lurraldeko proiektuak, lana, dibertsioa eta bizitza sozio-kulturala xurgatzen hasten da.



Oro har, modernizazioak auzo solidaritateko tradizioak apurtzen zituen neurrian landa bitzta desegituratzen zuen. (Homobono, 1991) (Montoya, 1998)

## 4.2. Alderdi historikoa

Apurtutako tradizio horiek, auzoa, baserriarren bizimodua, etxea, familia eta oinordetzan ikus daiteke. Batez ere, auzoa aipatzen dugunean baserriarren eta hauen ohituren identitatearekin bat datozelako.

Euskal Herriko eremu atlantikoan baserriak (landa-baserriak) auzoetan banatzen ziren. Horiek lurraldez bereizitako erakundeak berezko nortasun kolektiboa zuten etxeakoaren eta udalerrikoaren artekoa. Auzo baten existentzia etxeen arteko hurbiltasun fisikoak baldintzatzen zuen, baina, batez ere, etxe taldeek elkarren artean auzo harreman konplexua mantentzen duen lurralde gisa definitzen baitzen. (Homobono, 1991)

Auzoak oinarrizko instituzionalizazio erlijioso eta politikoa zuen. Bakoitzean ermita bat zegoen urtero etxe desberdin batek mantentze-lanez eta kudeaketa ekonomikoaz arduratzen zen. Bestalde, auzo harremanen egituraketak etxea ardatz gisa hartzen zuten. Auzotik geografikoki gertuen zegoen etxea egoera kritikoetarako erabiltzen zen. Egoera kritiko horiek, jaiotza, ezkontza edo heriotza errituak ziren. Adibide gisa; etxe unitate baten heriotza gertatu ezker hildakoaren etxe taldearekin lankidetzan jarduten zuten. Etxeko lanak, nekazaritza eta abeltzaintzako lanak zein hiletalantzaren prestakuntzan eta garapenaz arduratzen ziren. Orain arte esandakoarekin ondoriozta daiteke, auzokide izateak ez dakarrela bakarrik beste baten ondoan bizitzea, baizik eta, harekin harreman jakin batzuk izatea. Harreman horiek elkarrekiko betebeharrak eta eskubide bihurtzen ziren, norberarekiko sentimendu pertsonalak alde batera utzita. (Homobono, 1991)

Horrez gain, etxeari buruz hitz egiterakoan baserria eta etxe taldea landa eremuko egitura sozial eta ekonomikoaren oinarrizko unitatea zen. Aldi berean, ekoizpen-unitate bat, familia enbor bat, bizileku bat eta euskal kultura tradizionalaren ikur enblematikoa zen. Etxe kontzeptuak honako hauei egiten zien erreferentzia: eraikinari, nekazaritzari eta abeltzaintzako ustiapenari, lanabesei (lurrak, lanabesak, ganadua), elizako lurzoruko lekuari eta azkenik, familiaren jatorrizko lurperatze tokia. Familia, etxe jauna, haren ezkontidea, seme-alabak, neba-arrebak eta gurasoak osatzen zuten. Gainera, etxe taldea edo etxeak, bertan bizi diren pertsonak osatzen zuten. (Homobono, 1991)

Hori da euskal enbor-familia edo etxe erakundeari lotutako familia-egitura. Jada paradigmaticoa den definizioa "William Douglassen" egindakoa da; hiru belaunaldiko etxe talde bat bezala ezaugarri duena, honela ulertuz: "Bikote ezkondu aktibo bat (etxe jauna eta etxe andrea), bikote ezkondu erretiratu bat, -etxe jauna edo etxe andrearen gurasoak direnak-, eta bi bikoteen ondorengo ezkongabeak". Horrez gain, familiaburuarekin inolako ahaidetasun-harremanik ez duten eta, hala ere, etxean bizi diren beste pertsona batzuk ere hartzen ditu barne. Besteak beste, iraganean adopzio bidez lotutako morroiak, etxe bizileku-taldean sartzen diren hezitzaile edo jornaleroak, odol-ahaidetasunezko ahaideen antzeko estatusa zutenak. (Homobono, 1991)

Etxeko taldeko kide izateko, ondorengotza, bizilekua eta ezkontza-harremana hartzen ziren kontuan. Gizarte tradizionalan baserriarrek, baserriaren oinordetza, ezkontza-



erlazioak eta bigarrenengo seme-alabekin zer egin erabakitzen zuten. Behin etxeko ugalketa ziurtaturik, oinordeko ez ziren seme-alabak kanporatzen zituzten. Neskei dagokienez, oinordetza bidez hartzen zuen etxeko jaun berriarentzat lana egitera pasatzen ziren edo etxetik irteten ziren estatusa hartzeko (ezkontza). Honela, baserriak giza taldearen bizitzako beste alderdiak antolatzeari eta arautzeari uzten dio. Izan ere, baserriko bizitegi-logikak: “batek besterik ez du heredatzen, seme-alabetako bakarra ezkontzen da, batek bakarrik lortzen du euskal etxearen ondarea”. Baina enpresan soldatapeko lana lortuz eta baserriaren balio sozio-ekonomikoa pixkanaka galduz, giza taldea lurralde logikatik bereizten da. Bigarrenengoak ezkondu daitezke eta haranean bizitzen jarraitu, baita baserrian ere; maiorazko betebeharrak eta ezkontzak baldintza izateari uzten baitio. (Homobono, 1991)

Hori horrela izanik, aipatu den bezala, familiako rolean, etxeko jaun gizonezkoek alderdi ekonomikoan eta nekazaritza-laneko erabaki nagusiak hartzerako garaian autoritatea zuten. Etxeko andrea, etxeko jarduerak kudeatzen arduratzen zen. Etxeko gainerako emakumeek bezala landa-lanean parte hartzen zuten, nahiz eta, gizonak indar fisiko handiagoa eskatzen zuten lanak egin. Baserri tradizionalan, seme-alabek ez dute ia lanik egiten hamalau urte bete arte, adin horretatik aurrera erantzukizunak hartzen dituzte. Gizonezkoek nekazaritza eta abeltzaintza lanak ikasten dituzte, eta neskek etxeko lanetan parte hartzen zuten, nahiz eta, landako lanetan ere parte hartu. (Homobono, 1991)

Gauzak horrela, belaunaldi-maila bakoitzean seme-alabetako bat bakarrik izendatzen zen oinordeko -aitaren etxean geratzeko ondare-ondasunak oinordetzan jasoz-. Zuberoan eta Lapurdin, maiorazko zorrotzaren legea praktikatzen zen sexuen bereizketarik gabe. Bizkaian, tradizionalki oinordekoaren alde egiten zen seme zaharrenaren alde, sexua edozein zela ere, baina praktikan gizonezko oinordekoaren lehentasuna nabarmena zen, eta emakumea izanez gero, emaleek bigarren seme edo alaba bat aukeratzen zuen. Etxeko jaun berriak ezkontzeko unean jasotzen zuen baserriaren jabetza, eta bere aitari obedientzia eta begirune filiala zor zion arren, etxeko taldeko agintari gorena bihurtzen zen. (Homobono, 1991)

Hala eta guztiz ere, pixkanaka, etxean aritzeko aukera eragozpentzat hartzen da abantailatzat baino; izan ere, badira beste aukera batzuk. Horrela, oinordeko izendatzea ez dago gurasoen lehentasunaren menpe, baizik eta, seme-alabetako batek baserriaren buru egoteko hartutako erabakiaren menpe. Sarritan, etxeko ustiapenarekin jarraitzeko prest dagoen semeak etxeko jaunak baino eskolatze handiagoa duenak, zalantzan jartzen ditu ustiapen modu tradizionalak, eta zalantzan jartzen du haren autoritatea. Ezagutza berriak eta ekimen-gaitasuna esperientziaren eta tradizioaren gaintik daude familia-agintaritzaren sistemaren oinarriak hautsiz. Neska gazteak mesfidati agertzen ziren etxejabe bat oinordetzan hartzeko eta haren oinordekoekin ezkontzeko. Are gehiago, hiri munduko soldatapeko lanek erakartzen zien eta gainera, emigratio aukerak ematen zizkien. Beraz, oso zaila da baserrien oinordekoek ezkontidea aurkitzea. Krisi hau, familia tronkalaren jarraipena belaunaldi bakoitzean oinordeko bat ezkontzearen menpe ustearengatik sortzen da. Oro har, Bizkaiko eta Gipuzkoako hamahiru baserrietatik batek baino ez zuten oinordekotza ziurtatuta. Baserriarren ezkongabetasun-tasa oso handiaren ondorioz, ezkontzeko adina oso handia zen. (Homobono, 1991)





Besteak beste, hiri eta industria eremuaren arrazoiarengatik, landa gizarte tradizionalaren berezko eredu familia eta komunitatean aldaketa sakona ekarri zuen. Lan industria egiteko aukerarekin ezkongabeak baserri askotatik desagertzen hasi ziren eta arrazoi horrengatik ere, morroiak desagertu ziren. Aldaketa prozesuaren ondorioz, familia tronkaleko ezaugarriak dituen etxeko talde bati bi belaunaldiko familia enborreko beste eredu batera igaro zen. Baina etxeko komunitatearen taldeak ez dio eredu bakar bati erantzuten. Ezkontzaren inguruan egituratutakoaz gain, badira etxeko-familiako egitura gisa funtzionatzen duten anai-arreba ezkongabeen etxeko komunitateak, eta titulartasuna partekatzen dute nekazaritza eta industria ustiategi konplexuenak kudeatzen dituztenek ere. (Homobono, 1991)

Azken batean, familia mota horrek landa-sistema mantentzeko gaitasuna izan arren, ugaltzeko oztopo larriak daude; ezkontzeko zailtasuna eta ekoizpen harremanak industria eremura bideratzen dira. Horrek berekin dakar landa eremuko etxeen krisia. Horrengatik, errelebo faltarengatik baserriak itxi eta uzteko arrazoi nagusietakoa bihurtzen da.

### 4.3. Bizimodua eta bizitza estiloen eraldaketa

Dudarik gabe, "hutsune kultural" baten aurrean aurkitu ziren. Ohiturak, bizitza soziala, erritu tradizionalak eta mendiko praktikak bertan behera utziz. Orain arte, baserriar kulturaren aurrean aurkitzen ginen, landa-eremukoa nekazaritzakoa. Baina erabat aldatzen da 60-70. hamarkadan, lehen aipatutako erbesteratutako seme-alabak hiri-eremuko zerbitzuetara eta aurrerapen kulturara murgiltzen dira. (Collantes, 2009)

Hiriak gremio izateari utzi eta industrializatu egin ziren. Urbanizazio azkar eta handi batek erdi aroko erdigunea auzo txiki bihurtu zuen, merkataritzaren eta zerbitzuen egoitza. Biztanleria industrialekin batera, inguratzen zuten bizitegi-auzo handietan biltzen da. Horiek landa-ingurunekeo biztanleriaren zati handia hartu zuen. Nekazaritzaren modernizazioaren eta mendiaren ustiapen espezializatuaren ondorioz, ohiko funtzioa kendu zitzaion. Hiriak pobreaki bizitzera ohituta zeuden gizartearen proiektuak, ilusioak eta aurrerapen mitoak xurgatzen zituen. Besteak beste, seme-alabontzako hezkuntza, zahartzarorako apartamentuak, aneientzako lanpostuak etab. emigrazioen arazo demografikoak konpontzen zizkien. Praktika horrek, Euskal Herriko baserri eta herrietako biztanle gazteak xurgatzeko gaitasuna izan zuen -baserriatik hirira-. Ezaugarri hori oso garrantzitsua da gaur egungo praktika sozio-kulturala ulertzerako orduan. Batik bat, praktika ekonomikoa eta soziala aldatzen zen heinean erlijioa ere bai. (Collantes, 2009)

Halaber, bizi-baldintzen hobekuntza ere ekarri zuen, (soldata-mailak, elikadura, osasuna etab), batez ere, eguneroko bizimoduan eta ohituren aldaketan (gizarte mugikortasunean, garraioen garapenengatik eta aisialdi erak: soziabilitate esparru berriak, ikuskizun berriak, kirolak, dibertsioak etab). Oro har, pentsamolde berria modelatu zuten, masen gizarteari lotutakoa inbertsonaltasunetik eratorritako ezaugarriekin. (Collantes, 2009)

Eraldaketa berezietako bat hezkuntza aldetik eman zen; irakaskuntza publikoaren aurrerapena eman baitzen. Horrekin lotuta, alfabetatze prozesuaren aurrerapena eta baita ere euskarazko irakaskuntza publikoa zabaltzeko lehen saiakerak (ikastolen hasiera). Bereziki, XX. mendearen azken herenean gauzak aldatzen hasi ziren. Hezkuntzako sarbidea funtsezko pieza izan baitzen. Lehenik, bi generoetarako



derrigorrezko irakaskuntzarekin, eta gero, ikasketak zabaltzearekin, emakume asko herrietatik atera ziren unibertsitatean ikasteko. Bertan medikuntza, farmazia, ekonomia, albaitaritzza edo nekazaritza ingeniari-titulua lortu zuten. Ondoren, etxera itzultzea erabakitzen zuten, eta gaur postu bat irabazi dute landa gizartean. (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, 2018)

Behatutako bilakaera, lehenik eta behin, nekazaritza-espazioen garapen orokorrarekin bat dator. Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreen bilakaera politika batek markatzen du. Politika horren helburuak merkatuen liberalizazio eta lehiakortasuna bermatzen du. Hala nola, produktu gehiago eta merkeago saltzearen baitan. Hori dela medio, ustiategiek beren ekoizpen ahalmena handitu behar zuten, ekoizpena kapitalizatuz eta industrializatuz. Horretarako, eskulan nahikoa, kapitala eta teknologia inbertsioen baitan baldintzaturik zeuden. Aldiz, ekoizpen-unitate guztiek ezin ziren ezarritako eskakizunetara egokitu, beste batzuek, ez zuten nekazaritza azalera nahikorik edo inbertsio ekonomikoak egiteko aukerarik. Horren ondorioz, ustiategitalde txikia eskakizunetara egokitzen da, etekinak handituz eta ustiapena kapitalizatuz. Baina gehienek ez dituzte instalazioak berritzen eta nekazaritza-errenta murrizten dute; azkenean, lana uzten dute. Gainera, beste sektore batzuetako lanpostuek hiri-bizitzarekin zerikusia dutenak diru-sarrerara handiagoak edo, gutxienez, ahalegin eta dedikazio txikiagoa eskaintzen dutenak erakargarritasun gehiago zuten. Bestelako konponbidea errentak dibertsifikatzeko eta diru-sarrerak handitzeko modu gisa lanaldi partzialeko nekazaritzari heltzea izan zen. Baina azken hamarkadetan lanaldi partzialeko nekazaritzak ez du lortu baserriaren egonkortasuna, nahiz eta, desagertze prozesu bizkorragoa saihesteko gai izan den. (Collantes, 2009)

Horrekin batera, gazteen garrantzia nabarmendu behar da. Batez ere, biztanleri gazteek ez dute interesik erakusten nekazariaren erreleboan. Eraitza hori, fase desberdinetan ikus daiteke (ustiategiko buruak 50 urte baino gehiago dituenen hasten da) nekazaritzako lanak bertan behera uzten dituen prozesu baten hasiera baita. Izan ere, gazteek nekazaritzako lurzoruaren aprobetxamenduaren beste ikuspegia dute, eta kezka sozial zein ekonomiko desberdinak dituzte; azken batean, hiriko balioak eta bizimoduak hartzen baitituzte beraiantzat. (Collantes, 2009)

Azken finean, nekazariaren seme-alaben erreferentzia-jarraibideak, bizimodua, harremanak zein balioak erabat hiritarrak dira, eta komunikabideek horretan lagundu dute. Nahiz eta, baserriko bizi-baldintzak hiriko etxe bizitzakoen parekoak izan, familia-esplotazioaren lanarekin jarraitzea erabakitzen duen gazteak badaki ezkongabe geratzeko aukera askoz gehiago dituela beste lanbide bat aukeratzen duten lankideek baino. Bereziki, hiriko emakumeak nekez konbentzitu baitituzte hiria utzi eta bertan bizitzeko. Hala ere, emakumeak landa girokoak badira gehienetan hiri mailako lana dute herrian bertan edo hirian bertan. Horregatik, ezkontzen den nekazariak badaki emazteak ez duela nekazal lanak egingo, eta horrekin baserriaren oinarrietako ohitura hautsi egiten da (nekazaritza familiar lana). (Collantes, 2009)

Aurreko guztia gutxi balitz, esan bezala, nekazaritza-lanak berez ez du erakargarritasunik gazte gehienentzat. Modernizazioak teknologia hobekuntzak ekarri dituen arren, zelaian lana egitea gogorra da oraindik. Are okerrago, nekazaritzako ordutegia askotan bateraezina da, gainerako sektore ekonomikoetako langileek duten aisialdi eta opor-denborarekin konparatu ezker. Bestalde, sari ekonomikoa ere ez da



ona; izan ere, errentak urriak dira ustiategiari dedikatzen dioten ordu kopuruekin konparatuz gero. (Collantes, 2009)

Dena dela, familia barruan nekazaritza funtzioak ez berritzeak sistemaren egitura osoari eragiten dio. Nekazaritza eta abeltzaintza funtzioek prozesu baten aurrean aurkitzen dira, azkenean, jarduerak bertan behera uztea eragiten die. Prozesu hori hainbat etapatan gauzatzen da: jarduerak berritu gabe eta ustiategian hobekuntzarik egin gabe, baztertze ekonomiko baten aurrean ikusten dira. Hain zuzen ere, atzerakada prozesu batean. Horrez gain, lurzoruen energia-ahalmena galtzera igarotzen hasten da; batik bat, lurzoru-gabeziako egoeratik, lurrak uzteko egoerara igarotzen baitira. Belardi landugabeak agertzen hasten dira, paisaia eta aniztasuna pobretzea eragiten du nolobait sastrakaren inbasioari lekua emanez. (Collantes, 2009)

Horrekin batera, nekazaritzako lurzoru erabilgarria pixkanaka murrizten doa. Ustiategi gehienek aurre egin behar diote prozesu horri, baina guztien artean eragin handiena jasaten dutenak lanaldi partzialeko nekazariak dira. Batez ere, hurrengo belaunaldia iristean nekazaritza-eginkizunen behin betiko uztea gauzatu baitzuen. Ikusten den bezala, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak bertan behera uzteko prozesuaren intentsitatea dela eta, ez gara berrikuntzaz, berregituraketaz edo birmoldaketaz ari, ingurune horren benetako suntsitzeaz baizik. Azken batean, baserriko nekazaritza-sistema haustearen eragile nagusia eskulan aktiboaren eza baita. (Collantes, 2009)

Modu berean, egoera hori eragiten duen arrazoi nagusietako bat landa-lurzoruaren prezioan du eragina; izan ere, lurzoru horren balioa nekazaritza-ahalmenaren arabera finkatuta egon beharren, hirigintza-aukeren arabera arautzen baita. Lurzoruaren prezio altuak, era berean, ezinezkoa egiten du sektorean garapen eta hobekuntza politikak abian jartzea. Ondorioz, lurra eskuratzeko dauden oztopoen arrazoiengatik, biztanleria aktiboa sartzea zailtzen da. Era berean, nekazaritza-eremua etengabe murriztearen ondorioz, enplegua pixkanaka galtzen da. (Collantes, 2009)

Horrez gain, nekazaritzako handizkarien alokairuek ez dute onurarik ekartzen, batez ere, ez baitira nekazaritza preziotan saltzen edo alokatzen. Gainera, ahozko akordioz egiteaz gain, berme juridikorik gabe egiten dituzte. Egoera horrek, hainbat arazo ekartzen die. Adibide gisa; segurtasun falta dugu inbertsio berriak egiterako garaian. Jabeak, bere aldetik, lurrak ahalik eta libreki eduki nahi dituzte une egokian saldu edo seme-alabei eskualdatzeko. (Collantes, 2009)

Hiriak nekazaritza lurzoruaren prezioan duen eragina nabarmena izateaz gain, lan eskaintza ere nekazari zein abeltzaintzen jardueren bertan behera uztearen bestelako arrazoia da. Bereziki, nekazaritza jarduera ezin baita bestelako jarduera ekonomiko batekin konparatu; izan ere, besteek denbora libre eskaintzeaz gain, ez da beharrezkoa ez ahalegin fisikorik ezta inbertsio ekonomikorik. Gainera, Euskal baserrian bultzatzen den ekoizpen-ereduak familiaren biziraupena ziurtatzen duen soldata bermatzen du eta ez enpresa-jarduera baten berezko onurak. (Collantes, 2009)

Beraz, ondoriozta daiteke, Euskal baserriaren agertoki berriaren aurrean aurkitzen da; batez ere, gazte aktibo eta ustiapenen galera progresiboaren arrazoiengatik. Hala, nekazari kopurua nabarmen murrizten da eta horrez gain, bi tipologia ezberdinen aurrean aurkitzen gara; profesionalak eta aisialdiko nekazariak. Alde batetik, jarduerarekin jarraitzea erabakitzen duten nekazariak ditugu -lanaldi osoa-, estrategia produktibo baten eskutik. Are gehiago, horietako askok soldatapeko eskulana erabiliko



dute pixkanaka familiaren laguntza ordezkatzeko. Bestetik, lanaldi partzialeko nekazaritza azaltzen da bestelako modalitate moduan, hain zuzen ere, produktibitate eta dedikazio-maila askoz txikiagoarekin.

Hala eta guztiz ere, landa-eremu horien portaera kontuan hartuta egiaztatu da urte luzez biztanleria kanporatzen jardun ondoren, azken urteetan nolabaiteko egonkortzea gertatu da; baita biztanleriaren nolabaiteko erakarpena ere. Are gehiago, landa-garapeneko hainbat programa aplikatzearen ondorioz, emaitza positiboak ematen hasi baita (EAEko Landa Garapen Iraunkorreko Planean (LGIP) 2000-2006).

#### 4.4. Gazteen egoera

Ikusi den moduan, gaur egungo kulturarekin konparatu ezkerro, salto sakona dago. Nabarmen landa ekonomian eman zen. Lehen, landa-eremuetako ekonomia dibertsifikatua zegoen eta ekoizten zena norberaren kontsumorako eta inguruko azoketan saltzeko izaten zen; baina emigrazioaren kausaz, lursailak abandonatu egin ziren, nekazaritza teknifikatu, laborantza tradizionalak alde batera utzi eta ustiapen ekonomikorako erabiltzen hasi ziren, eta ez biziraupenerako. Halaber, kulturaren aldetik, arazoak beste modu batera bideratzen dira. Landako ikuspegi tradizionaletik, soziabilitatea ahaidetasunarekin, komunitateko kide izatearekin eta orientazio solidarioarekin lotuta zegoen; orain ordea, biztanleek lotura sozialak askatzen ditu, lotura komunitarioak galtzen dituzte eta giro indibidualista eta gizatasunik gabekoa sortzen da.

Lehen esan bezala, eraldaketa horretan hutsune kulturala gertatzen da, ohiturak bertan behera uztearekin batera, bizitza soziala sekularizatzen da eta erritu tradizionalak bertan behera uzten dira. Hain zuzen ere, talde berezien aniztasunetik eta identitatetik, uniformetasunera eta indibidualismora pasatu baikara, hiri-ingurunearen berezko modernitatearen erakartasunarengatik. Hala ere, hasieran aipatu bezala fenomeno berria sortzen ari da, landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko emigrazio-prozesuari buelta ematea planteatzen ari da. Itxura denez, hirigune handi elkartuak, desekonomiak eta bizi-kalitatearen galera eragiten du, eguneroko bizitza sakonki degradatuz. Halaber, lehen hirian bakarrik zeuden zerbitzuak eta landa-udalerrietara zabaltzeak, natura-inguruneari balioa ematen dio; horrela, landa-ingurunekeo bizitza erakarriz. Komunikabideen hedapenak eta garraio pribatuaren orokortzeak, aldi berean, komunikazio-maila batzuk sortzen ditu; batez ere, mugikortasunak landa-exodoa ordeztzen baitu. Hare gehiagoa, egungo landa eremura itzultzearen arrazoietakoa batzuk ekologia, aire garbia eta identitatean datza. (Collantes, 2005)

Era berean, gazteek aldaketa honetan izan duten papera garrantzitsua ikusi arren, gure etorkizuna berain menpe dagoela azpimarratu behar da. Horregatik, nekazari gazteak nekazaritza-jardueran sartzea landa politiken eta Euskal Administrazioako erronka nagusietakoa da. Dena den, hezkuntzak gazteengan izan duen inpaktua bereizi behar da. Horrekin batera dakar, egun, gazte ekintzaileen interes falta; are gehiago, interesdunek berain ideiak aurrera eramateko dituzten arazo handiak. Azken finean, nekazaritza bizitzeko modu edo ohitura baita. Egun, kultura arkaiko hori mantendu ez arren, ohitura asko berriz berpizten ari dira. Hona hemen, prozesu berri honen hasiera, baina oraindik lan asko egin behar da erreleboari buelta eman ahal izateko. (Ramírez, 2007)



Hala ere, orain arte nekazari gazteak instalatzeko neurriaren portaerak oso garapen desberdina izan du Euskal Herrian, eta sarrera berrien kopurua aurreikusitakoa baino pixka bat txikiagoa izan da. Laguntza horien lehentasunen helburua, euskal nekazaritzaren gaztetzea da; hala nola, nekazaritza-ustiategien titularren belaunaldi-ordezkapena ahalbidetuz. Hori horrela izan arren, hainbat oztoporen aurrean aurkitzen dira. Aurreko orrialdeetan aipatu den bezala, luraren sarbidea da arazo handiena, batez ere, erosi edo alokatu nahi denean (inbertsio altua). Horrekin batera, makinaria zein abereek erosteko ekar ditzakeen kostuak gehitu behar zaizkio. Bestalde, kaletarra izateagatik erakundeek ezarritako oztopoak aurki ditzakegu, hain zuzen ere, diru laguntzak jaso ahal izateko baserritarren seme-alaba izatea edo lurrak eskuragarri izatea bermatzen dute. Horren kausaz, kaletar gazteari baserritar izatearen aukera kentzen zaio eta agian beraiak izan daitezke berezko jarraipenik ez duten baserrien etorkizuna. (Ramírez, 2007)

Hori dela eta, hurrengo orrialdeetan, egun, baserritar izan nahi duen edonork aurki dezakeen arazo eta erronkak azalduko dira; ahal izanez gero, arazo honi konponbideak bilatzeko.

Aipatu bezala, aurkitzen diren lehenengo erronka lurra topatzea edo eskuratzean datza. Izan ere, orografia eta lur eskaria nabaria da; batik bat, industriak irentsi baitzuen geratzen ziren lur asko. Areago, jarraitasunik ez duten nekazariak, nahiz eta, berain nekazaritza erabilera mantendu nahi duten ez dute inolako akordiorik egin nahi haien oinordetza edo erabilera mugatu dezakeenik. (Collantes, 2005)

Hala ere, bilatu ezkerreko bigarren erronkaren aurrean aurkitzen dira. Hain zuzen ere, laguntzekin lotutako informazio-iturriak aurkitzearen eskasia. Lehen esan bezala, lurra erosi edo alokatzearen prezio altuek diru laguntza eskatzearen beharrean aurkitzen baitira. Besteak beste, **lehen instalaziorako diru-laguntzen eskaera**; baina hainbat baldintza bete behar dira lortzeko. Hona hemen, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2015-2020 Landa Garapen Programak ezarritako betebeharrak:

-Nekazari aktiboa izatea

-40 urte baino gutxiago izatea

-Eskaera egiteko unean hektarea onargarriak izatea, landa-garapeneko programa baten eremuan lehen instalazioko laguntza ematearen aldeko espedientea edukitzea.

-Nekazaritza-ustiategi batean lehen aldiz instalatzea ustiategiaren arduradun gisa, edo eskaera aurkeztu baino aurreko bost urteetan ustiategi horretan instalatuta egotea, oinarrizko ordainketa-erregimenaren babesean.

Aldeko espedientea edukitzeari buruz hitz egiten dugunean, ustiategiaren bideragarritasuna bermatzeko gazteek enpresa-plana aurkeztu behar izan ohi dute. Hona hemen bigarren erronkaren zailtasunik handiena. Izan ere, enpresa plan horretan nekazaritza-ustiategiaren hasierako egoera bere jarduera definitzeaz gain, garatzeko faseak eta helburuak zehaztu behar dituzte; besteak beste, inbertsioak zein gastuak aurreikusi – prestakuntza, aholkularitza- behar dituzte. Horrez gain, diru laguntzekin lortutako diru kantitatea puntuazio mailaren arabera datza. Behin onarturik, diruaren bi herenak jasotzen dute eta falta dena espedientea ziurtatzen dutenean. Horregatik, lehenengo urteetan lan etekinak lortu behar dituzte, lortutako bi herenak jadanik



gastatuta egongo baitira. (Blanco, 2017) (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, 2015)

Hau dena ikusirik, sektoreak gazteengan duen erakartasuna gutxi izango balitz, administrazio aldetik negozio berria martxan jartzearen zailtasunak gehitu behar zaizkio. Horregatik, bestelako planteamendu batzuk hartu beharko litzateke oinarri gisa. Frantzia adibide hartuz, nekazaritza eskolan dagoen gazteak nekazaritza-ustiategiaren lana eta honen funtzionamenduaren errealitatera hurbiltzeko asmoz, erroldatze laguntza ezartzen dira. Gazteak bere kabuz sektore honekiko duen interesa balioztatu ahal izateko, lur zail aktibo batean 6 hilabetez ordaindutako praktikak egitean datza. Gizarteratzeko beka izango litzateke; hau da, onuradunak laguntza-lanak egingo ditu eta ustiategiko titularra bere zuzendaria izango da. Programa honen bitartez, ustiatagia utzi nahi duen nekazaria eta nekazaritzatik bizi nahi duen gaztearen arteko harremanean datza. Gainera, instalazioa erabaki ondoren, gazteak titularraren ordezkari gisa instalazio progresiboa erabil dezake, edo titularrarekin elkartze-formula bat osatu. Bien bitartean, titularrak, bai ordezkariaren kasuan, bai elkartze-formularen kasuan, ustiapena eskualdatzeko laguntza administratiboa jasotzen du. Laguntza hori aurre-erretiroaren ondorio da, eta eskualdatutako hektareen kopuruaren arabera 75.000€ira irits daiteke. Honela, erreleboa ziurtatu eta aktibo dauden ustiapenak lortzeaz gain, gazte aktiboari bertan txertatzen laguntzen diogu; prestakuntza, praktika eta laguntza-ekintzak konbinatuz. (Blanco, 2018) (Collantes, 2005)

#### 4.5. Generoa

Gazteen artean generoak duen garrantzia ere azpimarratu behar da. Tradizioaren ondorioz, sektorea gizonetara dagoela ikusi arren (emakumeek parte hartzen duten arren ez da berain lana baloratzen), emakumeen papera garrantzitsua da. Munduko biztanleriaren herena baino gehiago emakume landatarrek osatzen dute. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, nekazaritzako eskulanaren %43 da; gainera, elikadura segurtasuna bermatzeaz gain, klima aldaketaren aurka borrokatzen laguntzen dute. Hala ere, NBEk, emakume horiek jasaten duten diskriminazioa salatzen du, beren lana ikusezina izateaz gain, askotan ordainsaririk gabe egiten baitute lan. Arau orokor gisa, landatar emakumeak, gizon nekazariak zein hiriguneetan bizi diren emakumeak baino baldintza okerragotan daude. Adibide gisa, LEADER programak egindako inkesta baten arabera, artisau gaztandegi sektorean lan egiten dutenen artean, galdetutako 71 gartzetatik, 44tan gizonetara dira titularrak eta 27tik emakume bakarrik; baina 44 horietatik, 28 emakumeek egiten dute gazta; hau da, gaztandegien %77,5 emakumeak dira. Horrez gain, emakumea izateagatik diskriminazio bikoitza jasaten dute; batez ere, nekazaritza eta abeltzaintza-ustiategietan titulartasun partekatua lortzeko dituzten zailtasunengatik. Kooperatibetako erabaki-organoetan duten parte-hartzea eskasa da eta, jakina, seme-alabatik gizonen lurrak eta ondasunak transmititzeko tradizioa dago. Hori gutxi izango balitz, etxeko lanak emakumearen eginbeharrak direla dirudi eta ez da hala, gizonena ere bada. Horregatik, gazteek ikusten duten karga-pilaketa hori (etxeko lanak) beren etorkizuna hiri-inguruneetan bilatzen dute eta hori saihestu behar dugu. Hala ere, burokratikoak diren arazoak ikusteko eta konponbideak azaltzeko, nekazaritza, arrantza, elikadura eta ingurumen ministerioak (MAPAMA), landa ingurunearen berrikuntza eta modernizaziorako zuzendariordetza nagusiaren eta landa sare nazionalaren bidez, prestakuntza-jardunaldi batzuk abiarazi dituzte. Baina ez da



nahikoa, lan handia dago oraindik landa munduan berdintasuna lortzeko. (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, 2018)

#### 4.6.Ondorioak

Gai honi buruzko ondorio gisa eta gazte planari kritika egiten, Etxaldeko Emakumeak dioten bezala: “Diruak ezin du lurra edukitzeko edo elikagaiak ekoizteko eragozpena izaten jarraitu”. Nekazaritzan diharduten dutenek ere bestelako lanbidetako soldata bera eskaini behar zaie. Horregatik, egun, dauden laguntzen eta diru-laguntzen banaketan aldaketa sakona behar du. Izan ere, elikadura osasuntsua izateko eskubideak unibertsala izan beharko luke, eta horretarako, beste sektore batzuekiko aliantzak behar dira, politika publiko zehatzak bultzatuz. Hori dela eta, hiru alderdi nagusi bultzatu beharko litzateke: politika publikoak, proiektu kolektiboak eta proiektu individualak, beti ere, ikuspegi feministak ere bultzatuz. Hau da, makro ereduak zein menpekotasun harremanak alde batera utzi beharko litzateke. (Etxaldeko emakumeak, 2015)

Hau guztia ulerterrazago izan dadin, Etxaldeko emakumeek idatzitako gogoeta [“Elikadura burujabetza eta feminismoa eskutik”](#) irakurtzea gomendatzen dut. (Etxaldeko emakumeak, 2015)

Ildo horretatik, Uztaro kooperatiban egiten duten lana nabarmendu behar da. 2017tik kooperatiba martxan egon ez arren, egun, proiektu horren jarraipena, Beizaman, Aleka proiektua dugu. Eredu autogestioa erabiltzen dute, honela, aukera ematen die edozein diru-laguntza mota alde batera uzteko. Izan ere, diru laguntza horiek, nekazaritza sektorearen eta baserritarren menpekotasuna bihurtzen da. Halaber, kolektiboari dei egiten dio finantza-subiranotasuneko beharrezkoak diren ekintza kolektiboak abian jartzeko. (Uztaro, 2013) (Aleka, 2019)





## V.Atala: Erronken posizionamendua

Aurreko atalean makro-faktorearen barnean ingurune orokorreko eta bereziko faktoreak aztertu ondoren tresna honekin bertako faktore positibo, negatibo zein puntu sendoak eta ahulen zerrenda aztertuko da; aukera eta mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak deiturikoak. (Welch, 2014)

### 5.1.Aukerak

Hurrengo mendeetan nekazaritza sektorea hainbat faktoreengatik kalteturik ikusiko da. Horietako asko berezko nekazaritza jarduerarekin zerikusirik ez dutenak. Horrek, aukera asko ekarri ditzake egoera horretaz aprobetxatu nahi duten herrialdeentzako. Zentzu horretan, elikagaien eskari hazkorra, eskari berrien agerpena, kontsumitzaileen lehenetsun berriak eta Espainiako nekazaritza sektoreko merkataritzak aukerak ekarriko ditu. Testuinguru horretan, kontsumitzaileek elikagaien segurtasuna, osasuna eta ingurumenarekiko errespetuaren alderdiko gaien garrantzia emango zaio; honela, kalitatezko sektorea eskaintzeko aukera izango du. Euskal Herriak, ospe irudia ematen du kalitatezko produktu zein gastronomia aldetik. Honekin batera, geroz eta kontzientziaturik gaude aldaketa klimatikoa, ingurumena eta osasunarekin. Hori dela eta, geroz eta gehiago kontsumitzen dira produktu ekologikoak zein kalitatekoak; honela, nekazaritza ekologikoarentzat aukera bikaina izanik. Aukera hau aprobetxatuz, lanpostu berrien agerpena ekarriko du. Hala nola, produkzioa, transformazioa zein komertzializazio sektorean. Honez gain, produktu lokalak kontsumitzeko sentsibilitatea geroz eta handiago izango da.

Bestalde, teknologiaren aurrerakuntzak, produktibitatea, efizientzia eta lehiakortasuna hobetzearen aukera ekarriko du. Halaber, nekazaritzari ekar ditzakeen ondorioz gain, aurrerakuntza hauek I+G+I jardueraren hazkuntza ekarriko du. Besteak beste, produktu berriak sortuko dira eta ideia zein aplikazio berriak eskainiko dira. Are gehiago, komertzializazio mota berriak ere ekarriko ditu (Internet, kontsumo taldeak etab )

Berriz, teknologiak ere gazte formatuei erakarri ditzake. Esaterako, emakume aktiboen parte hartzean erraztasuna emanez. Gainera, Europar Batasunak nekazaritza gazte zein emakumeei laguntza emanez diru laguntza gehiago eskaintzen ditu.

### 5.2.Mehatxuak

Hurrengo urteetan nekazaritza sektorea kanpoko faktoreengatik hainbat mehatxuren aurrean aurkituko da. Arazo horiek ongi erasotzen ez baditu nekazaritzako etorkizunaren bilakaeran eragin handia izango du.

Alde batetik, nekazaritza I+G eskasia eta ikerketaren joera beharokorraren ondorioz, nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna mehatxatu dezakete, beste ekonomia batzuen alde. Gainera, elikagaien eskari altuak eta teknologiaren aurrerapenaren ondorioz, bestelako merkatu lehiatzaile internazionalen sarrera erakarriko du. Alegia, baliabideen eta aldaketa klimatikoaren eskariarengatik, nazioarteko prezioen oszilazio handiagoa ekarriko du, eta nekazariak prezio ezarpenean ahalmen txikiagoa edukiko du.

Bestetik, kontsumitzailea geroz eta zorrotzagoak izatean, moda eta iritsi korrante desberdinengandik eraginda egongo da. Horrek, ekoizlearengan eragin zuzena izango du. Izan ere, ekoizpena moldatzeaz gain, kontsumitzaileen zein bestelako agenteen



beharrei erantzun beharko die (banaketa eta merkaturatzea). Bereziki, agente hauek inposatutako lehengaien murrizketak, plaga zein gaixotasun berriak ekarriko ditu; besteak beste, berrikuntza nahikorik izan gabe eta marko arautzaile egokirik gabe izurrien erresistentziak eta laborantzarako gaixotasunak handituko dira.

Ez hori bakarrik, aldaketa klimatikoa eta baliabideen eskasien eraginagatik laborantzaren lehiakortasunean eragina izango du. Tenperaturaren hazkuntza, lehortekak, ekaitzak zein airearen kontaminazioak nekazaritzaren jardueran epe motz ertainean eragingo duen.

### 5.3. Indarguneak

Espainia posizio pribilegiatu du nekazaritzari dagokionez; izan ere, populazioaren elikadura beharrak asetzeaz gain, merkatu internazionalekin konpetitzeko gai da. Horrekin batera, nekazaritza jarduerako baldintza klimatologiko onekin kontaktzen du, eta ondorioz, hainbat laborantza ekoiztea baimentzen du. Horrek, lehiakideen artean lehiakorragoa izateko abantaila dakar. Neurri handi batean, aurreko arrazoiengatik, Espainia, nekazaritza jardueran Europa Batasuneko herrialderik nabarmenena dela esan daiteke. Modu berean, nekazaritza azalera, ekoizpena, lanpostu eta laborantza aniztasun handiena duen herrialdea da. Gainera, EBak jarritako araudi zorrotza eta kalitatezko kontrolen ondorioz, nekazaritza ekoizpena eta, bereziki, Euskal herriko kalitate eta segurtasunak estandar handiarekin kontaktzen du.

### 5.4. Ahuleziak

Aurreko indar-guneen aurrean, hainbat faktore daude negatiboki eragin dezaketenak etorkizunean. Alde batetik, enpresa-egiturari dagokionez, atomizaturik eta agenteen artean koordinazio falta dagoena ikus daiteke. Honela, teknologia eta garapen berriak lortzeko zailtasunez gain, lehiakortasuna zein negozioazio boterea galtzen da. Finantzazioa aldetik, oraindik NPBaren laguntzen menpekotasun handia dago eta bestelako finantzazioen falta ere. Ahulezia hori, zehazki NPBaren etorkizuna eta Brexitak izango duen eraginaren ondorioz dator. Bestelako aspektu kezagarria nekazaritzako enplegua da. Ustiapenen zati handia pertsona bakarrekoak izateaz gain, jabea adin aurreratua izan ohi du. Horrek, belaunaldia ordezkatzeko arazoa dakar; besteak beste, ustiapen askoren jarraitasuna arriskuan jarritz. Arazo hau, batez ere, sektoreak duen erakargarritasun faltarengatik dator; zehazki, langile gazte eta gaituak erakartzeko indarrak ez baitu sektoreak. Batik bat, sozialki gutxi baloratutako lanpostua baita.

Nabarmendu beharra dago ere, sektoreko ikerketa eta garapeneko inbertsio falta handia da; batez ere, kalitatean, kantitatean eta ekoizpenaren errentagarritasunean bereziko negatibotasuna dakar. Zeren, inbertsio faltaren ondorioz, sektoreak dituen hainbat arazo konpontzeko aukera galtzeaz gain, etorkizuneko produktibitatea ere galtzen du. Gainera, nekazariak ekoizpenarekin zerikusia duten hainbat aspektuen (elikagai segurtasuna) kostu altuei aurre egin behar die. Azkenengo arazo horrek, legearen konplexutasuna eta kostu altuen ondorioz, sektoreari lehiakortasuna murrizten dio; batik bat, nazioarteko kompetentzia geroz eta nabarmenago delako. Horrez gain, gazteen interes falta eta horrekin batera errelebo falta gehitu behar zaio. Hare gehiago, lanean zehar azaldu den arazo nagusia ere garrantzi handia izango du. Lurrak prezio altua dute eta beraz, gobernuak zeregin handia izango du honi aurre egiten.

**Taula 18: Amiaren laburpena**

	<b>AUKERAK</b>	<b>MEHATXUAK</b>
Ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elikagaien eskari globalaren hazkuntza</li> <li>• Sozietatea produktu berrietara irekita</li> <li>• Kalitatezko produktuen lehentasuna</li> <li>• Produktibitatea hobetzen duten teknologia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehia galera I+G+I faltarengatik</li> <li>• Lehiakide berrien sarrera</li> <li>• Nazioarteko prezioen oszilazioa eta prezioak jartzeko ahalmen galera</li> <li>• Finantzazio eza</li> <li>• Kontsumitzaile zorrotzagoak</li> </ul>
Soziala	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enplegua sortzeko ahalmena</li> <li>• Prestakuntza maila altua duten gazteak</li> <li>• Goi mailako prestakuntza duten emakumeak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalen adin aurreratu</li> <li>• Belaunaldia ordezkatzeko arazoa</li> </ul>
Ingurumena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontsumitzaileak ekoizpena eta ingurumenarekin arduratsuagoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tenperaturaren igoera</li> <li>• Lurzoruaren desertifikazioa</li> <li>• Uholdeak eta lehorteak</li> <li>• Plaga eta gaixotasunen hazkuntza</li> </ul>
	<b>INDARGUNEAK</b>	<b>AHULEZIAK</b>
Ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore ekonomikoki garrantzia</li> <li>• Dibertsifikatutako ekoizpena</li> <li>• Ahalmen esportatzailea</li> <li>• Kokapen estrategikoa</li> <li>• Kalitate estandar handikoa</li> <li>• Elikagaien sektore sendoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa-egitura atomizatua eta koordinazio gutxi</li> <li>• Profesionaltasun gutxi</li> <li>• NPB dependentzia altua</li> <li>• Bestelako finantza iturri gutxi</li> <li>• I+G+I esfortzu txikia</li> <li>• Produkzio kostu altuak</li> <li>• Lurren prezio altua</li> </ul>
Soziala	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esperientzia duten nekazariak</li> <li>• Krisi ekonomikoak eragin gutxi</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sozialki gutxi baloratutako lanpostua</li> <li>• Nekazarien formakuntza maila baxua</li> <li>• Lurzoruaren sarrera arazoak</li> <li>• Langileen edade aurreratua</li> <li>• Emakumeen presentzia txikia</li> </ul>
Ingurumena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Klima egokia</li> <li>• Uraren erabilpenaren ezagutzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia berriztatzaileen erabilera txikia</li> <li>• Lehortasun maila altuak</li> </ul>



## VI:Atala: Lan enpirikoa

Lanaren bigarren zati honetan, teorian ikusitako hainbat ideia hurbiltasunetik jasotzeko asmoarekin sektorearekin zer ikusia duten hainbat langile zein adituei elkarrizketak egin dizkiet. Horrez gain, sektorean ikusten dituzten erronkei buruzko iritzia ere eskatu dizkiet. Horretarako, hainbat profileko pertsonekin elkartu naiz.

Hasiera batean, Eduardo Malagon, EHUko irakaslea, lehen sektoreko NPBan aditua da, eta ikerketan azaldutako hainbat zalantza argitzeko bere jakintza interesgarria da.

Jarraian, Jesus Calvillo, Zizurkilgo Fraisoroko Nekazal Eskolako irakaslea, biologia zientzietan lizentziatua da. Gainera, duela gutxi arte (irailean utzi zuen kargua) Gipuzkoako Gaztenek programaren koordinatzailea izan da. Berarentzat hezkuntza funtsezko jarduera izateaz gain bere bokazioa da. Elikagaien ekoizpenarekin lotutako guztiak erakartzen dio eta biak uztartzea lanbide interesgarriena dela adierazten du. Elkarrizketa honen bitartez, sektoreko ikasleen profila eta beste hainbat datu interesgarri erakutsiko ditu.

Bestalde, hainbat profileko baserritarrei egin diet elkarrizketa.

Lehenik, Eustakio dugu; baratzen jarduten da eta bere barazkiak eskualdeko denda eta supermerkatuetan topa daitezke, beti ere, kalitatezko zigilupean. Izan ere, ENBA (Euskadiko baserritar profesionalen elkarte)ren parte den baserrietako bat da. Lehen urratsak bere gurasoei laguntzen hasi zen. Hasiera batean fabrikan egiten baitzuen lan. Oinordetza modura gurasoen ustiapenak bereak hartu eta gaur egun Baso Beltz bezala ezaguna den baserria berea da.

*“Fabrika ustearen arrazoia ingurumenarekin lanean jarduteak eta gizartearentzat bertako produktu freskoak, kalitatekoak eta osasungarriak ekoizteak motibatzen nau”.*

Hala ere, bidea ez da erraza izan, batez ere, burokrazia eta gizartearen ingurunearekiko ulermen ezarekin topatu baita. Baina denborarekin, bizitzeko adina emateaz gain bost pertsona ditu berarekin lanean, bere gurasoak eta bi langile kontrataturik.

Bigarrenik, Mikel Eizagirre dugu; duela 5 urte hasi zen nekazari lanetan. Elektromekanikako ikasketak amaitu eta bestelako lan mota batzuk probatu ondoren, bere kabuz lanean ibili nahi zuen.

*“Baserrian bizi naizenez eta lurrak ditudanez aukera polita iruditu zitzaidan”.*

Autokontsumorako eta lan alternatiba gisa erabiltzen du. Gainera, lan honetan hastearren bestelako arrazoiak bat produktuen kalitatea eta ekologia izan da. Hala ere, hainbat kontraesanekin aurkitu da bidean. Gurmendi baserria, Lurreko bizia izenarekin ezaguna den bertako negozio lokala da, Zarautzen kokatua, ekoizpen agroekologikoan espezializatuak. Negozio honen helburua, jendeak bertako produktu ekologikoak sustatu eta dastatzear datza. Zarauzko merkatu plazan aurkitzeaz gain, etxeetara otarren banaketa egiten dute. Merkatuko plazan astelehenean larunbatera aurkitu dezakegu, baina, interesgarriena, otarren banaketa da, hain zuzen ere, otarren banaketarako kontsumo taldea osatu dute hurrengo baldintzekin. Hilabeteko harpidetza ordainduz, astean behin otarra jasoko dute, zehazki, astearte arratsaldero Zarautzen bezeroaren kokagunean.



Bestalde, Maialen Mancisidor dugu; Santa klara baserrian egiten du lan. Duela bost urte bere aita hil zenean, ustiapenak bere amaren eskuetan geratu ziren; horren ostean, 2020ko otsailean berak hartu du ustiapenaren ardura, alokairu gisa. (10 urtekoa Gaztenek proiektuaren laguntzarekin).

*“Nik uste baserriak duen bizimodu alternatiboa dela gustatzen zaidana. Beste erritmo batzuk ditugu. Egunero egiten da lan, baina kanpoko lanak eta animaliekiko dugun loturak gustuko ditut”*

Esne eta haragi ekoizlea da Mailen. Esne hori Kaikuk erosten dio, izan ere, bere aita, kaiku, garai bateko Iparlateko sortzailetakoa bat izan zen. Haragia aldiz, Zestoako Urkaikok erosten dio, orain Harakai izenarekin. Bestalde, bi entitate hauek egiten dute bai elaborazioa eta bai komertzializazio lanak. Hala ere, inguruko jatetxe eta partikular batzuek ere erosten die esnea, baita bere nekazal-etxeko bezeroek ere.

Gainera, dagoeneko langile bat du bere kargu. Era berean, belar lanetarako kanpoko laguntza du, hain zuzen ere, auzoko baten laguntza du; horrez gain, etxeko laguntza ere badu.

Baserritar hauek, negozio antzekoa izan arren, merkaturatze eta lan egiteko metodoa edo ikuspuntu desberdinak dituzte. Hori dela eta, sektorearen egoerari buruzko hausnarketa ezberdina emateko interesgarria da berain iritzia jakitea.

Azkenik, Andoni Osa, Fraisoroko eskolako irakasle ohia da. Hainbat ziklo ikasi ditu; hain zuzen ere, nekazaritza, abeltzaintza eta baso kudeaketa. Ikasketa horiek burutzearen arrazoia, aire librean lan egitearengatik izan da, batez ere, basoan.

Elkarrizketa horren bitartez, Jesusek eskainitako hainbat datuekin batera kontrastatu genezake, honela, bi ikuspuntu desberdinak kontuan izanik ikasle eta irakasle.



Taula 19. Elkarrizketen fitxa teknikoa

ELKARRIZKETATUA	LANBIDEA	LEKUA	IRAUPENA	HELBURUA
<b>Eduardo Malagon</b>	UPV/EHU ko irakaslea	Unibertsitatean	50 min	NPB eta lehen sektorean aditua denez bere iritzia ezagutu.
<b>Eustakio Aristi</b>	Nekazaria, sagarrondo ekologikoak eta barazki biologikoak ekoizten ditu	Baso Beltz baserria	2h	Bere bizi-estiloa ezagutu
<b>Mikel Eizagirre</b>	Nekazaria, garaiko barazki ekologikoak ekoizten ditu	Gurmendi baserria	1h40min	Bere bizi-estiloa ezagutu
<b>Andoni Osa</b>	Ikaslea		20 min	Ikasitakoari buruzko esperientzia jakin.
<b>Jesus Calvillo</b>	Fraisoro eskolako irakaslea eta Gipuzkoako Gaztenek programaren koordinatzaile ohia (irailean kargua utzi zuen).	Online bidalitako galderak	-	Ikasle profila ezagutu eta gaiari buruz duen iritzia ezagutu
<b>Maialen Mancisidor</b>	Behi esne eta haragi ekoizlea	Online bidalitako galderak	-	Bere bizi-estiloa ezagutu



## 6.1. Nekazaritza Politika Bateratua

Lanean zehar hainbat aldiz azaldu da sektoreak NPBren gain duen menpekotasun handia; batik bat, finantzazioaren ikuspuntutik. Europako bizi maila duina eskaini eta nekazariak dituzten hainbat funtziotan aritzeko helburu duen arren benetan honela aritzen al da? Ikusi den moduan politika honek urteen poderioz hainbat moldaketa izan ditu, eta gaur egun, erreforma berrien adostea martxan daude. Adostasun horiek berebiziko garrantzia izango du gure etorkizunerako; izan ere, Brexitaren eraginarengatik erreformaren edukia aldatuko dute. Zehazki, politika honen aurrekontuaren murrizpena ekarriko duelarik.

Honi kontrastatzeko, datu zehatzago izateko eta zalantzak argitzeko aditu baten iritzia dugu; NPBan aditua da eta solasaldian hainbat datu interesgarri azaldu ditu.

*“NPB politika bakarra da nekazari sektoreari laguntzeko eta Europako autonomia bermatzeko sortu dena. Denboraren ondorioz, helburuak eta tresnak aldatu egin dira. Gainera, garatu den moduan nekazari txiki eta ertainen instalazioa edo bideragarritasunari ez die onurarik ekarri. Hala ere, politika hau existituko ez balitz, nekazari gutxiago egongo ziren; baina nekazari handiei bakarrik egiten die onura.” (1.Elkarrizketatua)*

Bestalde, nekazariak politika honen gain duten dependentziaren adibide gisa; behi haragiko abeltzainak direla aitortzen du. Izan ere, abeltzain hauek lortzen duten etekin garbia NPBarengan lortzen duten diru laguntza besterik ez da, batez ere, beste sarrera guztiek kostuak jaten baitituzte. Horregatik, NPBaren erroka nagusia nekazaritza bideragarria mantentzean datza. Horretarako, tokiko nekazaritza eta elikadura eremuak garatu behar dira. Baina horrez gain, bestelako politikak ere kontuan hartu behar direla azaltzen du. Horietako batzuk hurrengoak dira: landa eremuko politikak, aldaketa klimatikoa, justizia soziala, kalitatezko elikagaiak populazio guztiarentzat eskuragarriak izatea etab. Arazoa, eremu edo eskualdea definitzerako orduan aurkitzen da. Eta hau nola sendotu?

*“Hiriak eta inguruko landa guneen arteko harremana garatu behar da; Gipuzkoako bio-erregioan mugatu beharrean, hau da, km0tik km150 zabaldu beharko litzateke. Batez ere, jaten dugun gehiengo ingurutik etorri beharko luke (Ebroko bailarara), bai Nafarroa, bai Errioxatik. Izan ere, EH ekoizten denaren %5 bakarrik jaten baita.” (1.Elkarrizketatua)*

Ez hori bakarrik, politika honen bestelako baliabidea eskaintzen dituzten diru laguntzak dira. Hauen bitartez nekazaritzako lehia eta iraunkortasuna indartzea lortu dute zuzeneko ordainketen bitartez; honela, nekazaritza errenta egonkortzeaz gain, proiektuak finantzatzen dituzte hainbat programaren bitartez. Baina horren erraz lortzen al dira? Nekazari txikientzat nahikoak al dira?

Diru laguntzak jasotzerako garaian balditzetako bat nekazari aktiboa izatean datza. Adituen aburuz, dituzten diru sarreren ehuneko handia nekazaritzatik etorri behar du. Are gehiago, diru laguntzak jasotzerakoan lur eta eskubideak eduki behar dira, baina horrez gain, produkzioaren baitan baldintzaturik daude. Adibidez; nekazari berriak edo inbertsio egiteagatik ematen dituzten laguntzak. Hala ere, mota desberdinekoak daude; hala nola, ordainketa bakarrekoa, gourmeteko produktuengatik, mendiko nekazaritza izateagatik eta beste hainbat diru laguntza. Autonomia Erkidego ia guztia



mendiko nekazaritza kontsideratzen da. Horregatik, ustiapena edukitzeagatik bakarrik ematen die laguntza. Europar Batasunez gain, hemengo administrazio instituzioek ere ematen dituzte. Adibidez; ordainketa bakarrekoak EB ematen du, baina bigarren zutabeko diru laguntzak aldundiak edo Jaurlearitzak ematen dituzte. Lurrei dagokionez, larreak izateagatik ematen dute baina bestelako ustiapenek hektarea minimoa izan behar dute. Gainera, ustiapen berri baten aldean, ustiapen horiek lehenagotik nekazaritzan jarduten baziren errazago da lortzea. Eskubideak ere, azalerari atxikiturik daude, hori dela eta, ustiapen hori saltzeagatik arazoak izan ohi dira. Gazte batek eskubideak lortzeko ustiapena erosterakoan jasotzen dituzte, baina administrazioari ere eskatu dezake; batez ere, produkzioaren arabera. Alokairua denean, kontratuaren baitan daude eskubide horiek. Gaztea izateagatik instalatzerakoan lortzen dute diru laguntzak (inbertsioaren baitan 30.000€), baita ordainketa bakarreko prima bat ere jaso dezakete. Bestelako eztabaida, erretiraturik dauden nekazari aktiboek diru laguntzak dira; bereziki, nekazari hauek jaso ahal dezake diru laguntzarik erretiraturik egonik?. Eztabaida handia da, izan ere, honek erreleboari kaltetzeaz gain, askorentzako errenta gehigarria da.

Bestela, inguruko hiru baserritarrei galdetu diet ea laguntzarik jasotzen duten. Elkarrizketatutako batek adierazi bezala, NPBtik diru laguntza txikia jasotzen du, baina oso eskasa dela aitortzen du, kostu-irabaziei dagokionez ez da nahikoa. Lanaren espezializazioari dela eta, diru laguntza txikia ere jasotzen du; ekologikoagatik eta Label deitura babestuagatik. Bestalde, nekazaritza ofizinetatik laguntzak jaso arren, administrazio lanak ere asko direla dio.

*“Egia esan, nekazari politikak egunetik egunera okerragora doaz”.*  
*(2.Elkarrizketatua)*

(5.Elkarrizketatua) berarekin bat dator. Izan ere, politika hau gabe ezinezkoa iruditzen zaio baserritik bizitzea, baina ez da nahikoa. Batez ere, bizitzeko beraien produktuengatik gutxienez 4 aldiz gehiago ordaindu beharko luketela azaltzen du.

*“Oso oso txarrak dira. Ez dago gaur egun benetan baserritar bat babesten duen inor. Ez alderdi politikorik ezta gizarteak ere.”* (5.Elkarrizketatua)

Aldiz, beste elkarrizketatu baten iritzia guztiz kontrakoa da.

*“Politika honen diru laguntza txiki bat jasotzen dut. Horrez gain, administrazio lanak aurrera eraman ahal izateko Zarauzko OKAketik ere laguntzak jasotzen ditut. Egia esan, nahiko balorazio ona ematen diot gaur egungo nekazaritza politikei.”* (2.Elkarrizketatua)

Ondorio gisa, ikuspegi orokor batetik proiektu bideragarriak eta alde berean, kolektiboak azpimarratu behar direla. Horretarako, proiektu kolektiboen jarduerak dituzten muga fisikoak kontutan hartu behar dira, izan ere, merkatuak ez baitu laguntza ematen. Horri aurre egiteko eta sektore bideragarria bermatzeko administrazio publikoak eskaini beharko luke laguntzak. NPB planteamendua nekazaritza ikuspegi sektorial hutsa ere motza geratzen da. Lurraldearekin haratago joan beharko litzateke eta elikadurarekin zer ikusia duten aspektuak bideratu. Adibidez, Komisioak gaur egun, estrategia berria planteatu nahi du aspektu guzti horiek jorrazteko; “from farm to fork”. Planteamendua egokia izan daiteke, baina elikadura kateko prozesu guztiak jorratu beharko litzateke. Horrekin batera, ikuspegi





agroekologikoa mantentzen duten ustiapenak gaitasun gehiago eduki dezakete, bideragarritasun ekonomiko eta sozial batetik. Argi dago oraindik lan handia egin behar dela.

## 6.2. Formakuntza

Faktore sozio kulturalen barnean gazteen heziketaren arazoa azaldu da. Izan ere, lehen gazteek oinordetza moduan nekazari izatera behartuak ikusten ziren. Heziketarik gabe haste ziren nekazari lanetan, horregatik egungo nekazariak familiako ohitura eta praktikei garrantzi gehiago ematen die.

Egia da ere lehen ez zutela aukera handirik ikasketak jorrazteko. Aukera hori irakaskuntza publikoaren aurrerapenarekin eman zen. Horrekin lotuta, alfabetatze prozesuaren aurrerapena eta baita ere, euskarazko irakaskuntza publikoa zabaltzeko lehen saiakerekin (ikastolen hasiera) eman zirela. Hezkuntzako sarbidea funtsezko pieza izan zen. Lehenik, bi generoetarako derrigorrezko irakaskuntzarekin, eta gero ikasketak zabaltzearekin (unibertsitatea)

Aldiz gaur egun, edonork du derrigorrezko heziketa minimoa. Hori dela eta, gazteek bestelako lan postu batzuen bila joaten dira, lan sari duinago eskaintzen duten lanpostuak hain zuzen. Horregatik, eskari handienak duten formakuntzak bestelakoak dira baina nekazaritza ez da bertan sartzen. Batez ere, nekazaritza jarduera ezin baita bestelako jarduera ekonomiko batekin konparatu; izan ere, besteek denbora libre eskaintzeaz gain, ez da beharrezkoa ez ahalegin fisikorik ezta inbertsio ekonomikorik. Gainera, Euskal baserrian bultzatzen den ekoizpen-ereduak, familiaren biziraupena ziurtatzen duen soldata bermatzen du eta ez enpresa-jarduera baten berezko onurak

Honi aurre egiteko, lanean zehar gazte formatuen garrantzia nabarmendu da; bereziki, gazteek ekintzaile ereduak. Geroz eta indar handiago hartu arren oraindik ez da gazteen burutan sartzen, are gutxiago, lehen sektorean.

Adituen aburuz, nekazaritza eskolek duten rola nahiko eskasa da, formazio tekniko oso mugatu batean geratu baita.

*“Bertara joaten den ikasle profilak garrantzia duen arren, ez dute ekintzaile profila. Nire ikuspuntutuz, ikasle ez oso onak izaten baitira eta autoestimua baxukoak. Azkenean ez du bermatzen sektorearen giza kapital berrikuntza (epe motz eta ertaineko bideragarritasuna).” (3.Elkarrizketatua)*

Horrez gain, adituek emakumearen papera ere bereiztu nahi dute, baldintza egokiago batzuegatik apustu egiten baitute, bai profesionalki, eta baita beraien bizitza proiektua aurrera eramateko. Gainera, gizonezkoen aldean, bizitzaren ikuspegi bideragarritasun ezberdina eman dezaketela aitortzen du. Aniztasuna eta berdintasuna azken finean beharrezkoa da.

Gai hau zehaztasun handiagoarekin aztertzeke bestelako elkarrizketatua dugu.

*“Gaurkoz Fraisoro eskola 110 ikaslez osatzen dute. Nahiko daturik izan ez arren, ikasle profil nabarmena mutilak dira. Lanbide Heziketako ohiko profila, gehi interesagatik edo bokazioz hurbildu diren batzuk izan oi dira. Baserri seme edo alabaren bat edo beste oraindik ere, baina geroz eta gehiago kaletarrak dira. Gainera, oso gazteak dira gehienak horrek dakarren guztiarekin. Ikasketak oraindik oso oinarritzotzat jotzen dituzte*



*bere bilakaera profesionaletik oraindik urrun. Salbuespena goi mailako zikloa da, bertan adineko jendea sartzen ari baita, nabarmen nagusiago eta helduago.” (3.Elkarrizketatua)*

Aukeratzen duten formazioari dagokionez:

*“Baso ustiapena eta inguru naturalen zikloa beti beteta daukagu. Lorazaintzan ere eskaera dezente dago, baina zentro gehiagotan eskaintzen da. Nekazaritza eta abeltzaintzan gorabeherak izaten ditugu.” (3.Elkarrizketatua)*

Bilakaera horrek lehen sektorearen garapenarekin zer ikusi handi duela ere esaten du.

*“Guztiak daude lotuta lehen sektorearekin, baina ekoizpen hutsa baino gehiago tertziarizazioa ikusten da arlo guztietan; eskaera geroz eta gehiago dator ikuspegi horretatik.” (3.Elkarrizketatua)*

Gutxi batzuk sektoretik datoz, eta bokazioa dute, horrek aldarazten du guztia, prest daude bere bizitza horretan emateko, baina ez sektorearengatik ezer egiteagatik baizik eta bere grinak asetzeagatik (hauengan gurasoek oraindik pisua dute bere erabakietan). Gainera, erreleboari zein instalazio gabezia erronken gaiak urruti ikusten dituzte, beraiekin zerikusi gutxi izango balute bezala.

Ondorioz ikusten den moduan, gazte gutxi batzuk nekazaritzako ikasketak egitea aukeratu arren 3.elkarrizketatuak esaten duen bezala ez dago bestelako aldaketarik ez dute sektorearengatik ezer egin nahi. Horrekin batera, merkatuen arazoak gehitu behar zaie. Hala nola, lan-merkatuan sartzeko arazo gutxiago dituzten heziketak nabarmentzen baitira. Adibide nagusia lorezaintza da. Azken urteetan sartu da eta horrek teorikoki irteera gehiago eman arren, oso merkatu espezifiko eta kompetentzia handikoa aurkitzen dute. Baso kudeaketako ikasle gehienak basozain edo administrazioarekin lotutako lanpostuetan ari da pentsatzen, eta hor zailtasunak handiak dira, gutxientzako lekua dago, eta horretaz gain, zer egin gutxi daukate. Hauetako batzuk, aisiako jardueratan pentsatzen ari dira; natur gidari, ingurumen planak, etab. Nekazari eta abeltzainen kasuan, sektoreak pairatzen dituen desoreka eta tentsioak daukate aurrez aurre ongietorria ematen. Azpisektoreen arabera, inbertsio itzelak egin beharko dituzte (esne-behietan ez da instalazio berririk eman, zerotik abiatuta, urteetan) edo lur nahikorik ez dute topatuko, lurra delako une honetan espekulazio gai nagusia.

Amaitzeko honi indar gehiago emateko, Fraisoroko ikasle ohi baita eta bere esperientziei buruz hitz egin dezake. Ikasitako erabilgarria eta oso praktikoa izan dela aitortzen du. Baina lanari dagokionez, erraz bilatu arren, ia lan postu gehienak denboraldikoak eta udaberri zein uda bitartekoak bakarrik izaten direla esaten du.

Aurreko guztia gutxi balitz, nekazaritza-lanak berez ez du erakargarritasunik gazte gehienentzat. Modernizazioak teknologia hobekuntzak ekarri dituen arren, zelaian lana egitea gogorra da oraindik. Are okerrago, nekazaritzako ordutegia askotan bateraezina da gainerako sektore ekonomikoetako beste langile batzuek duten aisialdi eta opor-denborarekin. Bestalde, sari ekonomikoa ere ez da ona; izan ere, errentak urriak dira ustiategiari dedikatzen dioten ordu kopuruekin konparatu ezker. Horregatik, Eduk esaten duena nabarmenduz, nekazarien soldata eta lan baldintza duin batzuen alde egin behar da borroka.



### 6.3. Erreleboa eta despoblazioa

Aurreko gaiaren ondorio modura errelebo falta azaltzen da. Argi dago nekazaritzako erronkarik handiena dela. Izan ere, egun aktiboan dauden nekazarien adina oso altua da; batez ere, nekazarien %40,36ek 65 urte gainditzen dituzte. Hori dela eta, aurreko atalean gazteen eredia nabarmentzen da; azken batean egungo erronkarik handiena baita. Honen arrazoa batez ere bizitzen ari garen despoblazioarengatik dator. Izan ere, azaldu den bezala lehen pertsona gehienak landa eremutan bizi ziren. Gaur egun aldiz, ohitura hau galtzen joan da. Fenomeno honek, herrialdearen zati handia despoblatu du, honenbestez, herri txiki askoren desagertzea ekarri du. Gainera, landa eremua uzten dutenen artean gehienak gazteak eta emakumeak dira, honela, populazioaren zahartzea ekarritik. Horregatik, urbanizazioaren eraginarengatik, gaur egungo gazteek ez dute, nekazaritza, zein elikagai edo ekoizpen-arloan interesik, gainera, hirietan bizitzeak, aldaketa sozialak, ohitura berriak eta kontsumo lehentasun berriak ekarri ditu.

Honi aurre egiteko adituek uste dute nekazaritza jarduera erakargarria izateko beste sektoreetako baldintza berdinak eskaini (ekonomikoki eta bizitza maila) beharko litzatekeela.

*“Bokazio bat eduki behar da eta horretara baldintzak oso garrantzitsuak dira behin eta berriz esaten dut, oraindik ezegonkortasuna ematen baita. Ikuspegi sozial batetik, landa-eremuen despoblazioa ere kontutan hartu behar da. Hori dela eta, landa eremuak puntu erakargarriak ditu hiriekiko, baino ahuleziak ere oso handiak dira. Beraz, bermatu beharrekoa espazio horien bideragarritasun ekonomikoa da, eta nekazariak paper garrantzitsua jokatzen du horretan.” (1.Elkarrizketatua)*

Bertan dauden zerbitzu falta ere nabaria dela aitortzen du eta hiriarekin konparatu ezker arazo handia ere. Gipuzkoan dagoeneko oso zona-alde gutxi daudela ere egia da, gehiago, Nafarroan edo Piriniotan.

Beste elkarrizketatuen ikuspuntutik, despoblazioaren gaitik haratago dagoen gaia dela esaten du.

*“Eztabaida ez dut uste hori denik. Gizarte eredia bera eztabaidatu beharko genuke.” (3.Elkarrizketatua)*

Europar une batez bultzatu zuten landa-eremuaren funtzioa ingurumen eta aisia sustatzeko. Horretarako, nekazarien eremuei laguntzak bideratu zizkieten ingurumena eta populazioaren aisia-eremu gisa zaindu zezaten. Egundak horrek eboluzionatu du, baina fokoa ez dago nekazariarengan ipinita, gizartea oro har ez delako nekazaria. Onartzen da estrategikoa dela elikagaiak ekoiztea baina tentsioak daude erabakitzerakoan, zein eredu jarraitu behar den eta zeini lagundu behar zaion. Bitartean, lehentasuna eman behar zaio ingurumenaren zainketa. Lurralde nekazariak kudeatzen duenez, honi dagokio ingurumena zaintzea, baina honek ez du hori nahi, berak lehenbizi ekoiztu nahi du. Horregatik, sartu da nekazaria eta bere produktuek daukaten kostea ez du merkatuak onartzen. Beraz, ez du merezi nekazari bezala bizitzea. Honez gain, egundak dagoen egoerari buruzko iritzia zein den ere galdetu nion.

*“Barrenetik ikusita guztiak kexu izango dira bere produktuak ez direlako behar bezala baloratzen.” (3.Elkarrizketatua)*



Prezioak eskala ekonomiak ipini ditu eta era industrial batean sortutakoak dira. Nahiz eta, hemen hori oso zaila izan (industrialki ekoiztea). Bokazioa ekoizpen txiki eta autosufizienteak dira, eta merkatuan horrek ez du nahiko lekurik. Horregatik, kexu dira, nahiz eta, batzuetan arrazoirik ez izan. Baina arrazoi daukate beste gauza batean: gizarte hiritarrak aurrera egin du teknologian, bizitza-kalitatean, ahalmen ekonomikoan, eta nekazaria orokorrean atzean geratzen ari da. Konparazioan, nekazari bezala bizi nahi bada, seguraski bizitza-kalitatearen ikuspuntutik ingurumenaren ondotik aritzea asko baloratzen duelako da, baina ez ekonomia-maila eta baliabideak asko baloratzen dituztelako.

*“Dikotomia sinplista baina esanguratsua ipiniko dut: Seme alabak badituzu, zer eman nahi diezu, ingurumenarekin kontaktu zuzena edo ahalmen ekonomikoa?” (3.Elkarrizketatua)*

Hori horrela izan arren, komentatu den moduan, landa-eremu horien portaera kontuan hartuta, egiaztatu da, urte luzez biztanleria kanporatzen jardun ondoren, azken urteetan nolabaiteko egonkortzea gertatu dela, baita biztanleriaren nolabaiteko erakarpena ere. Are gehiago, landa-garapeneko hainbat programa aplikatzearen ondorioz, emaitza positiboak ematen hasi baita (EAEko Landa Garapen Iraunkorrekotik Planean (LGIP) 2000-2006). Hala eta guztiz ere, laguntza gehiago bultzatu beharko litzateke. Egin beharreko lana oraindik handia da.

#### 6.4. Bizitza soziala eta ohiturak

Nabarmen, bestelako arazoekin konparatu ezker, ohiturak eta bizitza estiloa izan da eragin handiena izan duena. Lehen, landa-eremuetako ekonomia dibertsifikatua zegoen eta ekoizten zena norberaren kontsumorako eta inguruko azoketan saltzeko izaten zen; baina emigrazioaren kausaz, lursailak abandonatu, nekazaritza teknifikatu, laborantza tradizionalak alde batera utzi eta ustiapen ekonomikorako erabiltzen hasi ziren, eta ez biziraupenerako. Halaber, kulturaren aldetik, arazoak beste modu batera bideratzen dira. Landako ikuspegi tradizionaletik, non soziabilitatea ahaidetasunarekin, komunitateko kide izatearekin eta orientazio solidarioarekin lotuta zegoen; orain ordea, biztanleek lotura sozialak askatzen ditu, lotura komunitarioak galtzen dituzte eta giro indibidualista eta gizatasunik gabekoa sortzen da.

Elkarrizketatu horietako batek, ekoizpen komertziala du; BM eta Eroski supermerkatuen bidez, herriko denda txikietan, herriko merkatuan salmenta zuzena eginez eta kafetegi/tabernaren batean, eta noski autokontsumorako ere bai, nola ez. Hala ere, herriko azokako salmentaz bere ama arduratzen da. Astean 4 egunetan joaten dela esaten du, bizitza osoa baitarama horretan. Nahiz eta, bertako bezeroak egunetik egunera gutxiago diren (ohitura berriak, gazte jende gutxi...), asko nabari da hauekiko gertuko harremana. Bestalde, elkarrizketatu bera arduratzen da banatzaile lanak egiteaz.

Arazo sozialaz hitz egiteko garaian, lehenik eta behin, bere eguneroko bizitza, lan-bizitza eta bizitza soziala edo familiakoaz azaltzen du.

*“Baserrian egunero-egunero egin behar da lan, urteko 365 egunetan. Igande eta jaiegunetan gutxiago, baina beti dago zerbait egiteko. Goizean goiz hasten nahiz martxan: 7:00 aldera banaketa egin, landare eta haziak ekarri etab... 13:00 aldera arte. Bazkaldu eta deskantsatzeko*



*2 ordu hartzen ditut eta 15:00tarako berriz lanean jartzen nahiz, gaueko 21:00-22:00 arte.” (2.Elkarrizketatua)*

Bizitza soziala eta familiakoa izatea ere gustatzen zaiola aitortu zidan, baina azken finean ez zaizkio ordu asko geratzen egunaren bukaeran. Ostiral eta larunbatetan 19:00 alderako libratzen saiatzen da, eta orduan lagunekin edo familiakoekin egoteko aprobetxatzen du. Baita igandeak ere, igandean, goizean baserrian egiteko dagoen gauzaren bat egin eta gainontzeko guztia familian pasatzea edo bere aisialdirako aprobetxatzea gustatzen zaio. Hiriko bizitzarekin ezin dela konparatu azaltzen du, gainera, bereziki, landako lana baloratu behar dela nabarmentzen du: Km0 produktuak baloratu (honek dakarren onurak, ingurumena etab.), lanpostuak sortzen dira, kalitatezko produktuak eskaintzen dira eta horrek berauegan esfortzu handia dakar. Horregatik, lan postu honetarako zaletasuna, gogoia, landako bizitzaz informazio basikoa behar dela gutxienez aitortzen du.

Bezereen ohiturei dagokionez, aldatu egin direla baieztatzen du. Produktu freskoak, garaian garaikoak, betikoak eta ezagunenak eskatu arren, lehen bezero gehienak plazara hurbiltzen ziren, gaur egun, supermerkatuetara joaten dira, batez ere, prezioari begiratzen dutelako. KMO ko produktuak nahi dituzte baina makro dendetako prezioa baino baxuago eta hori EZINEZKOA da. Izan ere, bitartekariak ordaintzen dieten %-ak beraien irabaziekin zerikusirik ez baitute. Legedia aldatu beharrean dagoela nabarmentzen du. Gainera, bezeroak, geroz eta garrantzia gehiago ematen hari dira kontsumitzen dituzten elikagaiei buruz eta hauen jatorria, baina aldaketa hau zerbait gehiago nabaritu dela dio, baina gutxi. Gehiago ahozko gauza baita ekintza baino.

Beste elkarrizketatuaren bizitza soziala aldiz, ez da hain desberdina. Orduetegi bat eramaten saiatzen da. Nahiz eta beti ezin duen bete, eguraldiak edo egoerak agintzen duela aitortzen baitu.

*“Orduetegi bat eramaten saiatzen naiz, nahiz eta beti ezin dudan bete, eguraldiak edo egoerak agintzen du askotan. Hasieran familian, eztabaida asko izaten genituen lana egiteko moduagatik, baina denborarekin nire gain uzten joan dira. Etxekoek produktu ekologikoen ekoizpena ez ulertzeak eta onartzeko dena demostratu behar izan dut” (4.Elkarrizketatua)*

Hala ere, hiriko bestelako lanekin konparatu ezker, ez dagoela desberdintasun handirik esaten du.

*“Lan fisikoa da askotan eta eguraldiaren menpe bizi gara, bana ondo antolatuz gero, ez da oso desberdina” (4.Elkarrizketatua)*

Edonola ere, esperientziaren garrantzia nabarmentzen du; bereziki, antolakuntza eta landareen zikloak ondo ezagutzea. Bestalde, nekazaritzak gizartean duen garrantzia nabarmendu behar dela dio. Izan ere, bertako ekonomia bultzatzeaz gain, bertako eta garaiko produktuak ekoizleei edo denda txikietan erosiz, askoz naturalagoak eta freskoagoak direla esaten du.

Bezereen ohiturei buruz hitz egiterakoan, pixkanaka lehengo ohiturak aldatzen ari direla aitortu zidan.

*“Pixkanaka erakusten joan gara garaiko produktuak kontsumitzearen garrantzia eta urte osoan barietatea eduki ahal izateko ain ezagunak ez diren barazki desberdinak ekoizten ditugu. Gainera, geroz eta gehiago*



*galdetzen digute barazki bakoitzaren onurak eta nola ekoiztuta dauden. Kontsumitzaile gehiengeok nahi dute produktu fresko eta osasuntsu bat baina errealitatean askok itxurari eta prezioari begiratzen dio.”  
(4.Elkarrizketatua)*

Hirugarren elkarrizketatuaren bizitza soziala ere antzekoa da.

*“Egunero utzik egin gabe goizeko 6.30etan esnatzen gara. Badakigu noiz hasiko garen, baina ez noiz amaituko dugun. Lagunekin nahi baino gutxiago egoten naiz, eguna amaitzerako oso nekatuta egoten baikara. Guretzako astelehena izan edo igandea izan ez dago alde handirik.”  
(5. Elkarrizketatua)*

Landako edo hiriko profesionalen bizitzarekin konparatu ezkerro, aldea dagoela aitortzen du. Batez ere, alde handiena lan egun eta lan orduak dira. Baserri munduz gain, ez daki nonbait egunero lan egiten ote den bestelako lanposturik. Egun askotan 10/12 ordu lan egiten dute.

Aitzitik, hainbat oztoporen aurrean aurkitu da. Orain arteko arazorik handiena eta bakarrenetakoa dirua dela esaten du.

*“Jendeak esan bai baserritarrak baloratzen dituela, baina gezurra galanta. Guk gehienbat esnea eta haragia saltzen dugu. Esnea egitea edo sortzea kostatzen zaiguna baino gutxiago ordaintzen digute. Hau da, esnea esaten da bertatik bizitzeko gutxienez euro bat ordaindu beharko luketela baina errealitatean gutxi gora bera 0,32 euro ordaintzen digute. Leku batzuetan ez dira ezta 0,25 eurora iristen, eta gainera, esaten dute gutxiago ordaintzen hasiko direla. Herritarrek geroz eta gehiago ordaintzen badute guri zergatik ez... Azkenean, gutxi ordaintzen badigute beti dugu beldurra ea noiz galdu dezakegun dena, batez ere, bankuen aurrea.”  
(5.Elkarrizketatua)*

Bestalde, emakumea izateagatik ez du bestelako arazorik izan, baina animaliekin lan egiterako orduan bai.

*“Emakumea izatean egia esan gure etxean berdin tratatu digute, baina egia da fisikoki normalean gizonezkoek baino indar gutxiago dugula eta batzuetan arazo bat izaten da. Bestalde, animalien aurrean, lxxkuek \*zezenek\* gure hormonak nabaritzen dituzte eta arrisku bat bihurtzen da arrak diren animaliekin lan egitea. Behar bada kaletarrek ez diote garrantzia handirik emango baina bai.” (5.Elkarrizketatua)*

Halaber, gizarteak landako lana baloratzearen beharra azpimarratzen du. Azken batean, inguruko mendien zaintza eta gizartearen osasunarentzat oreka behar dela bermatzen du. Hain zuzen ere, oreka hori beraiek eginiko elikadura da.

*“Bertan egin eta bertan jan. Trafikoa gutxituz gure airea hobetuz gure osasuna hobetuko litzateke.” (5.Elkarrizketatua)*

Hori horrela izanda, bizitzeko adina ematen dio, baina bizitza estiloari garrantzia handiagoa ematen dio. Baserriko diru iturriarekin ezinezkoa da bizitza sozial aktiboa eta era berean, kontsumitzailea izatea. Baserrian bertan lasai bizi nahi bada egoera xume edo normal batean bizi behar dela esaten baitu.



## 6.5. Teknologia

Azaldu den bestelako arazoa teknologia dakarrena da. Geroz eta makina aurreratu eta abantaila gehiago eskaintzen dituzte baina nekazarien erronka handiena teknologia hauen eskuragarritasuna da. Hala ere, berrikuntzak landara iriz daitezten sektoreak geroz eta langile kualifikatu gehiago txertatu beharrean ikusten dira. Hemen gazteek paper garrantzitsua jokatuko dute. Izan ere, teknologia hau maneiatzeko ahalmen teknikoa, sistema emankor berritzaileak eta kudeatzeko gai izan beharko dira. Horregatik, profesional diziplina anitzekoa izan beharko dute; hala nola, makinaria erabiltzen, informatika, robotika, klimatologia, kimika zein biologiako ezagutzak izan beharko dituzte. Horrez gain, bestelako ekoizpen metodo berriak ere azaldu direla ikusi da.

Arazo hori lehen eskutik jasotzeko baseritarren elkarrizketak ditugu; ustiapenean dituzten teknologia eta hauek lortzeko izan dituzten arazoei buruz hitz egin dugu.

Lehenik eta behin, lehen elkarrizketatuak beraien lehen teknologietako batek porrot egin zuela azaldu zuen. Hori online salmentak izan ziren. Hau eskuratzeko zailtasunik ez izan arren bestelako lan extra eskaintzen du.

*“Gaur egungo gazteak (internet bidezko erosketak kontrolatzen dituztenak) nahiago dute supermerkatu handietan egin erosketak egin eta produktu freskoak in situ erosi.” (2.Elkarrizketatua)*

Beraz, ez zuen arrakasta handirik izan proiektuak. Berarentzat pertsonalki, ez zaio ideia txarra iruditzen. Izan ere, bertako produktuak eta freskoak modu erosoago batean kontsumitzeko aukera ezin hobea iruditzen baitzaio kontsumitzailearen aldetik. Bere aldetik, bezero berriak lortzeko aukera polita izan zitekeela uste du.

*“Esfortzu handiagoa eskatzen du, eskaerak nik zuzenean banan-bana prestatu eta banatu beharko baititut. Bestalde, banaketa egiteko enpresa bat kontratatzeak dakarren kostua gehitu beharko nioke.” (2.Elkarrizketatua)*

Makinariarekin jarraituz gaur egungoa erabiltzen du, baina berrietaraino joan gabe (robotizaziorik ez behintzat). Gainera, ekoizteko metodoetatik hidroponikoa geroz eta gehiago erabiltzen dela uzten du. Lurraren analisi eta kontrol handiagoa ere, lanerako erraztasuna bilatzeko helburuz. Borroka biologikoetan, intsektizidak erabili beharrean geroz eta aukera alternatibo gehiago aurkitzen dira. Adibide gisa: intsektu harrapakariak, polinizazio erleak etab.

*“Hori horrela izanik, heziketa bereziren bat eskuratzeko beharrean ikusi nahiz. (Elikagaien manipulatzailea, borroka biologikoa, zero hondakin produktuak, sagarrondoak inautzea, barazkien gaixotasunak, hidroponia maneiatzea...)” (2.Elkarrizketatua)*

Hala ere, berrikuntza handiagoa sartzekoan kostuen arazoarekin aurkitu da eta modu berean, teknologia handienetarako ustiapen falta (enpresa txikia baita).

Beste elkarrizketatuak aitortu bezala, erabiltzen duen makinariaren gehiengo tradizionala da. Hain zuzen ere, negutegiko leihoen automatizazioa eta ureztatze sistema tenporizadoreak.





*“Gainera, ekoizteko modu asko lehengorutzen ari dira. Bestalde, makinaria berria txertatzerakoan aurkitu ditudan oztopo handiena teknologia berrien eskuragarritasuna izan da. Izan ere, ez daude egokituak ekoizle txiki edo ahalik eta naturalen ekoiztu nahi dutenentzat. Teknologia hauen bidea beti industrializatzea da; kantitatea igo, kalitatea jaitsiz eta multinazionalengan menpekotasuna lortuz.” (2.Elkarrizketatua)*

Azken elkarrizketatuak ere, besteen antzera, makinaria tradizionala erabiltzen dute. Horrez gain, teknologiaren prezioei kritika sakona egiten du.

*“Oraintxe bertan behiak jaisteko Robota jartzera goaz, baina ezingo nuke ordaindu etzekoen laguntza ekonomikoa ez banu izango. Izan ere, esku lan gutxiago dagoenez, teknologia sartu behar da, baina gure inguruko mendi aldapatsuek ere ez dute laguntzen. Hala ere, heziketa beharrezkoa da, baina teknologiak duen prezio altuek ez dute batere laguntzen. Zertarako ikasi ezin baditugu teknologia berriak ordaindu?.” (5.Elkarrizketatua)*

Ikusten den moduan administrazio aldetik hainbat aldaketa egin beharko litzateke. Oraindik diruaren menpekotasuna oso handia da. Batez ere, ezin liteke multinazionalak izatea beti onuradun ateratzen diren bakarrak. Tokiko ekonomia bultzatu nahi dute baina gehiago da ahozko joera ekintza baino.

## 6.6.Gaztenek plana

Aurreko ataleko arazoei aurre egiteko hainbat proiektu martxan daude, baina ezagunena Gaztenek programa dugu. Lanean azaldu den bezala, plan honen helburu nagusia lehen sektoreko nekazari gazteen sarrera eta iraupena bultzatzean datza. Bestalde, dagoeneko sektorean jarduten duten gazteei bertan irauten laguntzea ere helburu dute. Baina lortzen al dute bere asmoa?

Adituen iritziz motz geratzen den proiektua da.

*“Programaren ikuspegia ona da baina ez nahikoa. Beste erregio batzuetan baino instalazio gehiago lortzen ditu baino ez du lortzen nekazaritza erreleboaren egoerari buelta ematen. Gazteen falta Europa mailako egoera bat da, nekazaritza sektoreaz gain, beste sektoreetan ere nabarmentzen da. Hala ere, egia da sektore honek erakargarritasun gutxi duela eta beraz, krisi hori ageriagoa da.” (1.Elkarrizketatua)*

Modu berean, ekintzaile profilarikin ez dela asmatzen dio, ez baitu zertan gazte bat izan beharrik, sektorean sartu behar duen edonor izan daiteke. Adibidez; 45 urteko pertsona, agian bestelako baliabide eta eskarmentu batzuk dituzte beste sektoreetan lanean ibiltzeagatik. Horretarako, formakuntza eta ibilbide profesionala duten jendea bereizten du. Bestelako arazoa ere, banakako proiektuetan ikusten du. Ekintzaile bat denean eta eskala ekonomiko handia eskatzen duenean, hobeagoa da proiektu handiagoak eta kolektiboak, bestelako bideragarritasun batekin. Proiektu hauei eman beharko litzateke lehentasuna. Edonola ere, erronka handienetako bat horixe da, nola uztartu instalatu nahi duten eragile desberdinen interesak, proiektu handiagoak eta indartsuagoak sortzeko. Ondorio gisa, ez daki Gazteneek egoera horretarako diseinaturik ote dagoen.

Adituen iritzia bestearekin bart dator. Programa ezinbestekoa dela esaten du eta aldi berean ez dela nahikoa. Egia esan, arazoak ez baitira nekazaritzakoak soilik, gizarte





osoan daude: merkantilizazioa, globalizazioa eta baloreen aldaketa da eta nekazaritza departamentutik soilik ezin dira konpondu. Bestalde, aipatu bezala, lurra lortzeko arazoak itzelak dira, eta egin diren esfortzuak behin eta berriz topo egin dute gizarte osoko arazoekin; espekulazioa, kontzientzia, pentsamoldeak etab. Bereziki, gazte batek ezin dio berak bakarrik horri guztiari aurre egin, baina instituzioen artean nekazaritzako departamentuaren laguntza soilik ez da nahikoa. Gizarte arazo bezala ikusten ez den bitartean jai daukagula aitortzen du. Batez ere, orain arte gizarte arazo bezala ikusten duten bakarrak nekazaritzako departamentuetako pertsona batzuk besterik ez dira.

Baita ere, Gazteenetik diru laguntzak jasotzeko neurriak zeintzuk ziren eskuragarri jarri zizkidan. Eskaera, idatziz, norberaren datuekin, eta proiektuaren ideia zirriborroa azalduz aurkeztu behar dela esan zidan. Diru laguntzatan sartzeko baldintzak Foru Aldundiak ipintzen dituzte urtero dekretu batean. Horretarako, egun oinarritzko baldintzak, Maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretuan daudela adierazi zidan eta dokumentua eskuragarri bidali zidan.

### 6.7. Etorkizuneko gazteak

Argi azaldu da behin baino gehiagotan gazteen menpe dagoela gure etorkizuna, lehen sektorean zein bestelako sektoreetan ere. Hori dela eta, etorkizunean nekazari izan nahi duten edonori baina batez ere gazteen etorkizunei buruz hitz egin dugu.

Lehenik eta behin, lanean zehar azaldu den bezala, gazteek informazio eza eta informazio hori non jaso dezaketen ikusi da. Gainera, denen ustez instalatu baino lehenago ongi informaturik egotea batez ere nabarmentzen dute. Adituek informazio hori eskualdeko nekazari bulegoetan, gestio zentroetan eta sindikatuetan jaso dezaketela azaltzen du. Horretarako, landa garapeneko elkarteetara joan beharko dute, baina administrazioa gestio zentroek eramaten dituzte. Laguntzen kudeaketarako aldundiekin jarri beharko litzateke harremanetan eta bideragarritasun plana bideratzeko, orokorrean, gestio zentroek eramaten dituzte.

Horrez gain, gazteen interes faltaren arrazoietan denek iritsi desberdinak dituzte. Baserritarren iritziz, etorkizun zaila aurreikusten dela aitortzen du (merkatuko lege aldetik). Lan ordu/egutegi aldetik oso lotua baitago. Beste baserritar baten iritzi:

*“Bereziki, ezjakintasuna eta lur sailak eskuratzeko arazoengatik dela uste dut.” (4.Elkarrizketatua)*

*“Lan sistema on bat eta nekazaritzatik bizi daitekeela erakutsiz; denontzat ekintza on eta osasuntsu bat egiteak ematen duen asebetetzea bilatu behar da.” (4.Elkarrizketatua)*

Elkarrizketatu horietako batek edonori laguntzeko prest zegoen eta hainbat gomendio eman zizkidan.

*“Gure bidea urteetan izan da nekazaritza mundua gerturatzea eta bidea erraztea, eta oraindik baliagarria dela uste dut. Agroaldeak dira adibide zuzena, eta arrakastatsuak izan dira. Baina abeltzaintzan eredu hori martxan ipintzeko esfortzu handiagoa egin behar da.” (3.Elkarrizketatua)*

Amaitzeko instalatzeko duda dituen norbaiti beraien gomendioak emateko eskatu nien. Baserritarrek oraingoz ez dute gazteengan apustu egiten.



*“Zerotik hasi beharrea baldin badago, hobeto ez. Jada lurrak eta abar baldin baditu Hala ere nahiko zaila, zaletasuna izatea beharrezkoa izango zaio.” (2.Elkarrizketatua)*

Baina hurrengoa nabarmendu zidan

*“Hau ez da lan bat, hau bizimodu bat da.” (2.Elkarrizketatua)*

Baserritar gazte baten iritzi aldiz, gaztea izanik batez ere, probatzea gomendatzen du, horrekin batera ondo eta asko informatu, edozein gomendio dudari jarri eta nor bere iritzia lortu dezaten. Besteek aldiz, ikasketak nabarmentzen ditu, bereziki, ikastaro bat egin eta eredugarria izan daitekeen norbaiti bisita egin, zalantzak argitze aldera.

Amaitzeko, naturaren maitalea dena, lehen sektorea lehendik maite behar dela aitortzen du, hau gabe ez dago ezer. Hala ere, maitatzearekin bakarrik ez da nahiko bertatik ezin bada lasai bizi ekonomikoki. Astelehenetik igandera lan egiten da eta ordu asko, gainera, diru gutxirekin. Zuk nahiko al zenuke?

*“Bizitza gorra da, baina natura maite baduzu aurrera”(5.Elkarrizketatua).*



## VII. Atala: Covid-19aren kalteak eta erronkak

Gradu amaierako lan honen amaierara iristen ari nintzen heinean Covid-19ren krisiarekin aurkitu naiz; hori dela eta, interesgarria iruditzen zait era labur batean azaltzea egoera berri honek lehen sektorean izaten ari duen eragina.

Lehenik eta behin, koronabirusak eragindako pandemia honen sarrera txikia egingo dizuet nekazaritzan izan duen eragina errazago ulertzeko.

Covid-19aren krisiak gure bizitzako eremu guztietan izan ditu ondorioak. Dagoeneko, epe motzean, batzuk azaleratu dira arlo sozialean, ekonomikoan zein arlo zibil eta politikoan. Agerian geratu da, beraz, arriskua sistemikoa dela. Ez hori bakarrik, krisiak gogor astindu du mundu osoan zehar. Eta horrek guztiak agerian utzi ditu gizartearen ahultasunak eta sendotasunak. Orain, ikusteko dago zer gertatuko den epe ertain eta luzean. (Eizagirre, 2020)

Hala ere, pandemia honek, politika berriak diseinatu eta estrategiak planifikatzerako orduan eragingo du. Administrazio publikoek lana antolatzen hasi behako lukete, bai bizitzarako ezinbestekoak diren ondasunak ekoizten dituzten lanetan, bai eskulan eskasia nabaria den sektoreetan. Hau da, gure bizimoduko beharrei erantzuteko aktibitate guztiak birmoldatu beharreen daude. Esan bezala, estrategia ekonomikoak garatuz. (Iñurrategi, 2020)

Bestalde, datu ekonomikoei erreparatuz, Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenaren arabera, 2020 urterako BPGaren %1,9ko igoera espero zen; aldiz, %3,6ko jaitsiera jasan du. Are gehiago, langabezia tasa ere %9,2tik %11,4ra igo da. (Eizagirre, 2020)

Zentzu horretan, ikusten dugun bezala pandemiaren krisi honek inbertsio publikoaren eta pribatuaren geldialdia ekartzeaz gain, enpleguaren geldialdiarekin batera langabezia-tasa igotzea ekarri du. Ez hori bakarrik, jendeen kontsumo ahalmenaren jaitsiera ere ekarri du eta gainera, aktibitate ekonomikoen galera. (Eizagirre, 2020)

Edonola ere, alarma egoerak ez ditu gauza txarrak bakarrik ekarri. Gaur egungo sistemak dituen hutsune asko bistan jarri eta elementu asko eztabaidan jarri ditu: hala nola, osasun sistema publiko indartsu eta duin baten beharreen gaude, baina, bereziki, **bertako elikagaiak kontsumitzearen beharra** dagoela. (Zabaleta, 2020)

Hori dela eta, orain arte balorazio txarra jaso duten lanak, hala nola; kutxazaina, **baserritarra**, zaintzailea, arrantzalea gure gizartean funtsezko lanak izan dira; aldiz, gure denbora betetzen duten lan gehienak nahiko alferrikakoak direla ikusi da. Hori horrela izanik, eredu jasangarriak eta osasuntsuak garatzea ezinbestekoa dela erakutsi da. (Eizagirre, 2020)

Lehen sektoreari dagokionez, funtsezkoa izan da baserritarren ekoizpen-lana. Izan ere, haiei esker, alarma-egoera izanagatik, ez da elikagai faltarik izan. Azken finean, jende asko itxialdian lanera ezin joan arren, baserritarrek beraien ohiko lana egiten jarraitu dute; euren produktuak ekoizten eta saltzen. (Ibarguren, 2020)

Horren ondorioz, baserritarrek jendearen babesa eta aitortza jaso dituzte; izan ere, euren esku zegoena egin baitute egoera berrira egokitu eta kontsumitzaileengana heltzeko. (Ibarguren, 2020)

Besteak beste, orain arte baserritar askorentzat arrotzak ziren plataformak erabiltzen hasi dira; esaterako Internet munduan murgildu baitira. Esaterako, beraien produktuak



Internetez erosteko aukera emateko [webguneak](#) sortu dituzte. Ekintza hauek guztiak lehen sektoreko hainbat eragileen arteko elkartasunarekin lortu da. (Zabaleta, 2020)

Alabaina, harrigarria badirudi ere, hainbat oztopo eta debeku izan dituzte nekazari eta abeltzainek; bereziki, Martxoaren 14an atera zen 463/2020 Errege Dekretua izan da haien jarduna eragotzi duena. Hobeto uler dezazuen, ikus dezagun dekretu horrek zer eragin duen:

1. Hurbileko edo tokiko elikagai-merkatu (azoka) gehienak itxi egin behar izan dituzte. Ez hori bakarrik, hainbat zigor jarri dizkiete; besteak beste, nekazari, abeltzain, kontsumitzaile eta autokontsumoko baratzezainei. Argi ikusten da, oinarritzko ekoizpen txikiari errepresioa eta eraso egin zaie. Izan ere, gobernuek elikadura eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea ukatzen dute. (EHKOLEktiboa, 2020)

2. Ostalaritza-sektorea ixteak eskariak ez egitea dakar, eta horrekin batera, nekazari eta, batez ere, abeltzain estentsiboen produktuak merkaturatzeko zailtasuna eta galera. Bereziki, fruituak azoken eta merkatuen bidez merkaturatzen dituzten ekoizleak eta haien genero freskoa Horeca kanalaren bidez merkaturatzen duten baratzezainak izan dituzte kalteak. (ETB, 2020)

3. Azoka eta merkatuak ixtearen kausaz, supermerkatuek berriz abantailarekin jokaten dute, elikagaiak metatzeko aukera masiboa dute eta produktuen prezioa nabarmen igo da (kontsumitzaileen %82,2k aitortzen dute prezio igoera hori). Horrez gain, produktu freskoak saltzeari utzi diote. (Ortega, 2020)

Beraz, funtsezkoa da, inoiz baino gehiago, tokiko ekoizpen iraunkorra eta osasungarria bermatzea; hau da, produktu freskoak kontsumitzaileengana iristea. Era berean, onartezina da, eskaera masiboen aurrean, produktuen prezioarekin espekulatzen dutenak, beraien onurarako, egoera honetaz baliatzea. (EHKOLEktiboa, 2020)

Horregatik guztiagatik, Martxoaren 30ean lehen [eskaera urgentea egin zen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari](#). Bertan, elikagai-azokak irekitzeko baimena bermatzen da. Bestalde, administrazioaren aldetik tokiko ekoizpena sustatzea eta neurri fiskalak ezartzeko asmoarekin. Aitortu beharra dago, hasiera batean 150 erakunde baino gehiagok sinatu zutela, baina eskaera honek duen larritasuna ikusirik [302 eragileetara](#) iritsi zen. Hurrengo irudian argiago ikus daiteke eskaera horretan eskatutako hainbat baldintza. (EHKOLEktiboa, 2020)



Irudia 2: Herritarren eskaera

# COVID-19

## #SOScampesinado

## #SOSnekazariak

Erakunde baino gehiago batu dira eskaera honetara (<https://ehkolektiboa.eus/baserritar-txikien-ekoizpenaren-alde/2/>) Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari bideak ireki ditzala elikagai-ekoizle txikiek, elikagaiak eskala txikian ekoizten dituztenek, erraztasunak izan ditzaten hornitzeko, tokiko ekonomia babestuz eta elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea babestuz.

**Eskatzen da:**

- Tokian tokiko azoka ez sedentarioak mantentzea.
- Baserri, ukulu eta baratzeetarako joan-etorriak baimentzea, nekazaritza araubidean alta eman beharrik gabe.
- Martxoak 14ko 463/2020 Dekretuan jasotzea, bai baserri eta autokontsumorako baratzeetara joan-etorriak eta baita ere kontsumo-taldeetara joan-etorriak elikadura honiketarako.
- Erosketa Publikoan (eskolak, ospitaleak, elikagai bankuak...) eta larrialdietarako elikadura-laguntzan tokiko eta agroekologikoak diren produktuen eskuartzeari lehentasuna ematea.
- Beren produktuak zuzenean saltzeko, baserrietan osasun-erregistroak ematea azkartzea.
- Ekoizle txikiei laguntzeko neurri fiskalak sustatzea.
- Ministerioak ekoizle txikien produktuak kontsumitzearen garrantziaren kanpaina egitea.
- Udal edo kolektiboak diren hiltegiak berrirekitzea edo sortzea bultzatzea.

**Zer egin dezaket?**

- Presioa egin tokiko/autonomia-erkidegoko gobernuari, ministerioaren gutuna egokituz eta erregistro telematikoaren bidez bidalita.
- Batu zaitetz kanpaina honetara, sareen bidez **#SOScampesinado** **#SOSnekazariak** hastag-arekin
- Kontsumitu izazu zure inguruko baserritar txikien elikagaiak.

Iturria: (EHKolektiboa, 2020)





Konklusio gisa, Euskal Herriko [manifestuko](#) dokumentuan azaltzen den moduan, hainbat aldagai nagusi eduki beharko dira kontutan; egun, Euskal Herrian bizitzen ari garan egoera honi aurre egiteko, baina batez ere, atzetik zetorren guztia aldatu ahal izateko. Aipatu ere, momentu honetan 700 euskal akademikok baino gehiagok sinatzeaz gain, 2000 herritar baino gehiagoren artean zabaldu eta sinatzera heldu da. Horrez gain, 100 elkarte eta erakundek baino gehiagok ere sinatu izan dute. (Euskalherriapostcovid19, 2020)

Alde batetik, Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkunderi garrantzi gutxiago eman beharko litzateke. Konfinamenduan argi geratu da zeintzuk diren gure bizi-iraupenerako esentzialak diren jarduera ekonomiak (hezkuntza, osasuna, energia eta **elikagaien ekoizpena**). Hori dela eta, BPGari garrantzia gehiago eman beharrean, bestelako sistema ekonomiko batean oinarritu behar da. Hain zuzen ere, beste adierazle horiek, ingurumeneko eta ekonomiako kontabilitateko sistema integratuetan oinarritzean datza. Honela, bizitzaren iraunkortasuna bermatzeaz gain, giza ongizatea eta planetaren ongizatearen alde egingo da. (Euskalherriapostcovid19, 2020)

Bestetik, ekoizpen, inbertsio eta kontsumo-politika ekologikoak bultzatu behar dira. Ekoizpenari begira, herritarren osasuna eta ongizatea bermatzeko funtsezko ondasun eta zerbitzuak bermatu behar dira. Horretarako, Okm-aren kontzeptua zabaldu eta sustatzeko beharra dago. (Euskalherriapostcovid19, 2020)

Bestalde, zientzian eta teknologian beharrezko inbertsioak egin behar dira. Lehen aipatu bezala, bestelako merkaturatze metodo batzuk ahalbidetzeko aukera bikaina izango baita.

Azken finean, nekazaritza eta elikadura sistema berrantolatzean datza. Aurreko atalean esan bezala 0 km ereduak bultzatuz. Hau da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko hurbiltasun harremana bultzatu behar da. Hori abiapuntu modura hartuz, agroekologian oinarritutako ekoizpenean oinarritu behar da. Kontuan hartu behar da gizakiaren ongizaterako eta planetarako hainbat abantaila dituela. Izan ere, biodibertsitatea kontserbatzen du, elikagai jasangarriak eskaintzen ditu, eta gainera, ekonomia lokala bermatzen da; edonola ere, lan-baldintza duinetan oinarrituz. Azkenean argi dago, elikadura osasungarriaren eskubidea errespetatu, babestu eta bermatu behar da. (Euskalherriapostcovid19, 2020)



## VIII. Atala: Ondoriak eta gomendioak

### 8.1. Ondorioak

Ikerketa honetako orrialdeetan aztertu den bezala, nekazaritzak beti izan du ekonomian garrantzizko papera, baina hainbat faktore tarteko, garrantzia galdu du. Bereziki, Europar Batasunean sartzeak, industrializazioak eta hirietara emigratzeak eragin dute atzeratze hori. Lanean zehar, bilakaera hori aztertzen saiatu nahiz, eta aldaketa horien ondorioz, gaur egun, zer egoeratan aurkitzen garen aztertu dut. Hala nola, etorkizunerako gazteen erronka nagusienak zehazteko asmoarekin.

Bestalde, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erreformak zer aukera eskaini ditzakeen aztertzen joan naiz. Baserritarrek politika honek eskaintzen dituzten diru laguntzengain menpekotasuna handia izateaz gain, politika publikoek ekoizpen-eredu bat bestearen aurrean lehenesten dute. Hain zuzen ere, produkzio intentsiboan oinarritutako ereduak ahalbidetzen dute. Modu horretan, ustiapen txikiek ez dute lekurik eta lurra eta baliabideak geroz eta esku gutxiagotan ari dira metatzen; hain zuzen ere, diru-laguntzak emanez, muga-zergen kopurua gutxituz eta beste sistemak dituztenei debekuak ezarriz. Ez hori bakarrik, landa-eremuak despulatu egin dira eta nekazaritzak egonkortasuna galdu du.

Honen ondorioz, lanean mila bider azaldu den arazora eramaten gaitu, eta horregatik, atal berezia eskaini zaio arazoa ondo ulertzeko. Hain zuzen ere, belaunaldi txandaketaren egoera (errelebo falta) eta kultura zein ohituren aldaketa da. Ikusi den moduan, Euskal Herriko nekazari aktiboen kopurua murrizten doa urtez urte; hala nola, erreleborik gabe, hemendik 10 urteetara ez da nekazaririk geratuko. Aipatu bezala, krisi hau ohituren aldaketatik dator, baserritarren seme-alabak hirietara emigratu eta ustiategi familiarra alde batera uztearen kausaz. Baina arazoak harantzago doazela ikusi dira; besteak beste, gazteek interesik ez dute, ustiategiak lortzea oso zaila da eta, askotan, gainera, lanek ez dute enplegu aitortzarik. Horregatik, hiriko bizitza eta lana hobeagoa eta duinagoa dela pentsatzen da.

Hala ere, konponbidea badago; gazte kaletarrak landa-eremuetara itzultzen ari baitira eta egungo egoera hobetu dezakete, baina bestelako nekazaritza mota batera eramaten gaitu. Bestelako pentsamolde eta ikasketa dituzte, baina lehen sektorean txertatzeko arazoekin topatzen dira. Batez ere, inkorporazio berrientzat kapital-inbertsioak oso handiak baitira. Horra hor, erakunde publikoen kontraesan handiena: belaunaldien arteko txandaketa bermatu nahi dute, baina lurra edo azpiegiturak oinordetzan jaso ez dituztenei oztopoak jartzen dizkiete. Horrez gain, emakumea izateagatik berain erronka hirukoiztu egiten dela ere esan beharra dago: izan ere, sektorea oraindik maskulinazturik dagoela ikusten da.

Horrekin batera, aipatu behar dira egungo klima kaltetzen duten kontsumo-ohiturak. Izan ere, osasunaren ikuspuntutik, nekazaritza-eredu industrialak geroz eta bultzada handiagoa du. Gainera, gure ingurumena kutsatzeaz gain, kontsumitzen diren elikagai gehienak dieta prozesatuetan oinarritzen dira; hau da, azukretuak eta geroz eta eraldatuagoak dira. Horrek osasun-arazoak maizago agertzeak ekartzen du. Ez hori bakarrik, gure elikagaien jatorria eta kontsumitzaileen arteko distantzia geroz eta handiagoa izatea ahalbidetu du. Ondorioz, nekazaritzako ezagupenak galtzea ekarri du. Era berean, berrikuntzaren garrantzia azpimarratu nahi dut; izan ere, azken urteotan enpresa-munduan arrakasta izateko funtsezko alderdia baita. Udalerriko bizilagunek



jasoko luketen prestakuntzari esker, merkaturatzeko aukera berriak izango lukete. Gainera, Covid-19aren ondorioz, teknologiak berezko papera jorratu du.

Laburbilduz, nekazaritza belaunaldiak txandakatu ahal izatea bermatu behar da; horretarako, hurrengo txostenean "[Nekazaritzako etorkizuneko belaunaldiak NPBren erreformaren aurrean](#)" (Bret, 2019) azaltzen den bezala, 5 helburu nagusi edo eraldaketa behar ditugu:

-Ezegonkortasuna geldiarazi; nekazaritzako enplegu gehiago eta hobeak sortuz. Hau da, diru-laguntzen bidezko errenta bermatu, eta enplegu duina sortuko duen nekazaritza-eredua bideratu behar da.

-Erretiro duina eskaini; helburua betetzeko, ezinbestekoa da erretiratzeko adina heltzean, pertsonen pentsio duinetarako eskubidea izatea.

-Finantzaketa eta laguntzak; Gaztenek moduko plan gehiago bultzatzea. Hau da; interes txikiko kredituak, inbertsioetarako finantzaketa-laguntzak eta diru-laguntzak eskaintzen dituenak.

-Inkorporazio berrien lurrerako irisgarritasuna; lur-bankuen ugalketa, lur publikoen lagatzea eta hiri-ortuak eskaintzean. Esaterako, harreman horietan bitartekari izateko sortu diren ekimenak bultzatu behar dira.

-Merkaturatze-zirkuitu laburrak; tokiko nekazaritzako ekonomiei (txikiei) eta eskualdeko merkatu sendoak sustatzea. Berrikuntza soziala sustatu behar da eta lurraldean elikadura-sistema jasangarriak eraiki.

Zalantzarik gabe, funtsezkoa da politika-ereduak aldatzea. Aldiz, aldaketa hori ezin da NPBren eremura mugatu; gure ohitura eta gizartea ikusteko moduan ere aldatu beharrean dago. Bestalde, elikagaiak ekoizteko ereduaren aldaketaren ikuspegitik ekin behar zaio. Hori dela eta, lehendik azaldu den moduan IPES FOOD txostenak azaltzen duen moduan; European Nekazaritza Politika Bateratua eta Elikadura Sistema Jasangarria batu beharko litzateke (elkarlanean arituz).

Gauzak horrela izanik, belaunaldi berriek izango dituzten erronka ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturei aurre egiteko inplikazio handia beharko da. Horregatik, hurrengo atalean hainbat hausnarketa eta gomendio ematen ahalegindu nahiz.





## 8.2. Gomendioak

